



Iturria: *Lekukotasuna*, Pablo Fermin Irigarai Larreko
(Iñaki Caminoren edizioa). Euskal Editoreen Elkarte, 1992.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LarrekoLekuko.htm>

LEKUKOTASUNA

Pablo Fermin Irigarai «Larreko»

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabetasun Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

IDEOLOGIA ETA GIZARTEA



AIN'TZA DEUN MIKELI

Aralarko gure Zaindariaren agerraldia izan dugu aste untan Iruñan.

Bozik eta belaunikaturik otoizten datzut, izan zaitela gure Begiralea eta Jainkoaren baitan Euskalerriko bitartekoa.

Zortzigarren mendean eskeñi zinion Goñi'tar Teodosiori, Naparro-ako Begiralea izain zinela eta orduan aña zure bearretan aurkitzen gara.

Aralarko zure aintza lekutik ikusten duzu zer gisaz gauden orai untako egoiliarrak, nola oben-arrotzkeriz beteak, ukatu dugun leenengo euskeldunen izaitea.

Otoi, lagundu gitzazu, bertzenaz galduak gara.

Biotz-biotzetik eskatzen datzut izan zaitela Jainkoaren baitan euzko-tarren Bitartekoa.

Ego aldeko aizeak epeldu gaitu eta ipar aldekoak gaitzkitu digu.

Leengo sineste bizia il zorian eta euskel izaitea il urran dauzkagu.

Baldin, Zeruko laguntza erdiesten ezpadiguzu, zorigaiztoko Nafarroa! zoritxarreko nafartarrak!

Baña, ez, Jainkoak lagun digula, zu, Mikel Deuna, Begirale izanez geroz, ez dugu beldurrik, zure baitan ipintzen dugulakotz, Euskalerrriaren orai eta etorkizuna.

Bai, otoi, artzazu zure gain gure borroken ematzea, eta gure betiko izaitearen borobiltzea!

Gudariz inguratuak eta gutartekoak indartuak, eztugu bertze lopiderik, baizik, zure gain uztea gure bizia.

Nafartarrek eztugu bertze burupiderik, *Jainkoa eta lege zarra* baizik, unen bidez gu guziok Jainkoaren. Ala biz.

Mil esker, Mikel Deuna; zure agerraldiaz ez ginen gai; lurreko eta loieko lanez okituak gaudenez geroz etorri zara gu iratzarrazteko eta gure biotzak itzuliazteko Jainkoari.

Agur, Euskalerriko zaindaria, agur.

Larrekoa



ASTEKO BERRIAK

Aste untan baginuke asteroko auxe buruen buru betetzeko gaia, mintzatu bear banu Iruñako jaiez.

Neri etzadazue galda zezen kontuz, *ezpainaiz* urbildu ere espila (cerco redondo) edo *plaza de toros* delako orietan egiten diren garraikerrietara.

Alako *jostetak* ez dire guretzat.

Emengo abeslari-batzak (orfeón) egin zuen jaia iragan igandean ederra izandu zen eta euskal usañako kantu ederrak abestu zituen.

Madrilgo soñulari batzak yo zituenak nik eztakit ongi edo ez, baña neri ederki iduritu zizaidan, naiz larreko gisaz, belarriko larru lodia dut. Dakitenek diotenaz ederki yo zituzten eres zati dire oberenak.

Nere zarzaroan Iruñaratua, leen aldiz aurten ikusi ditut emengo jaiak.

Beinere ez nituen sinetsiko Iruñan egin diren astokeriak eta emengo karriketako oiua, soñu tzar, kantu, egunaz eta gauaz ordu eroetan karrika guzietan berdin.

Kazeten arabera uste ginuen emengo jaiak bertze errietan baño txukunagoak zirela; bai zera! Iruñako yendea erotu da iñaute gisaz, filda zaarrez yauntziak, oro oiulari alde guzitik asots tzar dariotela, iragan bospasei egunez, zer eztugu entzun? Jainko maitea! Azantzazale oriek apur bateko bakea eman digute zezenketako orduetan; ordu orietaz landa ez ginuen izan lorik egiteko ixiltasunik. Ero tzar oriek guziak espila batean bilduak, an zer ote zen! Jainkoak begira gitzala leku artaratuz.

Alako erotegian egoteak biziki biotzmindu nau, naiago dut berreun aldiz nere larreko bakartasuna, olako *civilizacionea* baño. Larretik unata artea bada gero!

Goazen, Yinkoaikin, koatropa edo abere salerospenak egiten diren terira, an bedere iñauterik ez aal dugu ikusiko, *ezpada* egoaldeko xitoak edo oken antzeko tratulari batzu.

Emen bedere gurekilakoak ikusi ditugu eta euskeraz ari zirenak asko boztu gituzte, iduri baizizaidan larreko bidean nindagola, berriz arat itzulminez yoa bezala. —Bei guti oi bezala eta txarrak, idi bikoak aunitz; larreko xaldi eta beoka leer.

Feriko bertze muturrean berriz zamari, mando eta zaldi aunitz ere, baño alde untan euskal usañik ez dut aditu, abereak eta oken inguruan zabiltzanak oro egoaldekoak, España beereko antzedunak.

Gauza guziek bezala abereak ere garesti omen daude.

Saltzeko dituenari ez bide zaio ala. Dena den, saldu omen da arinda poliki.

Azkenik, berri on bat eman bear datzuet, atzenik ixilduxeak ditugu iragan egunetako asots izigarriak. Bearrik, bertzenaz abia zen larrera tuku-tuku.

Larrekoa



EUSKEL GUTUN EGILE GAITZA GILTZAPETUA

Biozmin andiekin ikasi dugu *Eskualdunaren* idazle bizkorra den J. S.P. Alemaniarat bildua omen zauritua ta an omen dago preso.

Bioz andiko misiolaria eta buru oneko apez euskelduna.

Gudu asiez geroz erizain zagoena lerroetan eta beti arrai bezain txukunki *Eskualdunaren* bidez astero edo amabortzero jakinarazten ginduen eskutitz ederrez guduaren goiti beitiak eta bereziki euskeldun gudularien berriak.

Jainkoa urrikal bekizu bertze alde beltz ortan, azpandar maitea; oroit zaitez nola bilduak izan ginen Donianen gogokide gisaz orai duela zenbeit urtez. Ordutik unata zer aldairak! zer gizonak zenduak! eta zenbat, gauzak bertzelatuak!

Jainko maitea, urrikal zakizkigu; senez gaixtoak gara baño, oraidanik bertzelatuak gagozi eta gutaz urrikal, Jainko Jaun ona!

J. S. P. jauna; ez dakit non zauden, baño bioz-biotzetik eta *Eskualdunaren* bidez or doakizu ene biozmin agurra.

Nai nuke jakin nontsu dagon ene adixkide begi-begikoa eta otoi *Eskualdunari* argi zerbeit.

Larrekoa

MENDIZ ARAINDIKO EUSKELDUNERI, AGUR

Jainkoak dizutela zorioneko bakea.

Biotzak atseginez beterik gagozi emengo euskeldunak; epe luzeaz kezkaz beterik egonak zuen minak eta nigarrak beti gogoan ginituela; orain Jainkoari eskerrak eta zueri ene biotzeko agur beroenak.

Zenduak Jainkoa baitan beude eta bizirik atera ziztenak Jainkoa urrikal bekizue.

Larreko



ORREAGATIK

Aspaldidanik, Naparrako *Oroituriaren* arabera, munduko lau kantoñetara edatua zen eta dago Orreaga izena.

Zortzigarren mendeko urbil artan izandu zen, non *Karlo Magnoren* gudutaldia, porrokatu zuten orduko napartarrek.

Baño, untaz landara, Zeruko eta lurreko Andre Denak berezi zuen, bere egoitzarako, leku zoragarri ura.

Menderen mende eliz artako eliz gizonek, aundi-maundi eta jakintsunek, Orreagako Ama Birjinaren omena eskualde bazterrenetara edatu zuten.

Oraia untako aundi-maundiek eta jakintsunek ez dakit antzi ote duten Orreagako *Andre Dena* dagon leku ederra; baño aren inguruetako erritar eta baserritarren artean bizi-bizia dago Aren baitako ustekida gozo-gozoa, eta berari dioten leia.

Jainkoak daki noiztiez geroz, urteoro eta Salvatore ondoko aste osoan, egunero eta banazka erri batekoak eta ibar bakoitzekoak, Orreagan dituzu goiz-goizetik, ibilaldi luze-luzeak eginik; zurezko kurutze lodiak soñean eta bidean Andre-Denari agurka eta kantari.

Nere pozaren andia! Asteazkena da. Belaiak, landak, zelaiak lilitsu dagozi; zugaizak ostutzen doi-doia asi berri. Udaberriko goiz eder baten zortziterdian, zerugoia urdinabar delarik, oro ixil-ixila dagolarik, zein eder den *Andre-Saroaren* erdi-erdian Artzibarko beilariak, zurezko kurutze zarrak soñean, Orreagara eldu kantari!

Eta gu ikusle. Sinetsdunak ek eta gu otzak? epelak zinez, eken sinets biziaren jabe bagine!

Baño, *nor gera gu?* Norata heldu naiz? Ez ote naiz ek bezain *Andre Denaren* seme? Eta ek, ala; eta ni unela?

Nik elizara, Ama Birjinaren oñetara, Amaren alzora, ez ote dut ek bezain laster bide?

Baña, ni bertze bidetik nindoaien; ni buru andikoa naiz antutsa! ikasiz eldu nai nuen jakitera nor den Jainkoa eta nor den Bere ama.

Ongi ikasiz geroz, ongi ezagutu eta gero belaunikatu eta sinetsteke.

Ergela! ene baitan, nere buruari deituta, sinesteko bidea ez duk ori! Ortako bide llaburra bertze aldetik dago. Burua apaldu, biotza agertu eta belaunikatu.

Nik ere alde untarik jo nuen eta *ora pro nobiska* elizarat sartu nintzan.

Larreko



RAMIRO DE MAEZTU IRUÑEN

Azierako jarraibidetzat

«Gayarre» delako teatroan koka ala bete zagonean Maeztu egunkari-laria asi zen esaten, bera ere gutarra zela; jaiotzez gazteiztarra eta arbaso-
ez arabarra eta naparra.

Esan zuen; gizaki eta gizadiaren azierako eta oraiko aldi untan be-
arrezkoa dugula jarraibide edo elburu bat.

Aren irizpideko, azierako edo gizakiaren azaroa, iru zatitan berexi
ginezakela, adina arau: aurzarokoa, gaztarokoa eta gizontarokoa. Aurza-
roko azieraren erakaspina, anglesarena autatu eta berexi bear dugula:
aziera unek ditu obekienik aurrak azten, eken biotzetan sortuazi eta lan-
datuz on alderako biozketak eta gutiziak.

Aldiz, gaitz alderakoak gaizestuz eta gorrotatuz; aziera untan bida-
tzeko emakumeak direla geienak.

Gaztaroarena berriz, autatu eta berexi bearr dugula frantzesaren
bigarren mallako ikastaroa, Liceo delakoa edo *Humanidades*; bide untarik
geienik, gazteek erdiesten dutela bear duten ura ikasgaietan nagusitzeko.

Ikastetxe nagusietako ikastaroa berriz alemana, bearr dugula autatu.

Iru ikastaro oriek osotu dezaketela, gizakiaren elburu ederra edo
ideal bat; letraduntzeko, jakintsuntzeko eta zintzotzeko.

Argi eta garbi adierazi digu zergatik aroaren arabera, ohea den lee-
nik anglea, bigarren mallarako berriz frantzesaren eta irugarren edo naga-
sien azierako alemana.

Aurzarokoan, biotza billatzen duela, aren baitan biozketa onak lan-
datzeko, ots, sentimentu onak aurren biotz barnean tinkatzeko.

Bigarren mallakoetan berriz, adimena trebatuz; gauza bakotxean
nola jokatu bear dan zintzoki billatuz: Liceoko ikastaroa dela ortarako
autena.

Irugarrenekoan; bakotxari utziz bere baitarik egiñ dezan lan berezi
bat, berak asma dezaken arabera; au egiteko alemanen ikastetxe nagusie-
tako aziera dela oberena.

Batek, gai bat bere gain artuz artan aal duen bezain ondo lan eginik
ager dadin zertarañoko gai den.

Iru elburu edo xedek osotu bearr dira, azieraren jarraibidetzat, iruek
bat egiten dutela.

Iru elburu oriek dira: *almena edo indarra* (poder); *jakinduria* (ciencia)
eta *maitetasuna* (amor).

Banazka arrtuz gaizkira emanen dugu: iturburu oken egon-leku edo
sor-leku bezala, emagun; *indarrarena* Roma; *jakinduriarena*, Atenas; *maiteta-
sunarena* Jerusalem.

Iruiek bateratu eta emanen dute aziera ona; banazka txarra. Oroitu-
riak erakusten duen bezala.

Baten baitako elburua indarra baldin badu, Romara urbildu eta Ate-
nas, Jerusalemetik, urruti geldituko da. Gisa beraz jakinduria baldin badu
Atenasa urbildu eta bertzeenganik urruti eta ala.

Ortarako bearr ditugu iru elburuak bateratu eta izanen dugu, aziera-
ko jarraibide ona.

Gutziz, mintzaldi ederra entzunik atera ginen.

Badaiteke; bat edo batek esan dezake, Relijioa doi-doia aipatu bezik
egin etzuela.

Baño, egia da izendatu etzuela erakaspenerik, eta nik uste, naiz ez erra-
nik, gauza guzien leen daukala Maeztu jaunak ere Errelijioa.

Jainkoak ala nai duela.

Larreko



EMAKUMEA ERRAN ZUURRETAN

Euskaldunen erran zaarretan, baditugu erran zuurrak; non ta emakumen izate berezi zerbeit, zuurki, agertzen digutenak.

Uez-ama debru zama

Betidanik eta alde guztietan berdin gaizki ikusia dela uez-ama eta direla uezak; bazter guztietan iguin dugula uez-ama, oro batean gaude.

Egiazko ama, orren ona delarik bere umentzat; ainbat tzarrago da uez-ama, bere ez dituen umendako.

Goiko erranera polit orrek, gauza ori bera aditzera ematen digu, *uez-ama, debru zama*.

Erranera ori, leen aldiz entzun nuenean, nere arritzearen aundia, eta aldiz; zer atsegina izan nuen!

Eierazain baten emazte batenganik ikasia, baño etzait gogora eldu, zertaz edo zeri buruz mintzo zen.

Orduko, ni asia bainintzen euskaldun xaarreri so egiten eta ehen solas aldieri adi-adi erne egoten; bereala artu nion erranera polit ori eta geroago ez naiz oroitzen, berriz entzunik nagon.

Gizonak zaarrera, emaztea gaitzesten

Erranera ori, aditu nuenean, orduko ainitz lekutan egona bainintzen, uste nuen errana edatuago izanen zela Euskalerrian.

Gero eta gutiago adituz eta ikusiz erranera bilkoetan nere baitan gogoeta ongi eta asi naiz kezketan, oker entzun ote nuen.

Nik ikusi dutanaren arabera, erranera orrek adiarazten du; senar-emazteen elkar ongi artzea, adinaikin ozten dela eta bertzelatzen. Senar-rak emaztea aisa uzten duela eta emazteak senarra berdin.

Ordik, elkar gaitzestera bada bide orañik, baño bidean daude: astiatzetik gaitzestera urbil da.

Antxu txarra, beti bildots

Erraten oi da emakume tipientzat: tipiak, den baño gazteago ematen bai du beti: tipiak eta txarrak ezkongabe edo ezkondurik, umerik gabe gelditzen direlakotz geienetan; orgatik geiegi igatu gabe bizi direlakotz, diren baño gazteago ematen dute.

Baño, oroitzen naiz euskaldun uts bati entzunik, erranera ori bertze gisa untara.

Antxu xaarra (ez txarra) beti bildots adiarazten diguna; andere baten adina, ematen duenaren baño andiago delarik.

Guziek ezagutzen ditugu emakume batzu beti gazte ematen dute-nak: emakume oriek ezkon gabeak edo gazte alargunduak edo ezkondu-rik ume gabeak: ots, lan geiegiek igatu gabeak.

Geiegizko oriek umek ekartzen dituzte eta umerik egin ez duena antxu da; orgatik antxu zaartzen denean, bertzeak baño gazteago ematen duelakotz da *antxu xaarra beti bildots*.

Etzait gogora eldu, non eta nola entzunik nagon; baño nola nai den dela, biziki polita zait.

Andere ona, mee

Euskalerriko etxekanderek ez dute lo geiegi egiten, ez ta ere, geiegi atsedeten: badakite zutik eta ibilki bere bazkaaldiak egiten; askotan, bide-nabarkoan egiten oi ditu, bertzeek jarririk egiten duguna.

Etxean, ura da goizenik jaikitzen dena eta berantenik oatzeratzen dena; sua dela, gosariak direla, etxekoentzat eta langilentzat bazkariak direla, badu norat eldu.

Ortaz landara; laborea duela, lixua ikuzi bearra dela; olloak, urdeak, baratzeak, ez dezake guzieren buru eman.

Leer eginik, gisa ortako bizitzea ez da gizentzeko egokiena, etxe geienetan ala da egia eta bizimodu ori adiarazteko, poliki errana dago *andere ona, mee*.



Erran polita ori, neri erran zidan andereak ere, ez du bilkor andirik, me-mea da; ala ere egoki zitzaidan, egia delakotz edo ni ere mee porrokatua nagolakotz.

Etxeko anderea nongo, gure aideak ang

Nere jakinean, erranera ori ez du inork eman: erran zuurretan ez dut alakorik bilatu eta ez ikusi ere, erranera gutunetan.

Etxe anitzetan gertatzen dena, adiarazi nai du.

Etxeko andrea, nagusia baño nagusiago duten etxetako zera da ori.

Alakoetan, etxeko andereak, egiten eta erraten duena, ura da etxeko guziek onesten dutena; ezin bertzean edo ala bear delako ustean.

Batbedera bere aidegoari emanago bai da, bertzeeneri baño, alako etxeko andereak maiteago ditu nagusiarenak baño, bereak.

Orgatik, etxe orietan begi onez ikusiak dire anderearenak eta aldiz, begi tipiz bertzeenak.

Poliki-poliki, batak urbiltzenago diren bezain urruntzenago dira nagusiarenak.

Eta azkenian ek aideago ok baño; izenez ezpa dira ere, izanez bai.

Ori erakusten digu erran eder orrek *Etxeko anderea nongo, gure aideak ang*.

Irunez oialdundu da gure andrea, ez alfer egonez

Orra or bertze erranera polita, andrearen lanaren gain ematen duela aberastea.

Neri, arras polita zait erranera; ez bakarrik aberastea, lanaren ondorioa dela adiarazten digulako, baizik eta andre edo emakume lan bat, irutea, artzen duela bidezkoago, guzieren erakusteko, lana dela aberasteko edo ongi egoteko bidea.

Larreko

LIBURUAREN EGUNA

Gutunak (liburuak) ere, oraiko bertze gauza askok bezela, badute eken eguna edo astea. «Gutunaren eguna» esaten oi diote, letradunak urtero berexuten duten egun, non ta batzarretan bildurik ikastetxe eta alakoetan, liburuaren onak elburutzat artuz, egiten bai dute gutunaren goresarrea edo agurra.

Bereziki, asmo bati buruz: nai luteke jakinazi, liburuaren balio andia; arek daukan indarra noraño eltzen den, eta noraño eldu bear luken bere ondorio onenak guzietara zabaltzeko.

Euskaldunak beñere ez paigara idaztizaleak izan, ikusi bear ginuke, zinez egia ote den liburuek dioten bezenbat indar eta balioa ote duten.

Baiki: liburu eta liburu bada bazterretan!

Oraiko aldi untan liburuz leerra moldatzen dituzte; ustez eta eken bear anditan gaudela. Argitaratzen dituzten gutun guziak orren bearrezkoak ote dira?

Ez dut uste, eta nik bezala bertze aintzek ere ez. Ortan ere, bertze asko gauzetan bezala, bidez aldaturik gabiltza; iduri bai-du, nor nai gaudela gutun egiteko.

Gutunak egiten oi dituzte: edo irakurlea jostarazteko, edo ari zerbeiten irakasteko, edo biek batean, dostatuz, bidenabargoan irakasten dutenak.

Irakurlearen jostarazteko egiten diren erdiaren erdiak ere, ez dira onak. Oketan, jostatzen bezenbat erakusten dutenak izkuntza bear bezala erabiltzen; ederki itzegiten erakusten dutenak; baldin mami txarrik eskeintzen ezpadigute, oriek bearrezkoak ditugu. Izkuntza batean jaunzete, ura ongi dakitenei aditu baño bide oberik ez dugu.

Bertze gutunetan, eken egileek geienik nai dutena da, guri erakaspenez ematea. Gutun oketarik leerra bada bazterretan; ikaskuntza bakoetako, Jainkoak daki argitaratzen dituztenak; baldin beste ikaskuntzetan



agertzen direnen berri guti dakitan, sendakintzakoen berri zerbeit bada-
kit.

Ortan ere neurritik aratago gabiltza; geiegi idazten dela, askotan egi-
leek ez dutela bear duten doi ura, gai izateko bear bezala idazteko.

Eta nolako gutunak, argitarat ematen dituztenak!

Ez da aspaldi, Madriden nindagola, ango irakasle bati auxe entzun
niola.

Aren ikasle bati galdeka ari zen, erantzupen zuzenik aditu gabe. Oar-
turik etzagola ortarako gaiturik edo ikasirik, erran zion eta erran zigun:

«Ikasi eta ikasi ari zarezte dituzuen liburu andi orietan. Ek irakurtzen
ez duzue astia galtzen bakarrik, baizik eta astotzen zarezte. Asko da asto-
tzeko zuen gogoak bazkatu eskuen artean darabilzkizuen gutun orietan.
Bear den ura bear bezala ez ikasteko, bide zabala daramazue.»

Askotan auxe egia dala ez daiteke ukatu; baño badaiteke ere geiegi-
zko zerbeit aixteko itz orietan.

Nik ez dakit zergatik bizpairu orrietan argi erran daitekena ematen
diguten ilunik eta berreun orrialdean. Jainko maitea! Zenbat alper lan egi-
ten ez den, gutun andi ezin jasanezko orietan! Zenbat asti ez gaituzte
galazten, alako gutunen irakurtzen eta ikasten!

Adinari esker, zerbeit ikasia bai naiz, askotan ene baitan erranik
nago: «Zenbat itz deusik ez errateko»

Nor da zozoa? Ene adiskide baten arabera: itz askotan deusik erra-
ten ez duena.

Gauza bera erran ginezake oraingo edo aldi ontako liburu batzuek
mintzo bagine. Irakurri eta irakurri, eta azkenean leen bezala argi gabe,
erakaspenik gabe.

Euskaldunak ortan ez gara obendun: itzez laburrak bagara, gutun egi-
tez laburrago agertu gara, baldin uts artan erori ezpagara erdaldunduta.

Ala ere ez dut uste, ez nabila gero euskaldunen buruak zuritu naiaz,
baizik eta egiari bide ematen; euskaldunek egiten dituzten lanetan, beti
mamia alde guzietarik nabari da; ziñez ez da lastogose.

Nere irizpidean, liburu egitekotan sartzeko, urteak eta urteak ikas-
ten, ikusten eta ongi lan egiten aritu dena, balitzeke gai.

Ortaz landara, baldin buru argiduna bada gauzak diren bezala ikus-
teko, ori bai litzekela gai zerbeit onik egiteko. Geienetan, erakaspene onak
eta jakingarrienak, bilko andietan baño apurragoetan ematen oi dira.
Gauza ona ez da beñere meta andietan ematen.

Nik uste, nere bizi guzian ikusi eta ikasi dutana, liburu tipi batean
eman nezakela.

Ortarik ezagutu bear ginuke gutun baten egilea nor den, mamia zen-
bat maite duen, eta mami ori ongi berexten ikasia den.

Gisa ortan, ikasleak ere erreago ikasiko luke jakin bear duen ura. Ez
pai da guzientzat adigarri gutunaren egileak erakaspene oketaratzeko ibili
dituen bide guziak jakitea, ez dugulako geuren eskuko bear den argia
alako bideetan barna ibiltzeko.

Sendakintzako liburu andieri beldur diotet; alde astirik ez eken ira-
kurtzeko, eta alde gogorik ez astia galtzeko. Gutun andi orietarik bakan
baizik ez dut erosten.

Ondorio onik ez bilatzekotan ezta zeren astia galdu eta dirua xautu.

Eun edo berreun bat orrialde irakurri eta aren mamitik gelditzen
zaiguna bospasei itzetan errana.

Madridko irakasleak ziona egi osoa ezpada, badu egiarekin zerbeit
ikusteko. Ni ere ortan nago: liburu batzuek zozotzenago gaituztela. Orga-
tik, idaztera baño leen, baten baitan dago ongi ikusteko ba ote dakien
zerbeit gutunetan emateko balio duenik.

Adinbateratuez geroz, urte askoz lan batean ari dena, baditeke urtee-
ri esker gai izatea, ikasi duen ura eta bertzeentzat on daitekena gutunetan
emateko.

Gauza ona ez dugu guziek izari beraz negurtzen; batzuentzat andi
dena, bertze batzuentzat tipia. Baña gauza guzietan bada negurri bat, eta
negurri ori zenbaterañoa den jakiteko, gizon adineko baten argitasuna
baño bide oberik ez dago. Jakiña: gizon adineko ikasia, ikasi gabe ez da
iñor jakintsun eta.



Jakintsun izatea ori da: gauzak diren bezala ikustea, ez andiago ez tipiago, ez diren baño aztunago edo diren baño arinago; ortan dago gizonaren jakinduri guzia.

Liburuak bai, baño mamitsuak, zerbeit on egiteko bide erakusten digutenetarik.

Bertze gisaz, badira gutun onik; egilea baitarik, bere burutik ateariak irudipenetan edo ametsetan emanak, ametsak ederrago eta liburuak arabera.

Bertze batzu ere, irri eginazteko edo apainki emanak atseña artzeko ek irakurtzean, edo gogoia asetzeko, onak daitezke.

Gauza ederren egiteko bideak erakusteko, izkuntza ederrean emanak: orietan ere badire liburu onak.

Orgatik, euskaldunek geienik nai giñukena eta bear duguna da *liburu onaren eguna*. Liburu guti, baño ek onak eta beti eketan bazkatzeko beñere aspertu gabe.

Larreko

NESKATXA GALDU BATEN ERIOTZA

Baiki, ez direla gai guztiak berdin onak, euskar-lan baten gaitako.

Eztabaian luze egona naiz, agertuko ote nuen; baño euskalduna ote zen, ni bezala, uste dutalako; barkatu irakurle maite; nai datzut nik dakitan berri its baten jakintsun egin.

Illabete bat doi-doia egin du gaxotegiratu zutela neskatxa gazte-gazte bat, eri-andi (grave).

Eraman zutenetarik norbaitek eman bide zuen aren berri zenbeit.

Gaxoa konorturik gabe; itzik gabe zagolako ezin zuen bere burua-berri eman.

Emagalduetan eta lizunkerietan biltzen diren gaitzik tzarrenak joa zagolako, ortarako dagon gela berezi batean sartu zuten neskatxa gaxoa.

Eraman zuenak eman bide zituen neskatxaren izen-abizenak, emezortzi urte zituela eta Iruñeko auzo bateko etxe batean zagola, beste neskatxa gazte batzuekin; eri-andi ikusirik, arenganatutzeko baño arenganik igesi juateko obeki zagolako, etzuen iñor begira zezonik eta... gaxotegira.

Abizenez euzkotarra, izkuntzaz ez dakit, euskalduna ez ote? soñez lerdan-ederra, aurpegi polita. Itsuski eri eta eri-andi konorturik gabe zagolakoz arenganik ezin ginuen itzik ere ikasi, ez nongo zen, ez zer gisaz zagon Iruñen, deusik ezin yakin.

Berak bere buruaren berri ezin eman eta iñor ez aren berri emalle. Zinez, aldi txarra eta garai estua, neskatxa doakabe arentzat!

Eritasunak osotara beretu zuen eta ura baitan etzen erraik eta ez larru gunerik, aren gaitza zikina nabarmentzen etzuenik.

Ezin zagoken geldirik, oatzetik bere burua botatzen zuelako eri zainek lotu bear izaten zuten. Neskatxa doakabea, orren gazterik eta minbera izanagatik, gaitzak osotara beretu zuen.



Iru egunez irauñ zuen eta beti berdín konorturik gabe, itzik gabe, baldin ezpazen oiú-karratsi-aiots zenbeit. Irugarren eta azken gauan, aren zai egon zen serora edo monjak erraten zidan: «neskatxa gaxoa, zer bioz-mina orren gazterik, orren ederrik eta gogoeta-biozketa bat egiteko biderik gabe! aitama gabe, seniderik gabe, adiskide-aidetik gabe» iñor gabe! gaxotegiko zainek noiz beinka zaintzen zutela baizik. Sendakinek, aren gaitz bakarra, «sifilis» zela zioten; errai guztietarik eta larruko pikor-zauri guztietarik ura salatzen zutela. Aren itxuraz oroitzen naizen aldiro, begietara nigarra eldu zait!

Baño, doakabeak, aita-amik, seniderik, aidetik, ez ote zuen?

Adiskideak bai; baño nolako adiskideak! oakideak, atsegin egiletzat beretzen zutenak etxe barnean eta non nai, Iruña inguruko arresi-zokoe-tan ere! Lizunkerietan biltzen diren gaitzak nola ez bildu, mutil eta gizon zikinduak dabilzan bezala, beregain, kutsu zikina edazten!

Emagalduek, legeak bilduazten ditu etxetara eta sendakinarengana.

Eta gizon galduak?

Eta neskatxa galzale diren emakume galdu tzarrak?

Oieri, nork begia iduki?

Gazte-gazte, garbi begira zait! zeure buruaren jabe egon zait! zile-gigoaren ugalak laxatu ez daizten! Biotza eta gogoa zikindu daitezken lekuetarik urrundu; nai ezpaduzu neskatxa doakabearen azken ordu ek bezala izan, Jainkoaren etsaigoan arrixkatzeko.

Larreko

LARRU GORRIAN

Oraiko aldi untan gazteeri, zergatik ote zeie orren atsegin, orren goxo, iguzkitan larru gorrian egotea?

Iguzki jotzeak badu bere ona, sendakina, iguzkiaz baliatzen da, osasunari bide emanez, «helioterapia» egiñez.

Iguzkia, munduko gauzik oberena ezpada, bizitzarako bearbearrena; ura gabe bizitzarik ez daiteke, ura itzaltzen denean, munduan eziñ daiteke biztanlerik, ez gizaki, ez abere, ez landare, ezta urik ere.

Sendakinek, iguzkia eta iguzkiaren joaldiak neurritz artzen dituzte beste edozein osagaia bezala, izariz, aldia neurtuz, orduak berexiz, ez soin guztia iguzkitan emanez, baizik eta soñaren guneka etsiz edo agertuz.

Jakina, guztientzat bearrezkoa da, iguzkitara edo iguzkiaren izpietara egotea bizitzeko. Iguzkiak, gisa batera edo bestera, jotzen ez duen biziduna, makaltzen da, eritzen da, azkenean iltzen da. Bearrezkoa izanik; iguzki betean, larru gorrian, geldi-geldirik, luzaro gune bera jotzen duela kaltegarri ditek.

Gazte asko ageri da bazterretan, erdi larru gorrian, iguzki minean iduri ta larru erretzen edo igortzen ari direla.

Arrigarri da; uda minean iguzkitan lana dugularik, zein minbera garen eta... osasuna dela aitzaki edo estakuru nonai larru gorrian eta agerian.

Nork daki, ala dabilzan geienak ez ote diren bere etxeko iguzkitik igesi ibiltzen?

Unek erran nai du, iguzkizale orietan, beste asmorik ere badaitekela.

Nik uste, neskatxen oraiko jantziera eskasak eta larru gorrian ego-teak iturri beretik eldu direla eta asmo bakarra dutela.

Badakizue asmo ori zerika daiteken. Zuen aalkea ezpanu, erranen nuen, gizonak, arra denez geroz emea bilatzen du eta emearen emetasuna; noiz nai edo maiz aski eta ez bear denean baizik.



Gizonak, adimena badu, aldian aldikoa zer den jakiteko eta egiteko, aal orri esker zuzen jokatzeko eta gure barneko galde guztieri begi idukitzeko.

Baño, baño, atsegin bai da, goxo bai da galdeari nai duen ura ematea! Gure izatearen galde batzu, sendoak dire, batez ere aragiaren edo emearen aldekoak.

Orren sendoak, non ta jakintsun batzuek diote ez daitezkeela ase gabe utzi, ezinbestekoak direla.

Baño zilegigoari buruz katoliko jakintsu guztiek batean diote, baietz, ori ala dela, baldin ezpadugu beste laguntzarik; baño izatearen gainean indar duenaren laguntza bearrezkoa dela, Jainkoarena, bestenaz ez da garbitasunik, abereak baño mila aldiz okerrago.

Larru gorrian egoteak goxo ura du saltsa; ori du gutiziatzen, ori du maite; naiz geienetan bide erdi gelditurik.

Baldin aragiaren galdea or ezpalitz, arabitarrak Sahara eta unelako lekaro, eremu itzalik gabetan barna dabiltzalarik, iguzkiaren erretzetik begiratzeko, burua eta bizkarra arropen estaltzen duten bezala, guk ere alako zerbeit egin ginezake.

Iguzkiarekin, arabitarrak gu baño zuurrago dire; iguzkitan lanean ari garelarik, negurriak artzen badakigu, baño aragiaren atsegina elburu dugularik, ez da neurtzerik eta ez eperik.

Iguzkiaren joaldiak osasungarrizkoak daitezke sendakinek ematen dituzten baldintzen arabera egiten badugu.

Bestenaz, badaiteke gaitzbide eta bai eriotzebide. Guztiek dakigu nola gaxotzen diren eta gaitz-anditzen iguzkiak jo ta.

San Ferminetako egunetan, gaxotegian, gizon bat ikusi nuen eri-andi (grave).

Konorturik gabe, sukar andi batek beretua.

Begitarte-lepo-kolko-esku-oñak itsuski zakar zaurituak, guneka gorri-zornatuak eta eremuka zakar lodiz estaliak; ots, ain itsuski, norbait gaxotegira biali zuen soraiotua (lepra) zagolako ustean.

Guztia zen; gizon arrotz eskalea; sendirik eta aterberik gabe ibilkari bizi; mozkorturik edo loakartuki, iguzkitan luze egonik, arabitarrek egiten dutena egin gabe, iguzkiak jo ta erre zuela... lepradundu, lepra balu bezala itsustu eta zauritu.

Arta zenbaitzueri esker, gizona sendatu zen; sendatu ezpalitz ere, iñork etzion nigarririk eginen: atzerrian luze egonik, sorterriaren izena eta izana galdurik, or dabila itzala bear denean iguzkiz-iguzki eta erriz-erri.

Larreko



KRISTO ERREGE

«Regnabit a ligno Deus»

Errege igarleak

Oraiko aldi untan, munduko eskualde geienetan erregegoa errekan behera dagolarik eta begirapenik guti baizik ez duelarik... Eliza ama santuak jai berri bati esker, Kristo Erregearen eguna jaitzeko agintzen digu. Arrigarri litzeke baldin ezpalitz bestela. Kristoren Erregegoa!

Kristo Errege ez da beste erregeak bezala. Munduko erregeak Kristo Erregearen etsaiak dire.

Testamento zaharreko kantarietan ala dio: zergatik ailtxatzen dire munduko erregeak eta zergatik elkarganutzen dire Jainkoaren eta Jainko Semearen aitzi?

Kristo Erregeak ez du emen errege itxurarik izan, baldin ezpazen iru Errege Sainduak, ura sortu berrian, billatu zutelarik.

Baldin Errege gisaz gurtu zutelarik.

Baldin Pilatos buruzagiak, kurutzitzatu zutenean, idatziz unela deitu zuelarik.

Kristoren Erregegoa ez da nolanaiko erregetasuna: sortu zenean, bizi zenean eta il zenean. Aren errege-alkia apaltasuna (umiltasuna) izan du zen.

Alki ortarik kurutzeratu zuten eta orduan, garaile, kurutzetik asi zen bere duen erregetasuna adiarazten.

Berpizturik eta ikasleeri urbildurik Jesus mintzatu zitzaizen zioztela: «Eman izan zait niri ahal guzia, zeruan eta lurtean». Math. XXVIII.

Una, nondik gure Erregea agertzen den; baño ez ezpata-banderakin baizik eta gure alderako maitetasunarekin.

Emengo erregeak lurketa dabilta, Jondoni Agustinek dion bezala «zer dire, oroituriko eskualde andiak, ebasgo andiak baizik?»

Kristo gure Jainko Erregeak gure biotzean egin nai du bere bakalderri (reinua): biotzak nai ditu, ez lurrak, ez urrea, baizik eta gogoeta-biozketa onak araberako egintzetan urturik.

Kristo Erregearen bakalderria, lurrez gainekoa da, izatez gainekoa (sobrenatural). Jainkoak berak erakutsia, Eliza Ama Santak gizaki alde guztietara edatua.

Kristoren errege-erria (reino) bizirik dago: Kristoren bizi berbera du. Katolikoek Jaunartzean, Erregea bera aragi-odol bizirik artzen dugu.

Sinestearen arabera, Kristoren bakalderria, denbora berean, lurrean nola zeruan bizi da.

Orgatik, erraten oi da, sinestedunak, oñak lurrean, baño biotza eta gogoa zeruan dituela.

Kristoren bakalderria, denbora berean, garaitua eta garaile; Kristoren bizia bezala, bizi apalaren ondotik, eriotza kurutzean.

Berpizturik munduaren garaile.

Guztien buruan, gu baitako bizia, Kristo Erregearena dela adiarazteko ezagupiderik nabarmenena, sinestea da.

Oraiko aldi untan, Euskalerrian ere, sinestea gutituz, ezabatuz doala argi ageri da; Kristo Erregearen bakalderria, lurretik zerura igesiz bezala.

Azken urte oketan, ikusten dugu, gizonek gero ta gutiago elizara, meza nagusira eta bezperetara.

Igandeak gero ta gutiago igande gisaz, jaitzen ditugula. Gero ta gutiago Jainkoaren deia entzuten dugula.

Euskalerriko erri askotan orañik, Jainkoari esker, igandeak gordetze-ko meza nagusi eta bezperetara eltzeko oitura ederra irauten du.

Jainkoari esker, Jainkoaren deiak entzuten dira, apezgai eta frailegaiak erakusten duten bezala.



Sinestearen ezagupide egiazkoak oriek direlakoak bozik ematen ditut adiarazteko, Kristo Erregearen Erria emen bizi dela; baño kutsua eldu zaigu eta kutsuarekin batio lurretik goragoko sinestea (F. sobrenatural) galtzen dugu.

Eta baldin sinestea galtzen badugu, Kristo Erregearen erresuma ere juanen zaigu.

Gogoeta ongi nola gauden eta zeri buruz goazin, sinestea ezabatzen ari bazaigu.

Larreko

ABERTZALETASUNAZ



«EUSKAL-ESNALEA» BILBON

Guziek dakizue zer gisaz «Euskal-Esnalea»ren buruzagiek goraltzen duten gure mintzaira: orai berriki Bilbon egin dituzten jaiak, leen mailekoak omen.

«Euskal-Esnalea» delako batzaren burupidea euskara utsa zela uste nuen, eta ez nezaken inñolaz asmatu nolaz ziteken burupide bakar ori, baldin ezpada euskal izaite osoaz borobiltzen.

Oraiko jai unen bidez, itzlari baten aotik jakin dugu, «Euskal-Esnalea»ren asmo ederra ez dela euskara bakarrik goratzeko, baita ere gure abenda edo arraza.

Leen onesten baginuen biotz osoaz «Euskal-Esnalea»ren ikurri maigarria, bertze burupide ori jakinez geroz, orren laguntzera beartuak gaude biotzez eta gogoz.

Xaartuxeak gaudenak, betidanik oituak ginen laudorio franko entzuzera gure eleaz, baño zoritxarrez geienetan indar gutiko itzak baizik etziren, iduri ta gure mintzaira etxeko zera xar-xar bat bezala begiratu bear ginuela.

Abertzaletasuna sortuez geroz, unek euskal izaite osoa artuz, borobiltzen eta osatzen ditu «Euskal-Esnalea»ren asmoak, biotzak betetzeko gai eginez.

Ortaratuez geroz, gora «Euskal-Esnalea»!

Larrekoa

GUDUAZ ITZ BAT

Nere maite batek galdetzen dit: alemanak Poloniaz orain egin duena ez ote da gorestek? Gure sail oketan beñere ez gara guduaz mintzo.

Orain berriki dituzte emengo alemanzaleak betiko *kakarakak*, erranez, Rusiaren eskuko zen Poloniako zatiari eman diotela beregaina. Azken berrien arau *beregain* ori alemanak *bere esku* itxura du, Yainkoak daki zer burupidez egin duten; geroak agertuko du.

Badakizue Poloniako zati ori, yaz ekendua ziotela Rusiari alemanek eta Austriak, baña batek eta bertzeak aspalditik badituzte beretuak bertze bi Poloniako zati.

Zergatik ez dituzte iru zati oriek bateratu eta beregain utzi, poloniarak nai duten bezala?

Iadaneko, norbaitek errana du bere baitan, «au ezta alemanzalea» eta egia dio, ni leen leenetik euskeldunen alde yo nuen, bertze arrazoin guziak alde bat utzi ta.

Yakin nueneko mendiz arandiko ainbertze euskeldun, gure aurrideak, gudu tokira yoanak zirela ni eken alde. Ez ote da garaia, goraki aitortzeko, euskeldunak, mendiz arandikoak eta unaindikoak oro bat garela odolez, mintzoez eta oiturez?

Nik segurik, aspalditik orrela begiratzen ditut eta bertze euskeldun guziak bezain maite ditut.

Orgatik, norbaitek galdetzen badit gudu untan noren alde nagon, ni euskeldunen alde.

Nafarra alde untan apeza eta elizatiar geienak Alemaniaren aldekoak ziren, orai aspertuxeak edo dauden.

Alako aldi batez, apez batekin mintzo nintzela apur bat utzi nion alemanen goersten, unen yakinduriez eta gizontasunez, gudari azkarrez eta gudari tresna izigarriez; gero, beren burupidea onesten zuela, alemana iza-



nen zela, gure Aita Sainduari ekendu zizkioten esku ta zuzenak, itzuliko ziona.

Barkatu, adixkidea, erantzun nion, Aita Saindua, aunitzetan eta beroki mintzo da bakearen alde, kiristino guziak otoitzuz Jainkoari bakea galdetzeko.

Baña, Aita Saindua, sortzez italiarra da eta italiarra denez geroz alemanzalea ote da? Nik uste ezetz.

Bertze batzu diote: erresuma latinarrak aspalditik katolikoan etsaigoan biurregi agertu dire, bereziki Francia ta Italia eta Jainkoak daki zenbat kalte egin dioten Eliza gure Amari; ortaz, Jainkoaren manuz Alemania agertu da eskualde eken zigortzeko. Nork erran dezake gudu izigarri untan Jainkoaren bidez dabilena? Oro elkarren zigortzaleak ez ote dire?

Bertze batzuek diote: Españian erreligione gabeak, gorriak eta gorrixtak, Franziaaren alde emanak dire, eta ori ala delarik, zerbeit ikusi bide dute alde ortara yotzeko.

Orrek eztu iñor arritzekorik. Ez ote dire betidanik, emengo gorriak frantses gorrien iduriak izan? Oriekin batean egotea beretik baita. Ortaz landa guduari buruz gorriek izan dezakete burupide bat eta guk bertze bat, naiz biek alde bat emanak.

Emagun, Madridera buruz, tren batean sartu gara; tren artan bertan doazila emengo gorri minenak, oriek ere Madridera; eta gu ez gaizke Madrideratu gorritu gabe, edo bertze aldera yo bear dugu?

Jainkoaz, oraiko gudu beltz untan etzagun ateratu erreligioneko arrazoinik; Jainkoaren baitan guk ere badugu sineste bizi-bizia.

Kaisser-ek maiz mingañan baldin badauka Jainkoaren izena, berak daki zein Jinkoz mintzo den, beldur naiz ez dela gurea berbera.

Larrekoa

ARANA GOIRI'TAR SABIN

Illa unen 26 garrenean betetzen dira amairur urte zendu zela Euskerian izan dugun gizonik argituena, gure Aberriaren esku ta zuzenak borobiltzeko eta bertze aberkide guziera adiarazteko.

Euskeriako gizon omentsuena izan denez keroz, biotzik baldin badugu, beartuak gaude ari ordaintzera zor dioguna.

Ainbertze urtez eta mendez geuren buruak ongi ezagutu gabe egonak gara ustez Espainiako azken xokoa betetzeko gai ez ginela.

Egiaki, betidanik, mintzoaz berexten ginen, erdaldun arrotzak deituz euskeldun etzirenak: baña mintzoa zokoratuez geroz gero ta geiago erdaldunagotu ginen zoritxarrez.

Baña ortaz landa, sorlekuz, oiturez, oroituriaz, lege zaarrez, odolez; inguruetak bertze errialdetarik berexten gaituzten nota guziak bildu zituen Arana Goiri'tar Sabineke eta bateratu ondoan zimendu gisaz, unen gañean ezarri zuen *Nacionalismo vasco* delakoaren alderdia, gure izaite osoa borobiltzen duena eta bere gain artuz ren esku ta zuzenak zaintzeko.

Ortaz zor diogu oroitzapen berexi bat.

Burupide uni buruz lotu bai zen biotz beroz, gogo argiz eragozpenik ezautzen etzuela bere osasuna galdu artio, zor diogu eskarpen bizia eta oroitzapena.

Lan aundi oketan eta etsaiengandik eraman zituen nekeak eta biozminak laburtu zioten biziak oroitzapen berezi bat.

Bere lan guziak Aberriaren bitartez Jainkoari eskeini bai zituen, oroitzapen unen bidez gu ere aren yarraitzaleak izan gaitezen «*Gu Euskadi-arentzat eta Euzkadi Jainkoarentzat*».

Guzien buruan, euskeldun zintzo gisaz, otoiz bero-bero bat Sabinen arimaren alde Jainkoak detzala bere baitan. Ala biz.

Larrekoa



«AUKERA MAUKERA AZKENEAN OKERRA»

Nik berexi bear banuke neure ontasunak zaintzeko gizon bat, aukuratzeko, begiratuko nioke leenik nola zaintzen dituen bereak.

Gero, ea jainkotiaria den, ala denez geroz Jainkoaren legea ongi gordetzen duenak, ongi begiratzen dituelakotz bertze lege onak.

Gero, billatuko niezke norat barreiatzen dituen bere gogo ta biotza, jakina, Jainko lege bidez, bertze burupide onik ez paita.

Emagun, ikertze oken arabera atzeman dugu gizon zintzo ta jakintsuna; bere ondasuneri begira dagon bitartean, Euskeri, Euskelerri edo Euzkadiren zuzenez kezka andietan dago.

Ori dugu berexi bearra, baño, orañik ez da aski, bertze argibide bate-tik jo bear dugu.

Bil gaitezen erriaren ona baizik nai ez dugun gizon batzu eta goa-tzen, berexi dugun gizonaren etxerat.

«Jainkoak dizula egun on, jauna.

Bai ta zueri ere.

Eldu gara zuri erratera, oroitu garela zutaz, eta otoi zure izena gure *diputado-geitzat* eldu den aukeratako.

Barkatu jaunak; ni ez naiz gai ortako eta ortaz landa ere ez naiteke, lan andiak ditut bertzen eskuetan utzi etzazketenak.

Ongi dago, jauna, ori da jakin nai ginuena. Agur ta barkatu».

Ori, gizon ori da guk bear duguna.

Abertzalea baldin bada aski dugu Buru Batzarrera jo eta an adirazi zertako gizon orri oartu garen.

Buru batzarrak esku baidu bere meneko bati bortxarazteko lan bate-
ra, orra or aukera eder baten bidea.

Larrekoa

ZER OTE GARA GU?

Biligarro onak gaude zinez; ez ginakien, ez gogoan pasten ere, Euskeria edo Euskelerria edo Euzkadi bertze errialde guziak baño geiago maite dugulakotz eta gure biotz osoa ortara edatua dugulakotz, eta haren bidez Jainkoaganat eraman nai dugulakotz; badakizue jadanik ezkerraldekoetar bat bota gaituztela? ifernu alderat emanak.

Nonbait, izatez, erri alde bat kiristinoa, baldin bada, hura da Euskelerria.

Nonbait alderdi baten ikurritza burutik buru kiristinoa bada hura da *Jainkoa eta Lege zarra*.

Ongi, ongi; jo ortarik, Jainkoaren naiara gaudenok; berdin zaigu. Oituak gaude entzutera au ta hura; leendanik abertzaleak bereak eta asto beltxarenak adituak dagozi.

Baña, guzien buruan, neri miñ geiago egiten didan arrazoña auxe da.

Iragan egun batez zion jauntxo batek euskaraz. Zer deabru dabilta or Euskelerria gora ta bera, euskera gure mintzoaz goiti ta beiti eta berek euskar itzik ez jakinki ta! Alde bat arrazoñ duzu, baño euskal abertzaletasuna ez dago ortan bakarrik, baditu bertze zaña sendoak ere; ez dago gure izate guzia mintzoan bakarrik; odolean, kondairan, oituretan eta betidanik izan duen esku ta zuzenetan.

Euskaraz ikasiago eta etsaiak tipitutzenago; or adar bat moztu be-
rra. Jo aintzinat euskaraz ikasten!

Larrekoa



MIÑ ARTZEN OTE DUTE?

Gudurat juan naiz eta bertzeri juanaraziz ari ote gara?

Ala diote or eskuñ aldekoek, gu euskeldunak izatez edo oiturez, gudulari edo guduzaleak ote gara?

Ez bat eta ez bertze, Jainkoaren izenean billazkizue non ta nola erra-na dugun *nacionalista vasco* delakoak gudunaietan girela eta gudurat bulka-tu naiz ari garela.

Betidanik, baketzaleak gara, eta Oroituriak erakusten digun aldiro: errialde batek bertzeari indarrez nagusitu duela beñere ez dugu onetsi; nola Fernando, Españako Erregea Naparruaz nausitu zelarik, ziñezko napartarrak, ordukoak eta oraikoe, ez dute onesten.

Gisa beraz, Euzkadiko errialdeak, beren arteko borrokak eta elkar ekentzeak ez ditugu onetsi.

Nolaz nai duzue orai untan bertze gisaz izan gaiten?

Zer? gudu untan mendiz araindiko euskeldun gure anaiak gudu bor-titzian sartuak dagozilakotz, eken alde emanak bagara eta eken laguntzea-gatik egin aalاک eginen ditugula eta zer?

Zer? erresuma tipi batzu leertuak izan direlakotz; nola Belgica, Ser-via, Polonia, etc., etc., eken aldez ematea, zer?

Ori da borrokan sartu naiz ibiltzea?

Katolikoak, eskuñ aldekoak; beti alemanaren alde leer egin artio, gogoak eta biotzak berotuaziz alamanen alde beti borrokan eta orai etxe-rat, etxerat? zuek baño leenago etxean ginauden.

Larrekoa

GOAZEN JAINKOAREN ITZA GOGOZ ADITZERA!

Atzo asiak ditugu gizonentzat misioak, Done Nikolaren elizan. Eus-keldunen oitura zarra bezain ederra da urtero misio bat aditzea, maizenik garizuman; arte edo garai egokiena dalakotz.

Guk, Bilbaon eta Donostian dituzten bezala, naiago genuke euska-raz; baño orañik ortako gibelegi gagozi, elduko ote da ortarako garaia? Jainkoak daki!

Naparrako zinezko semeak baldin bagara eta eldu direnak guk baño zintzoak azitzen baditugu bai; bertzenaz agur betiko euskara maiteari.

Aukera maukeraren lanak eta ondorioak iraganak dira; ez gara ain gaizki gelditu, obekiago ere atera gineizken; baño Jainkoari esker baditu-gu gizon argi bezain zintzoak gure aberriaren zuzen eta eskuak zaitzeko, Jainkoak ala nai duela.

Badakizue, Jainkoa dugula gauza guzien elburu eta guk maite ditu-gunak harenganaten badigute, ditugu ongi maitatzen eta Arengandik aldetzen bagaituzte bide tzarrak ditugu.

Jainkoaren agindua da aberria maitatzeko eta aren bidez Jainkoaga-nat eltzeko, hura baita gu eta gauza guzien azkentza edo elburua.

Orgatik Arana Goiri'tar Sabinen ikurritza ez diteke ukatu buruan buru katolikoa dela

Goazen ba misioetara eta izan gaiten bakotxa gure arteko eta ber-tzen on bidari.

Nacionalista vasco, zinezkoa izateko bear-bearrena dugu giristino zin-tzoak leenik, biozdunak, argituak eta gero euskeldunak.

Bertze gauza anitzekin egin daiteke asots baño ez da aski; azaletik ateratzen diralakotz ez dute zañak barnetik egiten eta nola etorri ala ira-gaten dira biotza guti baizik ukitu gabe.

Larrekoa



NAAS-MAAS

Baiki, orain artio ezti-eztiki ginoazin Euzkadiren esku zuzenak eza-
gutzen aisago gureganatzeko galdu ditugunak eta gure sorterriari dagoz-
kionak.

Baño gudua dela edo aitzindu digute Euzkadiko zati guziak bako-
txaren esku ta lege zarrak eskatzen.

Naparrako nagusiak otz dagozi, naiago dute euskeldunekin baño
Madrid aldeko eta Aragoa aldekoekin kide; orrek adiarazi nai du ez
dutelara bere biotzetan ezagutu nai angotarrengandik berexteko motarik.

Ori ala baldin bada, ez dira Naparraren lege bereziaren aldeko, ez
dira lege zaintzale, eta gutiago oraindik euskeraren zale.

Mota oriek guziak bai dira Naparra, Espānako bertze errialdetarik
berexten dutena, berextaxunik nai eypadute agur lege zarrari eta agur gure
izaiteari.

Naparrako erri geienen erriko gizonak argi ta garbi erran dute egin
aalak egiteko prest dagozila bergureganatzeko ekendu zizkiguten zuzenak.

Berriz Naparrako Etxenagusiko gizonak galdetu diete erri guziera,
baltzeko Iruñarat eken ordezkioak, eldu den asteleneko Batzarrerat.

Nafartarrak ez dira itzeko gizonak eta batzarrean bozik ikusiko ditu-
gu bere itzemanean dagozila tente. Ez ote ala gure erriar prestuak?

Aspalditik, ez dugu olakorik egin eta bein asiez geroz, beroki ta
arraiki bururatuko dugu lana.

Biotz-biotzetik eta naparkide gisaz agurtzen zaituztet batzarkide
guziera.

Irakurle maite, agur.

Larreko

ARDI GALDUA

Menditarra zen gure mutila; erri tipi bateko irakaslearen seme geie-
na. Aitama euskaldunak zituen gure mutilak, baño euskel-itzik etzakien.

Amarr urte zituelarik eraman zuten urbileko iri nagusira, ango ikas-
tetxean, bigarren mallako ikastaroa egiteko asmoz, gero, bere aitaren
andinaia betetzeko gai izanen zela.

Baño etxetik alde-egin bezain laster iluntzen asi zen gure menditarra.

Uriko etxe, jauregi, karrika eta botiga ederrak etzioten atseginik ema-
ten. Uriko edergailu andi-apañak arentzat pitzik etziren.

Oso biotz-mindurik, etxekoen ikusi-miñak gogorki jo zion.

Beti ilun, noiz-nai nigarrez, etzuen gogoeta-biozketa bat baizik:
etxera, etxera!

Aren erriar batekin buruz-buru egin, aski zuen nigarrari emateko.

Uritik ate edo landara, uri-inguru bat egiteko beti iguzki-aldera
buruz. Alde artan zuen, bospasei orduko bidean, mendi ederr batzuen
artean, bere sorterri polita.

Erriko karrika-erdian, alde batetik eliza eta bertzetik bere etxe xuri-
xuri apaña. Ura zuen bere kabia eta an zauden, bozik eta ama maitearen
ondoan, anai tipienak gozoki, eta bera arrotzen artean ilunki. Gizagaizo
mutila!

Untaz landara, ikasgaiak buruz ezin ikasi. Buru argia zuelarik, ezin
zezaken irakasleari eman ikasgaien berri.

Ikastunago eta naastunago. Ameka nigarraldi eginik juaten oi-zen
ikastetxera!

Bertze lagunak bezenbat nai zuen arek ere ikasi eta irakasleari era-
kutsi. Baño arriurik zagon lagunak ikusten zituelarik, beti arin eta beti
jakintsun.



Aren biotz-mina ezitzeko eldu ziren eguberriko jaiak eta etxeko kutun-maiteak ikusteko garaia.

Baño negua ariki, elurra ari zuen; zalburdirik erriraño menditik ezin iragan.

Ezin etxeratu; etxekoen berri ez eldu bidaririk etzabilan-ta!

«Arrotzen arteko eguberri iluna aurtengo ene gabon-jaiak!» zion mutilak. Gauerdiko apari-gozo gabe, gauerdiko meza-soñurik entzun gabe!

Aren pozaren andia, bere aitaren kutun maitea eldu zitzaiolarik!

Etxeko guzien berri eta bai ere egikoen: bei, beorr, auntz, tzerri, ollo eta barridekoen berri ematen zizkion; bai-zakien nolako atsegina emanen zion.

Emeki-emeki udaberria ere eldu zen eta arek beti gogoan bere sorterriko bazter zoragarrien apaindura ederra.

Ikaskuntz-azterketak egin zituen. Ontzat eman zuten eta iru ilabete-ko etxerat. Gure mutilaren arintasuna!

Berriz eta berriz bost urtez biozminak eta atsegin berberakin, bigarren mallako ikastaroa azkendu zuen.

Eta uda arteko arazo bakarra aita semeentzat: orain zeri lotu, zer ikastaro berezi? Gertatzen oi-den bezela, iñork etzakien zertako gai zen gure mutila.

Ikastetxe nagusiago batera eramane zuen bere aitak. Eta aitaren eginala urrikaldu zitzaion semeari. Eta unek aitari lenbailen ordaindu-naiz, berezi zuen sendakintzako ikasketak.

Guzien artean —zion— sendakinek, legezko lanpide erdietsi bezain lasterr, nunai irabazten ari ditezke, eta orgatik berezi zuen sendakingoa.

Berritu zitzaizkon leengo biozmin berberak. Leengoa, uri arrotza bazen, oraikoa berreun aldiz geiago. Unekin batean, etxerat itzultzeko miñak jo zuen gogorrki-eta, ikastaro berri orietan asteko gogorik etzuen.

Oro zalla zitzaion. Etzuela aski buru arazo orietan sarritzeko bere aitari zion.

Beñerez alai; beti ilun. Etxekoen ikusmiñak etzion uzten.

Baña, Jainkoari eskerr, gogoeta bat nagusitu zitzaion: aitama biziki maite zituen eta bere baitan zion: «Ene guraso maiteak lanean leerr ari dire ene ikastaro aren sari andiak irabazteko eta eni bialtzeko. Eta ni nigarrrez! Ez. Ondo dago nigarr egitea, baño ikastera eta ikastera eta ez dut bertze egin-bearrrik».

Ordutik asi zen gure mutila lanean gogotik, eta lagunaren artean leena ezpa-zen, leenearik bat ura zen.

Baño, baño, eta gutika gutika sorrterria eta Euskalerrria aren biotz-barrnetik ezabatzen asi ziren. Ikasiago eta arrotuago. Etxekoak apalegiak zitzaizkon: goiti begira asi zen; menditarra zela etzion iñori esaten. Errria galduz etzen urriki. Aren aitamak nor ziren etzuen erraz aitortzen.

Aren sorrterriska, mendi-gallurren artean zagola, iñori etzion salatzzen edo adierazten. Unela asiez geroz, aren leengo biotz-minak, agurr.

Andinaiak arrturik, euskeldunekin etzuen aidegorik nai. Jainko Jau-nagan zuen sinestea eta begiramendua epeldu zitzaion. Jainko eta Elizaren aginduez azola guti zuen. Itz batean: aberriaganako maitasun-apurra galdu zuen eta Jainkoaren baitakoa galdurren.

* * *

Gure leengo mutila, jakintsun bat eginik sendakintzagoari etsia eman zion eta arro-arro sorrterrira itzuli zen. Eta andik urbil dagon erri-kozkorr bateko sendakingoa eman zioten.

Lanean ari zen, baño beti goiti begira eta orrgatik an zagon bitartean azken mallako dotore-ikastaroa egin zuen.

Baño Jainkoaren bideak ezpai-dira geienetan guk uste dugunak, gure sendakin buru zutari bertze alde batetik jo zion.



Artru zituen lagunen kiristinotasuna alde batetik; bere etzekoena, batez ere gurasoena; anai-arrebena eta aidego urbilena bertzetik ikusi ta, bere baitaratu zen eta Uskurrutz-aldeztalen irakurr gaiak maiz eskuen arrotean zituen. Españarr egunkari, astekari eta ilekari oberenak eldu zitzaizkon, baño guzien arretetik Josu-lagunenak ederrenak zitzaizkon.

Gogoeta bati so zegoen beti. Jainkoa baitan sineste azkarra, zein bidetik erdietsi etzakien. Baño, bere buruaz arrtua bai-zagon, jakinduriz sinestedun nai zuen, eta ez atso xaarren gixaz, itxu-musuka, baizik eta izpidez ongi argitu-eta.

Bere gelako idaztietan, ordu-arte sendakintza gaiak, eta orduz gero Kisto-aldeztaleak garai ziren.

Jainkoak daki zenbat, españerez eta pantzeraz. An Balmes, Keperin Aba, Fajarnes, Mendibe Aba, Urraburu Aba, Pelsch, Camara Aba, La Palma, la Puente, Rodriguez eta eta...

Guzien arretetik biziki bere gogokoak zituen Jondone Augustinenak, Jondone Atanasi eta Josulagunenak, bereziki Aba Iñaki eta aren lenbiziko lagunenak.

Azkenean gauza bat ikasi zuen: jakindurizko bidetik etzoaiela zuzen berak erdietsi nai zuena jotzeko eta bere baitan zion:

—Ai arroputza! Zer uste duk, ikasiz eta ikasiz eginen dukala Jondone Augustinak egin etzuen?

Arek ere ikasiz nai zuen bere amaren sinestera eldu, baño buru on onekoa izan arren, Jainkoaren oñetan apaldu zelarik, orduan erdietsi zuen sineste azkarra.

Baiki, okerr-bidetik artru zuen: geienentzat, jakinduriz-jakinduri ibiltzea, arrisku-bidetik jotzea da. Jainkoa zinez maitatzeko eta Aren naiari so egiteko, bakotzak bere burua deusetzat artru eta biotza Jainkoari eskeñi.

Bertzenaz, gutiak izanen ziren arestiko bidetik ari zirezkenak eta geienak itsu-musuka baizik ez, baldin Jainkoak laguntzen ezpa-ginitu bertze bide epeletik.

Gure sendakin zintzotzak ori bera egin zuen eta oso bertzelatu zen. Bide untarik arrtuez gero etzuen gogoeta bat baizik. Jainkoak deitzen ote zion lekaide egiteko.

Eztabai untan luzegi egonik, gogozko ariketak egitera jua zen Loiolako Josu-lagunen etxera, eta an argi ikusi zuen Jainkoak etziola alde ortarik nai, ezkondurik nai ziola baizik.

Andik lasterr ezkondu zen eta berriz sendakintzara euskelerri andi batera deitu zuten.

Gure leengo mutila orain gizon zintzo eta elizatiarra! Untaz landara, sendakingora lotu zen gogorri. Guziek ura maite zuten eta arek guzietan izari beraikin gurtzen.

Bere lana ongi egin nai bai-zuen eta euskel-itzik ezpai-zakien, lasterr ikasi zuen zerbait eta andik arat geroago eta geiago. Gogoz eta biotzez españatzalea zen. Gastaroan, bere baitan ikusi eta ongi ikasia zuen, euzkotarren izatea edo odola ez dela lateratarrena; oketarik, zerbaitek gure barrnean bereztten digula; baño antzi zitzaion eta ordutik iñork ez bai-zion ortaz aipatu eta bere gogoa bertze arazoetan sartua bai-zuen.

Baño garai artan Arana Goiri'tarren irakaspenak edatzen asiak ziren bazterr guzietara; eta gure jaunari ere eldu zitzaizkon noizpeinka idazti orietarik, nork bialtzen zion etzakiela.

Geroago eta atseginago zitzaizkon aberriari buruz ziotena eta egi andiegiak, zinez, aren biotza ez ukitzeko: euzkotarr-biotza zuen-ta.

Irakurr eta ikasi, azkenean biotza artru zioten aberriko ontasunak eta onbearrak, aberriak beretu zuen osoki, gogoa argitu ziotelarik. Bere baitan eztabai asko izandu zuen alde untara jo baño len: baño garai artan guti edatuak bai-zauden egi andiak; gure gizon zintzoari beldurr-ikara ematen zion, aberriaren alde aurrpegi emateko.

Baño biozketako arazoetan arat-unatik ez da. Aberri bat bakarra, ura sollik maitatu eta bertze errialde guzian berez, azke, beregain, bere-esku.

Gure jaun sendakina ezpai-zen bi itzeko gizona, gogoz eta biotzez eman zen Jaungoikoari eta Aberriari.



Iltzeko orduan izanen ote du urriki, Jainkoa eta Aberria maite dituelakotz bat besteari eskeintzeko; ots, ura Euzkadirentzat eta Euzkadi Jaungoikoarentzat?

Larreko

EUSKARAZ BIRAOIK EZ DAITEKE

«En Pays Basque, les douleurs des femmes sont environnés de silence et les hommes se cachent jalouses pour pleurer».

P. Lhande

Aita Lhande, ziberotarrak, euskeldunak bertze odol batekoak garela adiarazteko ori dio. Ots, lateratarrak ez garela.

Ortan ginauden aspaldi: mendiz araindikoak, frantses odolekoak etzarezte, eta unaindikoak, gu, español odolekoak ere ez.

Gogoa nolako, izkera alako. Euskeldunen gogo-biotzetan dago galde-buru orren korropiloa.

Euskelduna zintzoa da beraz. Zintzotasunak nai du, Jainkoaren izen Saindua begiratuia izan dadin. Berdin nai du Jainkoaren agindueri eta Aren ordezkoei, gizon kristau zintzoa, begirakor izan dadin.

Orgatik, oiturez, ez da errialde bat Euskalerrria baño sineste azkarra-go duenik.

Jainkoa eta Jainkoaren ordezko, buruzagi-apez-lege aginduak eta oitura onak begiratzan dituen gizona, nekez (burutik juana ezpa dago) izanen da biraozale eta irainkoia.

Euzkotarren gogo-biotzetan betidanik ostatu den begiramen andi ori dela bide, ez daiteke euskelduna ao tzarrekoa izan.

Jaingo jaun onak ala egin ginituen eta Berari esker unela irauan bagenetza!

Jaungoikoak detzala!

Aspaldidanik entzunik gaude euskaraz biraoik aurdiki ez diteken.

Aldez ala da eta aldeez ez. Gisa batera euskel izkuntzaren izaitea eta euskeldunena bat da.



Euskeldunen gogoaren arabera egina bai da euskara; unek ez du, arek ez daukana.

Euskeldun zintzoak, beretzat baizik, ixilik gordetzen ditu biotzeko minak. Iñork ez dio ikusten nigarrez dagolarik.

Gisa hortan pairatzen dakien gizona, nolaz biraotzale?

Untaz landa, euskelduna, edana ezpadago edo burutik joana, ez da aserrekorra.

Baiki, gizona denez gero, gogoeta tzarrak, biozketa biurriak bere buru biotzez jabetuko zaizkola alditan. Baño geienetan beretzat dauzka, ez ditu argitaratzen, orgatik aserre bidetik urruntzen da eta gizona aserre ez denean leunki mintzo da.

Bertze gisaz euskara aberatsa eta mami gaitzako izkuntza denez geroz, gogora eldu den guzia, ona eta tzarra, adiarazi diteke eta garbi.

Emagun gizon edana bat, mingañaren jabe ez dena.

Aren aoko gakoaren ualax lazatuak dituena.

Gizon ori gogoz erne bada eta biotzez sendo eta minkor, nor naiekin asarratzen denean, aditu ez daizkenak elduko zaizko eta aotik eraiztu-ko ditu aopaldi tzarrenenak.

Orrek berezten gaitu euskeldunak bertzenanik. Euskeldunak bere baitan daudela maizenik eta bakan baizik ez dituztela eskutik uzten aoko giltzak.

Ortan baidago batbederaren baitako jabegoa.

Irakurle on ori, agur eta barkatu.

Larreko

KANPION, JAKINTSU TA LANGILLE. EUSKARIANA DALA TA

Oraintxe bertan eskutik utzi berri dut Arturo Kanpion jaunaren azken gutuna.

Egia esateko, ez dut buruen-buru irakurtu, baizik eta leenengo gaiak diona eta artarik ez guztia ere.

Euskaldunen iturburuak delako gutunean, aren leengaia argitzeko lekukotasun asko dakarzki *Antropología*, *Etnología* eta *Arqueología*-tik artuak.

Ez dakit zer baño, naiago nuke euskaraz gai baninde euskeldunen *Antropología* gai ortarat zenbeit jakintza argirat emateko.

Euskaldunek ez dugu biziki maite ez irakurtzea ez idaztea; orgatik, Kanpion jaunaren azken gutuna bezelakoak andiegiak, lodiegak dira guretzat. Ez orrialde aundia dutelako bakarrik, baizik eta jakinduriz aberatsegiak diralako. Lan ortarako ni bezelako alperrak direnak gutun laburrak naiago ditugu larriak baño. Laketago zaizkigu erakaspenak itz gutitan ematen dituztenak; gutun lodiak izitzen gaituzte.

Ez gara guztiok berdin gai, egia berexteko; gai denak ori bear liguke egin: berreun jakintsunenganik ikasi duena, berak eman obekienik zaiona eta itz gutxitan. Ez gara guztiok berdin on lekukotasun biltzeko, berdinkaratzeko eta daukaten indarra ezagutzeko.

Lekuko nagusienak berexteko, bidezkoenak onartzeko eta beste guztiak uzteko nik jakin baneza, ori eginen nuen gai askotarik: sinetsi daitekena itz gutxitan eman eta gañerako guztiak ixildu.

Emagun, *Antropometri*-k euskaldunen kasko-ezurraz diona aldizkingi untan eman nai dutala. Ba ote dugun euskaldunek ortarik ezagupide aski beste errialdeenganik berexteko. Abenda berezi bat egiten ote dugu, eta ala bada, buruko ezagupideak zein ta zein dira?

Gai ortarik Arturo Kanpion jaunak eman ditu orrialde asko *Euskariana* bere azken gutunean.



Baldin, argitasunik aski ezpadugu, euskaldunak kasko-ezurra zabal baldin badugu (braquicéfalo), edo luzea dugun, (dolicocéfalo), edo tarte-koa (mesocéfalo) garen.

Baño buruan euskaldunek badugu zerbeit gure-gurea duguna. Aurpegia zabalago dugu gañe-aldetik beko-aldetik baño; beste errialdetan ez omen da orrenbeste nabarmentzen goi ta beko aldeko neurria; gu-baitan matrall-ezurra mearrago ta belarri-gañeko ezurra zabalago.

Beste ezagupide nabarmen bat omen dugu: kasko-ezurrak bizkar-ezurraekin egiten duen okerguna (ángulo) bilduago dugula besteek baño, ots, gizonago abereago baño. Aberen okerguna edatuago da, zuzenago da gizonena baño, eta gizonetan bilduena euskalduna.

Aspalditik ortan ginauden, Telesforo Aranzadi jauna jakintsunak ikasiak eta erakutsiak.

Antropólogo delakoak beste asko zerez mintzo dira buruko ezagupide gisaz emateko, baño esan ditudan oriek biak omen dira ezagupide nabarmenak eta ori baldin badakizue *Antropología* ikasi gabe badakizue nik bezenbat.

Azken *Euskariana* gai ortarik dion geiena irakurturik ortan gelditu naiz. Orain ogei ta bost urte bezela. Orduan nik ere ikasi nai nuen zerbeit besteezanik berexen gaituenik.

Baño orduan, orai bezela, ezagupide argiena, azkarrena, artarik iñork itzik ezin esan dezaken ezagupidea dugu: izkuntza, euskara.

Gutun andiak egiten dituzte jakintsuek jakintsuentzat. Baño ez dakiguna, nondik argitu? Irakurgai laburrak ere bear ginituzke euskaldunek, zerbeit errez ikasteko.

Gai batetik esan duten guzia jakitea ez da erraz euskaldunentzat. Guk naiago genuke Kanpion jaun berak gai ortan eta bestetan egia bezela artu daitekena zer den adiaraziz gutun labur bat egin baligu.

Gizon jakintsun batzuen lana ori bear litzeke euskaldunak argitzeko.

Euskaldunak besteeganik, zerk berexen ditu? Korputzean ezagupiderik aski ezpadugu ere, argi eta garbi berexen gaituzten beste batzuk baditugu: Izkuntza eta Sorlekua.

Buru aundiko gizona Kanpion jauna! Zenbat dakian eta zenbat gaie-tan dan jakintsun! Ortaz landara, langille azkarra; erdi-itsuturik dagolarik, ala ere beti lanean.

Bere oraingo gutun ori zenbat euskaldunek erosi ote dute? Eta erosi dutenatarik zenbatek irakurtu ote dute?

Gutun orren berri xeeki eman dutenik ez dut egunarietan irakurtu. Kanpion jaunak bere azken *Euskariana* argitaldu duela bai, baño xeetasunik eta argitasunik iñon ez. Orgatik, gutun aren erakaspenen berri jakin gabe gelditzen gara.

Larreko



EUSKALDUN ONA... EUSKALDUN

Erreka batek edo urbide baten zabalak, ba ote du orren indar andia?

Euskalerriko seme naizenez geroz, eusko abizenen jabe eta euskalduna; odolaz, jaiotzaz, izkuntzaz euskotarra naizelarik; espainola zer gisaz naiteke?

Oraiko aldi untan arazo untarik, espainolak eta abertzaleak ez goazi bide beretik. Abertzaletasunean guk berexen ditugu, odola edo enda, oroitura, sorlekua, izkuntza eta oiturak. Zer orieri bide emanez, aberri bat borobiltzeko edo osotzeko.

Espainolak aldiz laterriaren (Estado) mugak noraraño eltzen diren, muga barneko guztiak, espainolak; arrotzak aldiz, mugatik aratakoak.

Emagun Nafarroan, erreka batek egiten duela España eta Frantziako muga.

Errekaren alde batekoak espainolak, beste aldekoak frantzesak. Or agerian dago; gizonak beren artean itz-arturik egin dutela mugako marra; berdin egin lezakete pixka bat aratxago, edo pixka bat unatxago.

Eta baldin pixka ortan etxerik edo basorik balitz, eken biztanleak pixka batengatik espainolak edo bertze pixka batengatik frantzesak.

Emen ez dugu odol edo arraza konturik, eta ez sortze leku berezirik.

Espainako gobernuaren eta unen legepean daudenak espainolak, aldiz, Franziakoen menea daudenak, frantzesak.

Baño badaiteke ere, etxe batekoak aldizka espainolak eta aldizka frantzesak.

Ortan ez dago, laterriaren ezagupide bat baizik; ots, laterritasuna (ciudadania) ez besterik.

Leengo egun batean erran ziguten, Aurizko ostalari bat, salatua izan zela gobernadore jaunaren aurrean, nazionalista zelakoz. Aren etxean,

sartu zen norbaitek, izenak emateko xartelan «nacionalidad vasca», «nacionalidad espainolaren» ordeztu ipiñi zuelakoz.

Gobernadore jaunak eta Gobernu mutilek, juez jaunak eta alkatek, zibilek eta poliz-gizonak, Espainako legearen arabera jakin bear luke zer den «nacionalidad» eta zer den «ciudadanía». Leena da gauza bat «izateari» dagokiona, bigarrena edo bestea aldiz, laterriari (Estado) dagokiona.

Eztabai geienak ordik eldu dire, ez ditugulakotz itz bakarr batzuen mamia, gisa beraz ikusten. Gauzak diren bezala behar dire ikusi eta berezi; eta egiaren aldekoa artu.

Nere espainol egitea Espainako Gobernu pean, Espainako lege pean; bizitzea Espainako beste edozeinek bezeinbat eskubide eta egin bide ditutala; ori da laterritasuna edo : baño ortan akabo: or, ez dago nazionalidaderik.

Abertzaletasuna edo nazionalidadea izatetik eldu da; odolatik, endatik, abizenetik, izkuntzetik eta sorlekutik.

Luzaide «Manezaundi» jaunaren sorterrria da; eta an, muga urbileko beste erri askotan bezala, izanen dire etxe batzu, erdizka espainolak eta erdizka frantzesak.

Argiago ikusteko una emen, nik ezagutzen ditudan etxeekin gertatua.

Orai duela berrogei ta amarr urte, nik ezagutu nituen Luzaideko etxe bateko seme alabak.

Muga, ugaldea da, eta ugalde bazter batean daukate etxearen erdia edo lantegia, eta beste erdia, etxe sukalde eta logelak, ugaldeko beste bazterrean; zubi batekin biok bat egiten dutela.

Nik, aurzaroan ezagutu nituenak beren buruak espainoltzat zauzkaten eta emen egin zituzten beren irakastaroak batzuek, eta ezkondu besteak.

Emen daukazu etxe bat, bere lantegiaz espainola, eta beste gisaz frantzes izan dena; eta nik uste espainolak eta frantzesak izanen zirela batean: ots bi errietako erritarrak aldizka.

Baño, orai berrogei bat urte etxe semea ezkondu zen Arnegiko neskatxa batekin, etxe berean bizitzeko.



Baño, senar-emazte gazte oriek izan dituzten seme alaba multzo bat, eta guztiok beren buruak frantzesak dituzte.

Ikastaroak, soldadogoa, apeztu eta guztia Franzian egin zituzten. Beazue; etxe batean aita espainola eta seme alabak frantzesak; nola daiteke ori? Bizitzarako obe bearrez eta ez besterik. Ergo; gure nai menean dagona, nai duguna izateko edo ez izateko, ez dago gure izatean.

Gure izateari dagokionez, guk nai edo nai ez, euzkotarrak: «vascos».

Emen bizi edo an bizi; Españan ala Franzian, gu beti euskotarrak; gu beti euskaldunak, guk nai edo ez. Izateari dagokiona ez daiteke ukatu edo aldaratu; ez dago gure baitan.

Larreko

ARANA'TAR SABIN ZENA

Oraiko aldi untan eta noiznai, ohore eta gorasarre egiten zaiolarik, zinez guti zaizkit, baldin, biotz garbidunetarik zabal-zabalik eta gogo argituen barne-barnetik ez direlarik eldu.

Sabin zenaren gorazteko bideak, euzkotar guztieri argi eta garbi zaizkigu. Ni, gazte-gaztea nintzela, Kampion jauna, eta unen lagun napatarrak zenbaitzuek *Lauburu* leenik, eta *Revista Euskara* gero argitaldu zituzten, Euskalerrriak bere dituen gauzak begiratzeko, eta bere esku zuzenen aldezteko.

Orduan, jaun zintzo eta argitu ek zerabiltzaten euskal-gaiak, eder eta gozo zitzaizkidan; baño ala, oroigarritz bezala, gogoan gordetzeko eta biotzean, ixil-ixillik maitatzeko, gure arbasoen berri minena bezala.

Beste orduko Euskalerrriko izate berezia ikasteko; bere zituenak, obeki ezagutzeko argitzen gitudtela.

Izkuntza, oroituria, oitura eta gure arbasoen bizilekuaren berri ematen zigutela. Eken erakaspak, gisa ortan artzen nituen; baño ez ametsetan ere, izate ura berbera gu baitan berritzeko.

Kampion jaunak egin digun lan andi eder bezain jakinduriz beterik! Euskaldunen gogoak nola dituen argitu, Euskalerrriko oroiturietan biotza eta gogoa bazkatuz! Euskalerrriaren betidanikako izate berezia biziiaziz eta maitaraziz.

Orai eta beti, ohore eta gora Kampion jaunari!

Baño, Sabin zena, etzen erakaspentetan gelditu, euskaldunago agertu zen erakaspak biziareziz, eta Euzkadi, guri ezagutuazteagatik bere bizi eman artio.

Euskalerrriaren alderako eskubidetan gogoa argitu eta indarturik biozketa larrarri batean bazkatu zuen Euskalerrriaren alderako maitetasuna. Maitatze ontan piztu zuen asmo eder bat, eskubide guztiak guretzako eta gu, gure gain izateko.



Euskotar zintzo gisaz, asmo eder uni buruz, borobil-borobila eman zigun *abertzaletasunaren* oñarri, elburu eta bideak, esakera eder batean bildurik: *Euskaldunak Euzkadirentzat* eta *Euzkadi Jainkoarentzat*.

Unelako elburu ederraren ondotik ibiltzea, zein eder den!

Jainkoa baitan bego betiko zorionean. Euskalerrriak, gisa untara, izandu duen gizonik biozdunena eta andiena.

Larreko

MONZON JAUN EUSKALDUNARI

Oroitzen naizenean abertzaletu aitzineko nere eztabaiak, larrialdiak! orduan izan nituen beldurrak! etxeokok, adiskidek igarri zezaten, nolako bidetan barna nenbilan.

Zer usteko zuten, ni ere Bilbaoko leenengo abertzale *Aberri Saltzale* etarik nintzela?

Nolako gorrotoakin mintzo ziren Sabin zenaz, eta aren leenengo ikasletzaz.

Orduko ene larridurak eta ene ikasgaiak!

Leenbizi artan nere gogoa geienik eta gozoenik asetzen zidan bazka edo gaia, euzko abenda berexi baten nabarmenak ziren.

Ortan, nere biotza finkaturik, atsedenean gelditzen zen! baño, oranik, ez gogoa argiturik eta aserik.

Orduan, Sabin zena baitako andia gisa guztietara agertzen zuela... baño, baño, ilun baten pean bezala... ikusten ginuen; zerbeit zakiten guztiak etsai biurriak zituela; ustez ta orduko españazale guztiak eskua bazutela, ura eta aren jarraileak giltzapetzeko; beldurti zar ninzela!

Aberriaren aldeko egia guztia, argi ikusten ez nuelako!

Baño, poliki-poliki oroiturak ikasiz, oiturak eta izatearen nabarmenak berexiz eusko-izatearenak ikasi nituen abertzaletzeko bidetan argiago ibiltzeko.

Oartu nintzenean, nere abizenak, erritar-aurriride guztienak, leku izenak, etxe izenak eta... euskaldunak direla... nere baitan; ni orren ikasia uste, eta nere abizenan izkuntza ez jakitea!

Orduan, bat-batean nere baitan; «izkuntza da gure izatearen nabarpen argiena».



Orduan nere baitan zin eginik, euskaraz ikasi bear nuela, eta ikaste untan, leen bai leen, nagusitu.

Bereala asi nintzen: banabila, eta nik uste egin dutala bide; baño, nere biozminaren andia, ikaste astapenean nagola neure burua ikusirik!

Jainkoari esker, egin dut bide; baño, nere gogoketa guztiak ezin ditut euskar-orkoietan urtu.

Orduan, uste nuen, euskara nolapaiteko izkuntza zela: ni letraduna izanik, bereala nagusituko nitzaiola.

Baño: mami andiko izkuntza dugu! izigarri zuurra, aberatsa bezain apaña.

Irakurle maite ori barkatu; baño gure gogoak euskalduntzen ezpaditugu eta erdar-gogoetan orkoiak, alde bat uzten ezpaditugu, ez dugu euskar-lan onik eginen.

Euskararen aberastasuna, ikasiago ta geiago berexen dutalako, nik uste izkuntza andian bezain ederra dela. Orgatik, Donostiako azken bilkura batean, Monzon jaunak euskaraz iardetsi duelarik, leku artan bertan Gil Robles eta Calvo Sotelo jaunek erran zituztenak; eder izan zait. Zer da bidezkoagorik, gure etsaieri, euskaraz iardestea baño?

Nere zorionik beroena, Monzon jaunari; oraiko aldi untan eta beti, euskaraz egitea da arrazoinik andiena erdaldunari adiarazteko; ni, ez naitzela Calvo Sotelo bezala; ni, euskalduna eta ura... erdalduna.

Orgatik, nere biozmina: ogeita amabortz urtez ez dutala euskaraz geiago ikasi!

Larreko

EUSKARAREN INGURUAN



NABARTZALE-RI

Anitz urtez, Jauna, Jainkoak dizula esker on.

Egiazki diozu, itz zaarrez egiten asi zaren lan orixe dela guziak egin bear dugun leenena.

Nik baño obeki dakizu nolako irakurtzaleak garen euskeldunak, geienak nere gisaz, larrekoak; neri beñipein zallegi zaizkit zure lanak.

Orgatik, Jainkoaz, otoizten datzut, naiago nukela egin bazeneza llaburxago aldian aldiko sailla. Ortaz landa, itza zaarra bertze gisaz adiraziz guziera oarrarazteko.

Lerro aldeak (párrafo) tikixagoak, motzak egin bazinitza, orduan bai aterako zirela *txukunak* eta errexak ni bezalakoentzat.

Geienek, belarrietatik bakarrik ikasia dugu euskara eta ez irakurtuz, eta untara jarri artio bedere, euskeldun geienek aditzen ezpadigute, nori ari gara?

Egiaz, nik ez dezaket zu bezalakoek adiña, ez naizelakotz zu bezain jakintsu: baño oraia untan bearrago izan diteke nik bezala egitea. Etzaizu ala Nabartzale jauna?

Biotz mindu naike, lerro auk gaitz aldetik artzen badizkidazu. Jainkoaren izenean barka nazazu; otoi, jarraiki bedi orai artu duzun lanari, unen bearra nik baño argiago ikusi duzu ta.

Larrekoa

EZTA ORAIKOA

Emen gabilta edo dabilta euskar idazleak nolaz bear ditugun euskarazko lanak egin eta orai irureun urte, eztabai untaz mintzo zen Axular bera, erraiten zuela:

«Bainan zeren komuzki, ala eskiribatzea nola mintzatzea, nori berea iduritzen baitzaika oberenik eta ederrenik; eta ene aur ezpada zurea bezala, ez otoi argatik arbuia eta ez gaitz erran. Unetzaz kontent ezpazara, egizu zuk zeure moldera, eta zure errian usatzen den bezala. Zeren ez naiz ni argatik bekaiztuko, eta ez muturturik gaitzez iarriko. Aitzitik aur da nik nai nukeien gauzetarik bat, ene enseiu apur unek kilika zinitzan eta gutizia, bertze enseiu obeago baten egitera eta ene emengo falten ere erremediatzera».

«Zeren alatan, ez litzateke euskara ain labur, eskas eta ez ertsi, nola munduak uste baitu eta baitaduka dela».

«Orai badirudi euskarak aalke dela, arrotz dela, eztela iend'artean ausart, erregu, bitore eta ez trebe».

«Zeren are bere errikoen artean ere, ezpaitakite batzuek nola eskiriba eta ez nola irakur».

«Baldin egin baliz euskaraz anbat liburu, nola egin baita latinez, frantzesez edo bertze erdaraz eta itzkuntzaz, ek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin ala ezpada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak.

«Ez eta eztitut betiere *Escritura Saindua* eta doctoren erranak ere, itzez itz euskarara biurtzen; zeren euskara eta bertze itzkuntzak different baitira. Ordea ezta ez andik segitzen gaixtoago dela euskara. Aitzitik badirudi ezen bertze itzkuntza eta *lengoaia comun* guztiak, bata bertzearekin naasiak direla, baina euskara bere leenbiziko astean eta garbitasunean dagoela».

Ala ba, egin zagun aalik obekiena, Nafarroa garaiko edo berekoa, gipuzkoarra edo bizkaitarra, bat bederak bere gisara, anzora eta moldera.

Larrekoa



NABARTZALERI

Yainkoak dizula esker on.

Berriz natorkizu nere esker bizienak zuri emaiteko.

Lengoan erran nazkitzun itz batzuez, beldur nintzen gaitz egiteko; baña orai, ikusiz zure jakinduria eta batez ere azken kutun joriak ain txukunki itz zaarrez apainduak, arritua nago. Orai, berriz, ederki aditzen ditut zure lan mamitsuak; ezjakinei ori gertatzen zaiku, gure adimen llaburraz nai ditugu bertzeenak neurtu.

Barkatu, ba, eta Jainkoaz, jarraiki beza lan eder ori; zu bezain langile azkarren bearra badu gure mintzairak.

Goan den egun batez erronkaldar batekin mintzo nintzelarik, aditu nion, *nabalaz* edo *kanibetaz*, mintzo zela, erraiten; ek itz auen orde *aiçfoa* erabiltzen zutela.

Bertze aixkide batek erran zatan, erdaldun langile bati entzuna zuela berriki, Billaban; galdetu ziolarik, zer ari zen, *birlandar* jardetsi omen zion, adirazten ziolarik bigarren aldiz landatzen ari zela.

Una emen bertze bi itz zaar, ezta ala?

Larrekoa

GU GURERA

Batek zerbeit buruan artua duenean, beti ez bada maiz ura bere artara lerratua duzu. Ba eta izanen ere. Orotakoa, diotenaz.

Ala zion *Eskualdunan* Iriarte Urruti, idazle omentsu zenak, gudu ondorioz mintzo zela, eta nik arabera, nere artarakoa, itza zaarrak ditut buruan sartuak eta goazen gurera.

Nabartzal itza, diotenaz nonai entzuna omen da; ala deitzen dute laborari etxetan, laneko abere larriak erabiltzen dituen mutikoari, etxetik landara, landatik etxera.

Gure Nabartzale Jaunak itza zaarrak zaintzen dituen bezala.

Goan den egun batez galde egiten zatan nere adixkide maitenarik batek. Nor da Nabartzale? Zein poliki idazten duen! Ala da, jardetsi nion, euskar itza zaarretan eta bertze gisaz, eken erroak berexteko nausi dugu.

Eta bertze batek gai uni buruz ari ginelarik solasean, erraten dit. «Egia da Nabartzalek diona; nik ezautzen dituztan errietako lur langileak erabiltzen dituzten tresnen eta tresna bakotxaren puska guzien izenak euskaraz deitzen dituzte; ortaz landa, belar, barazekari eta landaren izenak; lur lanak, sasoña edo aroa, ereiteko, jorrazteko, biltzeko, euskerazko izenez deitzen dituzte».

Eta ala ari ginelarik bertze batek baxterretik, gure erri aldetan ez izen oriek bakarrik, txori guzien izenak euskarazkoak dituzte.

Bertze batek, berriz, itz oriek len bailen bildu bearrak dire, laster galduko dire bertzenaz, eztire leku izenak bezala, auetan ezta erraz izenaldatzea; baño gauza eta tresnetan laster sartuko dire beren orde *itzak* erdarazkoak.

Itz oken biltzea egin dezakegu guziek, euskara jakin bearrak ezta; aski da biltzea euskarazko *usaña* duten itz guziak, adiaraziz erdaraz auekin erran nai dutena.

Lana badugu, bearra aundiagoa, eta gogoia?

Larrekoa



EUSKALERRIKO IRAKASLERI ETA OKEN LAGUNTZALERI

Betidanik, orotakoa eta egundainokoa, euskararen etsaia bizkorrena izandu da irakaslea edo maistrua: barkatu jaunak, baña ala da.

Euskalerriko maistruak, edo gaixtoak euskarari buruz edo astaputzak, nai zutelarik euskara zokoetarat baztertu eta bortxaka irakaskintza guziak erdaraz egin euskaraz baizik etzakiten umei.

Zer erokeria edo bertze gisaz!

Euskaraz baizik etzakiten umei euskara debekatu jakin bear duten gauzak ikasteko!

Biotzik ezpadugu gure itzkuntza maitatzeko eta guzien buruan ikas bidetzat artzeko.

Non dute burua jakintsu oriek, beren ikaslei bear den bezala irakasteko?

Non ikusi dute edo nondik entzuna dute, aur tipieri irakasteko bide egokia dela, ezautzen ez duten elez egitea?

Zer astokeria eta zein astaputzak izan garen euskeldunak!

Ortaz landa. Norarañokoa da zuen jakinduria?

Ain aundia balin bada, zer da errezago, zuek dituzuen aur guziei itzkuntza berri bat irakasarazi edo zuek, jakintsuak, ekena ikasi?

Ori bai dela polita! Zuek jakinduriz arrotuak edo anpatuak ezarezte gai euskaraz adirazteko zuen ikaslei: eta nai duzue bospasei urteko aur batek ikasi dezan bat-batean ele berri bat eta unen bidez ikastaroa egin?

Burupen auek etorri zaizkit oroitzuz nola dauden aur euskeldunak zenbeit errietan; ezta arritzeko aur otaz erraitea, zozoak edo basak direla. Ezta ere aur oriek bortxaz goaten direla ikastolara eta geienak beldurrez ikaratuak naiago dutela artzain egotea.

Eta etzazuela uste, irakasleak bakarrik direla iritzi ortakoak ez, eken laguntzaleak dire apez euskeldun aunitz, buruzagi geienak edo guziak; itz batean euskeldun letradun kasik geienak.

Jakingabeak!

Larrekoa



APAL-APALAK, EZ APALEGIAK

Beti orixe izan da euskeldun gizajoen aztura, beren burua deusetzat artu, deus ere eztaigula erran, apal-apalak garela gaur, biar ta beti, ala egon besoak uzkaldurik, egon, solas ederra aiton zarrentzat!

Apaltasuna edo bakotxak bere burua deusetzat idukitzea, gauza ederra, ala baikara ziñez Jainkoari buruz eta Jainkoa baitan bakarrik ongileak eta onirauleak (perseverantes).

Baña, Jainkoaren izenean, ez apalegiak; euskeldun geieneri galda ezazue zertako eta zenbaterañoiko gai diren eta bere bizibideko lanez landa deustako ez omen dira, yardetsiko datzuate. Andre euskaldun bati — letraduna bera— bein galdetu nion:

Zertako ez duzue zuen irakur gaiak euskaraz egiten? Eztakigulakotz. Unela iardetsi zatan eta erran nion:

Aski duzu idatzi mintzo zaren bezala; euskara garbiz ari zara, naiago nuke zuk bezain ongi mintza baneza!

Zuk ez duzuna da euskaraz idazteko oitura, baño, oitura guziak bezala eginez eta eginez jarriko zara.

Euskeldun gizajoak beti diren baño apalago lan bide guziera buruz, apur bat ezpada bakotxak bere bizipidez.

Uste dugun baño geiagoko gai dugu gure barnetan, bertzenaz, nola iraun bertze errialde guziak baño mende geiago?

Beingoan ezautuez keroz gure izaite unen indarra, eta unen bidez dezakeguna edozein gairi buruz, eztugu bertze biderik lanari lotu baizik.

Euskaraz egin eztaikenik ezta. Gizonak dagikedan gogoketa guziak idatzi ditezke. Irakasle batek irakasi dezaken guzia, euskaraz egin ditezke.

Leendanik eginak litezke ikaskuntza oriek ezpagine euskeldunak betidanik soraioak izan.

Baña, gure izaite apalegiaren ondorioak ditugu ordaindu bear orai edozein lanari lotuz.

Beti, beti gure iritzi ustela izan da erdaldunak gu baño abilak eta yakintsuak!

Larrekoa



APEZ EUSKELDUNERI

Barkatu, jaunak, zueri itz batzuen zuzentzeaz.

Napartarra gure astekariaren irakurleak bazarezte ikusiko zinuten azkeneko zenbakian nolaz mintzo zen «Nor edo nor» bere mintzaldi ederrean. Oroituko zarezte idazkai «Yon Done Kiril eta Yon done Metodi» buru zuen artaz.

Naiz sailduki lan egin orduan, Jainkoaganako aimbortze errialden biurgunea ikusiz, geienek arriturik zeudelarik, Erroman bertan ailtxatu zabezten bekaizgozko iaukaria, erranez eliz otoitzeria guzietan erabiltzen zutela eslaboniara, naiz orduko apez-nausiak eta eliztiarrak goretsi zituzten gizon ok eta onetsi elonak.

Betidanik, oitura izan da, Elizako gauzetan erri bakotxari bere eleaz agindu eta irakasi, baño Euskalerrian inon gertatzen ez diren gauzak ikusten ditugu.

Atzo irakurri ginuen Bizkaiko erri batean gertatu zena, erri artako baserritar batek omen zion oraidanik ez ginuela igande jaik Aita Sainduak ekenduak zituelakotz, ala aditu omen zion elizan erriko apezari, eta ala uste erran zuela; naiz berak erdaraz guti baizik etzakiela.

Bertze olako aldi batez, elizako atean bi gizonekin nindagolarik, meza nagusiko mintzaldia entzuteko atera urbidurik, euskaraz ari zen, baño, Jinko maitea, zer euskara! apur batean artu nition bospasei itz eta nerekin zeuden gizonen galdetu naberean ea zer aditzen zuten itz aietaz eta etzakiten zer ote nai zuen apezak adirazi; ixil-ixila gelditu ziren, eta gisa beraz gelditu bide ziren eliza barnean zirenetarik geienak.

Argatik, erri euskaldunear erdaraz aritzea gaitz da eta Elizak eztu onesten; erri euskaldunetan euskara mordollaz edo erdi erdaraz aritzea eztago ongi, euskaldun utsentzat erdi per erdi eta erdaldunentzat berdin.

Larrekoa

BAZTANDARRA-RI

Goan den aldian zure idazkiaren ondotik erran nizkitzun itzez, ez bide zinen goibeldu, asarre bidezkoak etziren ta.

Nik bezain ongi dakizu, Baztan alderdi pulit orretan, nolaz ari diren gisa guziz erdaratzen.

Alako aldi batez, orko bordariek daukaten ikastetxe batean, ezpairik gabe (sin dudar) antxe bilduak zauden buruzagiak erabaki zuten erdaraz bear zirela irakaskunzak.

Ikastetxe artan biltzen ziren umeak erdaritzik etzakiten.

Bilkuran, irakaslea ez bertze guziek zioten erdaraz egin bear zirela, eta bordariak baietsi zuten bozik, ustez erdaraz mintzatzen ikasiko zutela eken umeak, orixe baizen eien asmo bizia.

Irakasleak ikusi ondoan ja bat aitzinatu etzitekela, leen ikastarora bakotxari bere eleaz egin bear delakotz, aren iritzia deusetzat bota zuten gañerakoek eta ok etziren gero, nola naiko gizonak.

Euskaldunen artean geienek uste dute euskaraz ez ditekela yakintsun izan, eztaitekela yakindurik irakasi. Betiko astaputzak, euskaldunak!

Buru gogorrekoa bear da gero alako agintza emateko.

Emagun (supongamos) Baztango alkate jaunak, bordari bati nai diola zerbeit adirazi, yakinaraziko ote dio erdaraz? Gauza bera litzeke umeak yakin bear dutena *chinoz* egitea.

Ez gero erran bordariek diotena, «guk nai dugu gure umeak erdaraz mintzatzeko ikasi dezaten». Ori ederki dago, baño ezta bidea; gisa ortan bizpairur urtez eskolaratu eta azkenean zer dakite? erdararik beñipein ez eta eken gogoak argitu dituzte leen ikastaroko ikaskizunez? Ez dut uste.

Aixkide maitea, barkatu, baño Baztanen asko dire beren mintzoa baztertu nai dutenak.



Iragan astean, adixkide beroenatarik batek auxe erran zatan: «Orai duela zenbeit egun, muga ondoko erri koxkor baten geltokian edo *estacion* oartu nintzan; barne artan etziren lau andre, iru yauntzi arrontez, bat aundi gisaz eta gizon gazte, tratulari antzedun bat baizik.

Sartu bezain laster asi nintzaion gazteari galdeka, nola etorria zen, mandoz, eta nola ibilia muga iragaitean, ala galdeka nindagolarik erraten dit: *no entiendo el vascuence*.

Arriturik galdetu nion: nongoa zaitugu beraz? «Elizondokoa», yardetsi zatan, eta orduan nik: zer, baztandarra, euskalduna, eta euskaraz ez egin nai! Ainbertze yakintsun eskualde guzietarik unata etortzen euskaraz ikastera, eta zuk, zure zañetako itzkuntza, zure aiton eta gurasoena, zure deiturarena, zure erriko eta unen bazter guzien izenena, zure eta nere Euskalerriko itzkuntza ukatzen!

Bazterretik begira zagon andreak, aundi gisaz yauntziak erraten du: «ederki olaxe, yauna, nere ohore aundiena euskelduna izaita dut eta guziek zuk orai egin duzuna egin bageneza, bertze gisaz gindezke».

Elizondoko gazte orrek, ote ditu lagunak Baztanen?

Larrekoa

KUTUN IDEKIA

B. tar P. ri

Oraintxe bertan irakurri dut, zure idaztiño *La unificación del euzkera* delakoa, emengo nere adixkidetarik batek gaur arratsaldean emana.

Badakit nere iritziaren begira etzaudela, baño, ala ere, barka dizadazu ausartzen banaiz lerro auk zuri bialtzen.

Nik uste baño obekiago egina duzu lana; unen berri ez nuen *Constancia* egunkari delakoaren *zirikaldiak* baizik.

Zaluiegi edo *tarrapataka* egin diot zure lanari buruen burukoa; orren-gatik eta iñor ez naizelakotz, ixilik egon bearra, emen agertu naiz.

Oso eder zaizkit zure lanaren *ažkentzak* (conclusiones) eta leenbailen egin dezazue guziek *gipuzkoeraz*, bertzenaz xaartuxeak gaudenok lokartuko gara betiko gauz ori ikusi gabe.

Uts bat oartu natzaio. Euzkaraz idazteko oitura Baionatik eldua dugun ezkeroz, uni ez diozu ordaindu zor zaiona. Untaz landa, ikus ezazu 30 urteko *Eskualduna* astekaria, euskaraz egina eta ez ote ongi? ez ote irakurle multsu eder batek onetsia?

Larrekoa



GORA «EUSKELTZALE BAZKUNA»KOAK!

Aspalditik gogapena bat itzul-mitzulka dabilena nere gogoan, adirazi digute oraintxe batza unen bazkideak.

Betidanik uste izan dut, euskarari buruz ez ginezakela aurrerapen aundirik egin, baldin ezpadugu euskel ikastolik.

Gure Euskalerrria il urran ikusita, epe labur baten bizitza baizik ezpadiogu atzemaiten, gure erria ala ikusi, ta gu geldirik, ixilik egoten lotsa gabeko egotea eta biotz gabeko ixiltasuna!

Zorionez badire lanari lotuak, batere aspertu gabe gure izaite osoa borobildu nai dutenak, batean *euskar edestiak* bilduz eta banatuz, bertzean *Eusko Deya* irasiz eta alde guzietara edatuz.

Atzo *Pizkundia*, *Euzko Argitaldaria* euskaraz egiten diren lanak argitaltzeko saria biltzeko.

Orai berriz, oiñ miñ baten bidez deitzen digute euskeldun burasoe-ri, galdetzen gaituztela gure izenak.

Gu guzien izenean Batza unek erdietsi nai du Euskalerrrian ditugun ikastetxengandik ezarri dezaten beren baitan euskel ikastolak, ikasi dezaketzen euskaraz gure umeek, guk ikasi dugun baño obeki.

Izain ote da Euskalerrrian guraso bat asmo au onesten ez duenik?

Bat edo bertze izan diteke, baño biotza bere lekuan duenak beretuko du biotz osoaz asmo eder ori.

Nere zorion agurra eta esker berexi bat koeri.

Larrekoa

ESKUALDUNA-TIK NAPARTARRA-RI

Iruñan aste oroz agertzen da kaseta bat bihotzez gure *Eskualdunaren* idurikoa eta nonbeit han mintzoeraz ere.

Askotan gure gerlarien berriak hedatzen ditu mendiaz bertze aldeko eskualduner eta orhoitzapen minena badauka bethi gudukarientzat.

Hots iruñarra izanagatik hitz dauzuet ez dela doixtarra (alamanen kidekoa).

Aste huntan *Eskualduna*-k zor diozka eskerrik hoberenak, harek *Eskualduna* goretsi duelakotz.

Bilbaon, B. tar P. jaunak agerturik idaztiño bat: *La unificación del euzkera* irakurtua duguna, baina guhauk oraino aiphatzekoa, hartaz solas egitearekin, huna zer dion gure adixkideak:

«Uts bat oartu natzaio. Euzkaraz idazteko oitura Baionatik eldua dugunezkeroz, uni ez diozu ordaindu zor zaiona. Untaz landa, ikus ezazu 30 urteko *Eskualduna* astekaria, euskaraz egina, eta ez ote ongi? Ez ote irakurle multso eder batek onetsia?

»Goresteak hel ditela hogoita hamar urtez *Eskualduna* moldaturik, Jainkoak berrikitan bereganatuak, bakean dauden langile onetaraino.

»Eta zuri, Larrekoa, eskerrik asko».

Ezta zeren; ezta or egia baizik; nik dakitan euskarapurra *Eskualdunari* zor diot eta ura irakurtzen asiez geroz geroago eta maiteago dut.

Yinkoari esker orai duela ogei bat urte, elkar ezautu genuen *Eskualduna* goxoa eta ni, tutik euskaraz ez nakielarik; baño ala ere, nik eztakit aren eztitasun goxoak edo aren mintzaira eta nerea batu bearrak, ordutik dut biziki maite Baionako *Eskualduna*.

Gero azken urte otan, argi-argia ikusi nuenez geroz, betidanik euskara izan bearra Euskalerriko aurrident mintzaira berexia eta bakarra etze-



la neretzat ala, orduan asi nintzaion *Eskualdunari* balakuz eta nere yanari goxoena bezala artuz, zenbaki bat ere uts egin gabe.

Eta zenbat aldiz nere baitan errana ere. Nere pozaren aundia aren egilek bezain ongi mintza baneza!

Barka dizadazue eta Jinkoak lagun dizuela oraiko beltz untan.

Larrekoa

AKELARRE

Nik eztakit, sorgiñak izandu ziren leku edo errietan izain ote denik leku berexi bat Akelarre deitzen zutena, edo izen ori dela sorgin bilgura-rena. Nik ez ditut izen untaz bi leku baizik ezautzen; bat Alkerditik (Urda-zubi) eta Zugarramurdi arte ortan dagon leku arritsu eta larratsua, angotarrak *Akelarre* deitzen dutena. Orobatsu Allitik eta Astiz arte ortan dagon *Akelarre*, leku auxe ere gisa beraz, arritsu eta larratsu.

Etxearen izen bat ere *Arbelarre*, badakit non den. Ortaz landa tori *Eskualduna*-ren azken zenbakian «*Gerlarien berri*»-ez mintzo den «Zerbitzari»-k zer dion: «Akelarrerat nindoan beraz, aspaldiko adixkide bat ikusi naiz».

Aspalditik nindagon nere baitan izen orren iturburua edo etorkia etzitekela *akerra*-tik eldu, baizik *arri* eta *larretik*, ez ote da ala, euskarazko leku-izen guziak bezala?

Dena den Alliko *Akelarren* ginaudelarik tori zer kondatu zigun allitar adixkide batek.

Sorginak larunbata gauerdian omen zituzten beren bilgurak eta jaiak, arpe-zulo baten inguruetan.

Gauerdiko ezquila yo bezain sarri sorginen buruzagi egiten zuenak arri baten gañean yarría, aren inguruan egiten omen zuten bertze sorginek *ingurutxo* deitzen den dantza, kantu batzuez laguntzen zutela.

Alako aldi batez Uitziko yostun bat, larunbata gabean, Astiztik bere etxera eldu zelarik *Akelarretik* iragaitean oartu zen, ingurutxo dantzan ari zirela sorgiñak eta kantuz erraten *lunes, martes, miércoles tres; jueves, viernes, sábado seis*; eta ori berbera berriz eta berriz, alako batean, *sábado seis* erran ta berak bazterretik, *domingo siete*.

Sorgin zaarrak berriz *deja la giba y vete*. Yostuna ttonttorra, txepaduna zen eta etxera txepik gabe goan zen.



Geroagoko aldi batez gure yostuna eta Lekunberriko oskilea (zapa-taina) elkar ikusi zuten, au ere ttonttorra izaki (aurreko aldetik) eta ber-tzeak irakasi zion nolaz bear zuen tontorra zelaitzeko eta goan omen zen larunbata gauerdia batez *Akelarrera* bere txepa utzi naiz.

Begira egon omen zen eta ingurutxoia asi bezain laster sorginek *sába-do seis* erran ta berak *domingo siete*, baño uni sorginak *toma la giba del sastrre y vete* itzuli omen zen bi ttonttorrez apaindua.

Edesti edo kondaira unen alegiazkoak alde bat utzi ta, oartu natzaio, erdaraz bear zutela sorgin bilguretan; ala ote zen nai nuke yakin, bertze-naz, zertako euskeldunen artean erdarazko itza oik?

Larrekoa

IDAZTIÑO BAT ONGI EGIÑA

Eskarrik asko «Euskeltzale Bazkuna»koeri *Sobre la unificación del Euz-kerá* delako idaztiñoa bialia datazuelakotz.

Berreun aldiz errana daukat ez dutela argirik aski sasi orietan barna ibiltzeko. Iñor ezta arrituko ba orain ere erraten badut, buruen buru ira-kurri ta eder zait idaztiñoa: orain arte gai uni buruz enuen ikusi lan boro-bilduagorik, neri segurik bereganatu naute.

Nik ezpaitut asmo bat baizik euskarari buruz; euskara izan dadin ko izkuntza bakarra, orgatik nere aldetik burupide ortarat yotzeko bide guziak onak zaizkit; baña, yakina, ez ditezke guziak berdinak, eta artu bear dena zein diteken ezta errex yakiteko.

Gu larreko gisaz, aski dugu geiago dakiteneri yarraiki eta untan dago gure lan apala; orain arte deusik ez dugu egin eta emendik aitzinat ere ez gara lan on baten gai izanen; gure lan egiteko sasoña gantxe delakotz.

Untaz landa buru onekoak bagine, nonbait or baño, ordik urrutik gaude.

Ala ere Aberriaren maitetasunak bulkatzen nau euskaraz egitera aal dezakedana eta Jainkoa lagun asmo untan nai dut onirautea.

Larrekoa



IRUGARRENGO PRANTZISKOTARRA ETA JESUSEN BIOTZAREN DEYA

Orain duela lau urte, gutiz gora bera, sortu zen emen Iruñan bertan, kaputxinoen konbentuan *Irugarrego Prantziskotarra* illekari polita, kaputxinoek argitalduz.

Guziek dakizue nolako euskara txukuna eta erraza erabiltzen duen orok aditzeko gisaz.

Frankotan eta bozik, ementxe lekurik bagenu «birlandatuko» gintuzke, gutun yori orien lan mamitsuak; ain onak eta errazak dira.

Oartu natzaio leenbizian baño errazago argitaltzen dutela orain, irakurle geiago ote dute ala edo.

Gure zorion agurra euskeldun Aita kaputxinoeri, bereziki, illekari maite unen zuzentzale den Inza'tar Dámaso Aita on puskari.

Orain berriz, josulaunek edo jesuitek, eldu den urtarrilla edo ilbel-tzatik asi ta, argitalduko omen dute bertze illekari bat euskaraz (bikoa bizkai euskeraz bat eta bertzea Gipuzkoako euskeraz) *Jesusen Biotzaren Deya* (Mensajero del C. de Jesús) «Otoitzekzko Apostolauaren Zabaltzallea». Jainkoak dizutela esker on baten bidez Bere laguntzak etortzeko den illekaria izan dadin euskeldun apostolautar guzien irakurgai berexia, nola den gisa beraz irugarrengotarren artean aistekoa. Ala biz.

Bozez dariela nago, ikusiz bi illekari orien bidez, gure euskara maitearen aurrerapena.

Betidanik, Euskeriako misiolariak asistarrak edo jesuitak izan direla-koz eta euskeldun geienengandik ain begikoak eta begiratuak, ortaz aspalditik, lan orien begira ginauden gure baitan; baten argitaltzea eder-ederki zitzaigun, baño orain bigarren unenak biotza betetzen daku.

Jainkoaz eta euzkaraz, aniz urtez.

Illekari oken artzeko eskudun egin diteke.

Irugarrego Prantziskotarra Iruñako kaputxinoen konbentuan, urtebeteko saria 0,50 pezeta.

Jesusen Biotzaren Deya. Admon de «El Mensajero del C. De Jesús».

Bilbao, urtebeteko saria 2 pezeta.



ENE MAITEAK, JO DEZAGUN LEENGO BIDEARI

Eginxeak ginauden euskar lanari, bide zabaletik ibilli arren beaztopaka baizik ez ginoazin, baña ala ere bide egiten ginuen.

Napar alde untan euskar gutun egileak ez dira aniztu, nago ez ote garen tipitu.

Zinez ala gara; aitzaki guti aski dugu alde bat uzteko artua dugun lana, baño ura neketsua delarik bi aldiz.

Emen gabilzenentzat segurik, zein guti aski dugun euzkaraz ez aritzeko.

Nik ez dut gauza andik bear lanari uko egiteko. Batzutan euskar irakurgai onak irakurtzen baditut, oraikoak edo leenagokoak, ori aski dut nere baitan errateko: oriek, oriek dituk lan onak, txukunak bezain ederrak, euskar gutun egile oken aldean zer ari aiz i?

Baño, ori alferkeriaren itzak dira.

Itzkuntza guzietan gauza berbera gertatzen zeie; ele bakotxaren idazleak ez dira oro gorenengo mallakoak, gutienak dira goitiko ortzetara jautzi egiten dutenak, geienak bekoetan darabiltza.

Gisa beraz guk ere, pekoetako malletan gelditu bearko; ek ongi zelaitzen baditugu, ondotik eldu direnak lasterrago iraganen dituzte eta erre-xago omen andituko.

Baldin omenik ezpadigute emanen, lotu gaitezen lanari; omenari begira ezpada, gure biotzaren taupakadak iardetsiz.

Egiazko abertzalen biotza ari da beti oiuka «euskaraz, euskaraz», eta nik baño obeki dakizue, abertzaletasunaren arabera ezpa gara euskeldunak anditzen, ez ditugu gure Aberriaren zimenduak ongi finkatuko.

Eta ni betiko arira; ez da aski goraka ibiltzea, ez da aski diputadoak autestea; ori ongi dago, ederki zait baño, nabarmen oriekin batean baldin

nabari ezpa dira euskarari zor diogun atxikimendu ta maitetasuna, alferrik gabiltza.

Ala bada, asi gaitezen; eta jo zagun leengo bideari, jo ta jo; euzkaraz irakurri eta euskaraz idatzi; ori gure eskuko dugu; mintza aal ditekena bi bide egokienak bere esku.

Adixkide maiteak, barkatu eta Jainkoa baitan agindu.

Larrekoa



IÑOIZ EZ BAÑO NOIZPAIT OBE

Atzo gaztigatu zidaten auxe; biar ikus zazu *Pensamiento Navarro* delako egunkaria.

Nere baitan, zer ote da?

Gaur goizean ene semetxo batek, bere baitarik erosi du delakoaren gaurko orria eta eman dit, erraten zidalarik «lehen mintzaldia euskara dakar».

Ene baitan, ordu zen, erranik, ikusi ta arront arriturik gelditu naiz «Lepazar» haren egileak agertu dituen asmoak irakurtu ta.

Euskel irakurgaia berriz, bitxi da ta txukunki egina dago, ezaun da haren egilea ez dela zinez, pikaren azken umea.

Ene zorion beroenak zuri «Lepazar» eta eusker lanari bulkatu dizuteneri: gisa beraz *Pensamiento Navarro* egunkariaren zuzendariari, zure asmoak onetsi dituztelakotz.

Egunkari eken irakurle askok onbidetzat artzen badizute, «Lepazar» lan onik asko egin dezakezue euskeraren alde; euskeldunen artean adixkide asko dituzue eta euskar lanetan nagusi ditazkenak ere bai, baño, baño, ez dakit lagunduko ote dizuten.

Dena den zu bedere «Lepazar» arrai bezain txukunki asia eman diozu lanari eta orrengatik or doakizu ene zorion xamurra, emen gelditzen naizelarik zure eta zure adixkiden euskar lanak irakurtzeko naikeriaz.

Orain gu napartarrak, zinezkoak bagara segurik gero ta geiago euskaraz ari bearko; irakurtu, idatzi eta euskeldunen artean beti euskaraz ari bearko; dakienak obeki ikasteko eta ez dakienak lenbailen ikasteko; bertzenaz, bertzenaz..., tirrit.

Larrekoa

EUSKEL IKASTAROKO BILKURA

Ta zu ez berotu Oñatirat joateko! Ala erraten zatan ene adixkide on batek... Baña nik ez diot erantzunik eman ta orain emendik jardetsi gogo diot.

Baiki, Oñatin nago gogoz ta biotzez eta nik uste antxe aurkitzen direla gisa beraz gure gogokide guziak; batzu arat jota eta bertze batzu bakotxa bere etxean geldituta.

Zinez etxean gelditu ta bilkurik ez daiteke Oñatin. Ala da, baño *Euskel-Ikastaroko* gai dena an dago eta eken lanak agertuko ta argituko dituzte eta ikusi ta ikasi detzazkegu bertzek.

Ortaz landa, bilkura oketan lan egiteko ez da egoki ozte gaitza bilteza; gizon langileak lan egiteko ez dute ikusle edo entzulerik bear. Orain guk ikasteko eta gure biotzak beroazteko berotuak dagozinekin ez da bertze bide egokiagorik, Oñatira jo eta antxe entzun, aditu berotuak eta ikasiak daudenen itzak eta egintzak eta ekiñ batean euskal-gauzak goratu.

Baño, ni ene larren artetik urrunduez geroz xoratzen naiz, ez naiz deustako; ez dut gogorik ezertarako; ta larrerat biurtzeko orduaren begira nago eta ala egoteko, kopet illuntzeko zertako etxetik igitu?

Eta adin bateratuez geroz, ez du batek nola nai uzten oitura zaarrak; bat jarria badago, gisa batera, zoazi zaartu ondoan, aldairatan?

Larreko



NERE POZAREN AUNDIA!

Zartzale naiz ta

Zer dela bide ba?

Adi zazu: ene adixkideterik batek eman dit euskar-gutun xar-xar bat erraten zidala. Ikus zazu emen erdaraz eta euskarazko «Kristioren dotriña» xaarra; orain duela irureun urte egina. Ez bide duzu olako gutun xaarririk irakurri?

Eskerrik asko, gutuna artu niolarik, adixkideari erran ta asi nintzaion gutun azal ximurtu ta aspilduari, alde guzietarik begira, gaixo gutun xaarra! erdi larrutua eta adinak oritua edo sukalde xokoan ekeztatua. Jainkoak daki, ainbat gertakarien lekuko izandu den idaztiño xaarra!

Aren adiña, aren egilea eta sorterrria jakin naiez ideki eta edatu nition orriak eta orduan ene pozaren aundia: Nafarroko erri geienak euskeldunak zirelarik egina, 1626garren urtean, eta Utergako abadea Juan de Beriain-ek egina.

Mintzaldi buruan «Irakurleari» dio erdaraz: «Lo segundo escribo en bascuence porque no ha habido nación en todo el mundo, que no se hayapreciado de la lengua natural de su patria, y de enseñarla en las escuelas a leer y escribir.»

Geroxago dio «...y según consta del admirable principio y misterio de la capilla santa de San Miguel de Excelsi, y se refiere de un compendio sacado de sus archivos y escrituras y Autores graves. Tubal Hijo de Japhet, que fué hijo tercero del justo y perfecto Noé, habló y enseñó en este Reyno la lengua de Bascuence y después acá hasta el día de hoy se ha conservado en la muy noble ciudad de Pamplona y en toda la tierra Bascongada».

Orain, zuek ikusteko nolako izkeraz dagon egina, emagun zatitxobat.

«G. Cer escacendioçu erratenduçuncan gure egunorosco ogia eman draçaguçu egun?»

R. Principalquiro escacendiot arimaren eguia bayta aldareco Sacramentua, ceñec mantenacen baytu arima...

G. Cembat motas vssatçen du Christioak señale onesas?

R. Bi motas.

G. Ceyn dirade orihec?

R. Yrur gurutçe eguitea escuyeco beaz andias, Lembiçicoa becoquian, Bigarrena agoan, Irurgarrena bularretan minçaçen dela Iaungoycoarequi».

Oraiko aski ta barkatu, irakurle maite.

Larreko



«ARANEDER»AREN MINTZO ERAZ

Ene maitetarik batek erran zidan iragan egun batez:

«apaiz euskeldun batek zion *Napartarrak* dakarren Ebangelioko itz-
kera adigaitza zaiola, ezin duela aditu edo *compreñitu*, ez itza ezezagunak
dakarzkielakotz, baizik eta aren itzkeraren bereziagatik».

Baiki, euskarari buruz, oro ikasle garenez gero, barkatu, irakurle
maite emen erratera noan errazoinenez.

Euskeldun batzu, bere etxekeori eta sorterrikoeri entzunez eta elka-
rri mintzatuz ikasi duten euskara, belarrizulotik sartu zeie edo bide unta-
rik baizik ez dute ikasi.

Oken artean badira asko ederki-txukunki-garbiki mintzo direnak:
irakasle aran ikasleak: mintzatzaile aran entzuleak.

Orgatik ez uste euskeldun oriek gai direnez edo zeinen euskara adi-
tzeko, ez eta ere edozein euskara irakurtzeko eta aditzeko.

Gisa beraz? uste duzue Erroibarko, Artzibarko, Esteribarko,
Larraungo, Baztango edo Ultzamako erdaldun batek, belarritik sartu edo
ikasi duen erdararekin gai den Cervantes edo Fr. Luis de Granada edo Sta.
Teresa de Jesús-en gutunak irakurtzeko eta ongi aditzeko?

Uste nuke, ez euskaldunak direlako erdaldun oriek, baizik eta erda-
ra apur bat baizik ez dakitelakotz: entzunez baizik ikasi dutelakotz bere
errietan eta lagunak erabiltzen duten erdara: eta ez geiago. Erdaldun oriek
gai izateko beartuak dagozi irakurtzera irakurgai onak baño asko irakur-
tzera, *gramática* eta bertze asko gauza ikasi bear dute eta ala ere buru one-
koak ezpadire, beti irakurtzen eta ikasten ari ezpadira, ekendako ere, leen
aipatu ditudan erdarazko gutun ederrak, *greka*.

Eta guk, euskeldunak, gure erriko euskara, entzunez baizik ikasiak
garenak: nai dugu, irakurtu gabe, gutun ederrik beñere aditu gabe, *gramá-
ticarik* ikasi gabe, euskar ikaskintzarik egin gabe.

Nai dugu, edo zeinen idazti, edozein izkeraz egina den idaztiñoa
gure etxekeori euskara balitz bezain ongi aditu edo jakin?

Ori ezin daiteke: iñor ez da ikasia sortzen: itzkuntzetan, entzunez
baizik ikasten ez den itzkuntza, entzuten duen izkera baizik ez du ikasiko.

Baldin ez padu batek, entzunez edo irakurtuz euskeraren mamia eta
erroak bilatzen. Guzien buruan, irakurgai asko ta onak irakurtzen ez due-
nak, bere etxekeori euskara baizik ez dakienak, euskaraz, aski aal daki?

Larreko



NAPARRATIK. NAPARRAKO ESKUARAREN EREMUA GEROAGO ETA TIPITZENAGO

Ugaldeak gutika-gutika urbideko biurgune-bazterrak jaten oi dituen bezala, ala erdarak iretzi ditu eskuararen eremuak.

Zelaiak, ibarrak eta mendiak oro estaliak dagozi erdaraz.

Mendi-galdurrak eta oian zokoak eskuararen iges-leku bilakatu dira.

Eskual eremuaren mugak, atzeka edo gibelka bilduz, egin duen bidea gaitza da; iru mendez bortzetik lau galdu ditu, geiago ezpada.

Nere irizpideko, eskualdun letradunek dugu eskuara baztertu.

Errietako letradunek; apez, irakasle, irakaslea, idazlari, sendakin, barbera, amerikano, ok oro erdaldunduz geroz, eskuararen gaitzes bilakatuak menderen mendez.

Iruetan ogei urte gutienik baditu, Euskalerrian mugazainak ditugula, oken artean garanoik ere ezpai dugu eskualdun denik, ok izandu dira, oianetan eta baserrietan barna, erdara lantu dutenak.

Tratulariek, botiges-bidariek eta alakoek ere egin dute lan.

Eskualdun erdaldunduak; apezak direla, irakasleak, amerikanoak, neskatxa zerbitzuan egonak, ok oro, eskualdun utsak baño ikasiagoak agertzeagatik.

Beren arteko mintzo arrontena edo bakarra erdara dutelakotz izan.

Irakurgai oro erdaraz, idazkaiak berdin, oro erdaraz.

Eskuar gutunik inork ez egiten eta orietarik egiten ez direlarik, irakurtzeko oitura mikorik ere ez.

Erdarazko gutunetan letradunduz geroz, letradunek bere artean erdaraz, eta ez jakinek eken urratseri jarreiki nai edo beren seme-alabei bide ortarik jarreiki nai.

Zinez, nolakoak garen eta nolakoak izanak garen!

Arritzeko ez ote da, eskualdunek eskuara ez maitatzea! Maitatzen ez dena, nola begiratu?

Jainko maitea! Zertan ote dago, guk geonen mintzoa deusez batekin negurtzeko eta xatar xikin bat bezala zokorat botatzeko?

Menderen mende, erdararekin berdinkaratzeko gai izan ez dena, baztertu eta gaitsestu; ori egin dugu eskuararekin.

Irakasle oro erdaldunak eta geienak eskuarari gaitsetsak; okendako ez daiteke eskuaraz jakindurik.

Egin aalak egin dituzte eskuara uxatzeko eta ardi bordetara lekutzeko. Ezin bertzean zuten erabiltzen edo aur tipiei besta egiteko baizik onesten.

Erri eta askotako errixketan letradun bakoitza edo bakarra apez jauna dugu.

Eskualdun xumeekin beti dabilen letraduna apeza da.

Jaun orien gain ez ote dugu obenik?

Bein, erri koxkor bateko erretor jaunak zion, eta kontu unek baditu gero, berrogeita amar bat urte: «elizako mintzaldiak erdaraz, mugazainen-gatik asi nituen, ustez eskualdunek baño bearrago zuten kristau-ikastiaren entzutea».

Baño, ni beldur naiz ez ote zuen arrokeriaz egin; karabinero eta oken kidekoeri adiarazteko erdarazko mintzaldietan trebeago ez ote zen.

Emen ere ageri da betiko iturburua; eskuara, deusik ez; eskualdunak, mugazainak aña ez.

Oraia untan gauza guzien aldairak eta nahasturak lasterrago doazilakotz, baldin aberriaren maitetasunak ezpa gaitu eskuarari buruz beroazten eta ernazten, urte gutien barne Naparrako eskuara agur betiko.



Bide zabalik, burdin biderik, letradunik ez den zokoetara lekutu dugu gure maitea.

Eskuara birlandatzeko lur egokiena abertzaletasuna da. Baldin, gure aberri bakartzat, Euskalerrria, Euskeria, Euzkadi, ez padugu ezagutzen; aberri bakartzat maitatzen ezpa dugu, gogoz eta biotzez, ez dugu, eskuara maitatuko.

Maitatzen ez dena aisa da bazterrerat botatzen.

Erabiltzen ez dugun mintzoa arrotzat daukagu eta arrotzeri ez da errex maitatzen.

Gaitza unen kutsua errausteko ez dakit sendagai bat baizik, aixtian erran dutana.

Eskualdun utsa izaitea; ez frantsesa ez española; eskualdunen aberri bakarra: *Eskual Errria* eta *Eskual Erriko* mintzo bakarra, eskuara.

Gisa hortan ezpadugu elgarri agertzen, eta gure artean etxekoekin, irakurgaietan, idaztietan, orotan eskuara erabiliz, agur betiko.

Larreko

ESKUARA ETA TOKI IZENAK

Toki izenen etorkiari buruz, euskaldun letradunik aspaldidanik ametsetan eta dostetan ari gara.

Guti bat jakin orduko, jakintsun antzera jotzeko aski dugu; ustez ta argiki aditzen zaigula euskaritzen erroak bilatzea.

Gure arbasoek nolaz asmatuak ote zituzten baginaki!

Leen nik ere, uste nuen, arazo untarik artzea gauza erraza zela. Nik ez dakit zergatik, baño zerbeit ikasiago nere burua edo arazoaren bertze alderdi bati oartuago, orain, alako gogoetak zallago zaizkit.

Eskuararen eremu edo bazter zallenetarik bat ura zait.

Toki izen guzien iturriak non dagozin eta arata eltzeko bideak nondik duzkegun baginaki!

Orduan gindezke gai eskuararen aberastasuna negurtzeko eta aren barneko erraictan barna ilunpetan ez ibiltzeko.

Arazo untarik astakerik asko darabilgu eta baldin nai badugu zerbeit onik egin, zuurtziari eman gaitezen.

Ez nuke zuurtziari uko egin nai, baño erratera noana bidezkoa ezpada, aldaratuago ere ibili daiteke.

Nola nai den, barkatu.

Emagun bi toki-izen: *Akelarre*, *Otso-lezea*.

Unelako itzen ausnarrrian egon ta nere baitan: *akerra* eta *otsoaren* itzak bertze orietan badaude, nondik eldu ote dira eta zer ote dute adiarazten?

Leenik, toki izenentzat abere izenak bitxi zitzaidan eta zait. Toki izenek, leku bereartako zerbeitetik artzen dituzte gaiak, baño zerbeit ek lurrarekin bat egiten dutena.



Zelaia edo malda den, ordoki edo mendi; gora edo bera, egi edo buru, gaiña edo bekoa, zokoa edo galdurra; urtsu edo arritsu, lepoa edo miaka, axiarte edo arlepo, arrimalla eta, eta...

Larre edo oiantsu, zara edo soro. Iguzki aldeko edo muspela. Mendi gallurra, mendi buru.

Tokietan, toki arau, berainez edo berez sortzen diren landare mota etarik eldu da tokiaren izena.

Guzien buruan toki-izen bakotzak badauka, inguruko bertze bazter guzienganik toki ura berezteko ezagupidea eta muga.

Tokiek izena artzen duten zerbeit ura ez da igikorra, ez da aldakorra; baizik lurrarekin bat egiten duena, edo bere artan landatua, lekua aldatzen ez dena. Abereak ezpaidira zer orietarik, orgatik ez ditugu toki-izenetan bilatuko.

Ene irizpide *Akelarre* itzak, akerraren usañik ez du.

Una zertako.

Zugarramurdiarrei entzunik nago, tokiari deitzen *Alkelarre*, unen urbil dagon auzoari *Alkerdi*; andik Erratzu aldeko mendi bati *Alkazuri*.

Nik baño obeki dakizue *alkabelarraren* berri; landaren berri asko dakitenek *Dactylis Hispanika* deitzen oi dutena.

Gauzak ala direnez gero *Alkelarre* edo *Akelarre* lekua, *Alkabelarra* garai eldu den larrea dukegu.

Otsolezea itzetik, norbaitek otso aberearen izena ikusi zuen: baño ake-larretik akerra bezain urrun dugu untarik otsoarena. Nere begiz ikusia dut gain gaineko leku *Otsolezea* deitzen diotena, biziki gora, bizkarra.

Otsolezetik urak bi aldetara doazi: iguzki aldekoak Iratira, iparraldekoak berriz Orreagara.

Arripil andi bat, *ilarrizar* gisako arri meta baten ondoan leze zulo bat.

Ango menditarrei entzuna naiz, otsoa arrapatzeko zuloa edo artea, izanen ote zen leen leze ura; baño ene baitan: emendik ez dugu otsoaren berri.

Bizkitartean: *Otsolezea* bezala, itz asko baditugu bazterretan otso aberearekin ikustekorik ez dutenak *Otsondo*, *Otsakar*, *Otsatieta*, *Otsa*, *Otsabide*, *Otsalde*, eta.

Otsa, itz unek adiarazten ote digu, lur eta zerua elkar ukitzen edo ala iduri duen lekua? Ots, erdaraz *l'horizon* deitzen dugun marra?

Baditeke.

Unela dio Aita Etxalar kaputxinoak, toki izenez mintzo delarik, berriki argitaldu duten gutun andi batean.

Jainkoa baitan irakurle on ori, agur.

Larreko



«AXULAR» EUSKEL IDAZLE GEIENA

Ene irakurle maite; barkatu baño aspalditik gogoeta nago, euskeldun letradunek zor andi bat dugula ordaindu bearra, «Axular» euskel-idazle omen andikoari.

Euskaraz ura bezain ederki mintzatu denik ez dugu; ura izandu da euskel-idazletarik nagusiena.

Orgatik, zor diogu eta Jainkoa lagun biurtuko diogu aal dugun aipamen ederrena.

Lau mende urbil ditu, argitarat eman zuela *Guero* gutuna eta gutun utarik argi ikusi daiteke, nolako buru biotzen jabe zen, «Axular» zena.

«Axular»en gutun eder ori ene eskuratu zidatarik; ene atseginarean andia! Nik ez nakien «Axular» nor zen eta gutiago *Guero* ura zer ziteken.

Bilatu nuen eta erosi euskelzalen artean, omen anditan zagolakotz «Axular»en *Guero* ura.

Euskaraz ikasten asi berria orduan, irakurgai oso ederrak zitzaizkidan eta guziak iresten nituen, batere xeatu gabe geienetan.

Baiki, euskeraren alderat itsutuki emana nindagon eta ez nuen ber-tze gogoetarik euskara ongi ikastea baizik.

Asi nintzalarik *Guero* irakurtzen, orduko, euskaraz zerbeit ikasia bainitzen; ura edertasuna! Nere baitan: Nola daiteke euskeraren iturri garbi artan edatekoa orañik? Iturri garbi orren berri ez nakien ta!

Oianetan barna bidegabeturik; lar eta sasien artetik petikora edo gainbera; erreka gora edo bera, zaluiegi ibiltzen oi gara, leen baileen argia ikusiko ote dugun; bidexka edo bide zabal bat atzemanen ote dugun.

Gisa ortan galduak gabiltzala, zelai bat edo bide ezagun bat jotzen dugularik; gure atsedenaren andia eta gozoa!

Alako bat gertatu zitzaidan *Guero* irakurtzen asi nintzalarik.

Ordu artioko eguneroko ene irakurgaiak etziren ez, nolanaikoak, baño ederrak izanikan ere, ez «Axular»enarekin berdinkaratzeko.

Guero au, mamiz aberatsa delarik, azalez umezkoa zitzaidan.

Ordutik aotik ezin utzia nuen *Guero*-*Guero* gutuna eta euskarazko ene ikastaro gozoenak eta bazka goxoenak gutun aren orrietan ditut.

Ene gogorako, ura dut ene irakurgairik ederrena.

Euskeltzale geienak, gutun aren zale dire: gisa beraz mintzo dira «Axular»-ez dutelarik solasbide edo solas gaia.

Orain duela bi urte urbil «Oxobi» jaunak, Oiartzungo euskel-idazleen bilkuran, oi u egin zigun: nolaz eldu den bilkura bear ginuela Saran «Axular»en errian (zugarramurdiarra zen sortzez), ura goratzeko eta guziek ezagutu ginezan, euskal idazleetan, ura nagusiena edo *nabusiena*.

Ori ala denez geroz *Gure Herriaren* buruzagiak, egileak eta irakurleak otoizten ditut biotz guztiz; alik lasterrena, asma dezagun bide bat egokiena, «Axular» andiari dagokion aipamen bat zuzentzeko.

Jainkoa baitan, irakurle maite ori, agur.

Larreko



«OXOBI» APEZ JAUNAREN ALEGIAK

Euskaldunek nor dugun «Oxobi», badakizue; euskara biotzez maite dutenek, apez jaun ori nor den ez dakienik, ez dago.

Jakina, mendiz unaidiko edo onuntzako euskaldunek ez dakizkigula, mendiz aruntzakoen berri guziak.

Baño; «Oxobi» bersolari polita, euskaldun argi bezain biozduna dela, geienik badakigu.

Baño, poliki-poliki, ezagutzak eginen ditugu; bekoz-beko ezpada *Argiari* esker elkarren euskar-lanak trukatu, elkarri agur eginen diogu.

Apez jaun ori, Lapurdiko seme, Milafrangan bizi dena, aspaldidanik euskarari buruz lanez leerra eginik eta egiten ari dena.

Amalau ipui edo alegia politik dakarzki; bertzeek amesturik badire ere (Lafontaine); «Oxobi»k jauntzi ditu euskara garbi ederrez, euskar pipermina dariotela.

«Oxobi» darabilan euskara ain da euskara, non ta bat euskaldun garbia ezpada, neketsu zaioke aren *Alegiak* ondo aditzeko.

Ain euskar lan ederra egin digu, non ta askotan itz bat edo bi aski bai ditu gogoeta borobil-borobilla emateko.

Dasta zazue bat eta bereala guziak iretsiko dituzue, aotik ezin utziak gozatasuna bai dute.

Iduriak ere araberakoak, Garmendia saratarrak eginak bizi bizi eta bitxiak.

«Oxobi» apez jaunak badaki, mendiz unaidiko euskaldunek ere biotzez maite dugula.

Esker on batez bidez, esaten diot, olako bertze idaztiño baten gose garela.

Larreko

SUPAZTER TXOKOAN

Barkatu baño, Barbier apez jaunak beretu nau; supazter txokoratu nau. Nik ez dakit zertan dagon; baño idazle unen idazkera ederr zait: ain mintzoera politaren jabe dugu; ain joskera argi-borobillean ari da eta euskara gozoan; iduri bai du, aren lanetan ez dela euskaldun uts eta garbien izketa baizik aditzen.

Eta ala da egia; euskara ederra darabila Senpereko erretor jaunak.

Gutun ortan eman digu, lau antzerkizun edo komedia; olerki eder bat, eta ogeita bortz ipui politik.

Ni ez naiz gai, alako gutun baten berri emateko; ezpai dakit zuzenki, zertan daukan arek bere indarra ni beretzeko.

Baneki bedere, argiki; zergatik gutuna ederra den eta zer duen neri ain atsegin zaidana!

Baiki; enetzat ez da gauza zallagorik, bertze beti, gutun bat zergatik eder zaidan adiaraztea baño.

Nola nai den dela, zergatik ezpadakit ere, eder zaizkit, non ta ek irakurtu eta, ezabatzen bai zaizkit euskaraz egiteko nituen gogo eta asmo guziak.

Beraz, damu zait orduan; alako gutun eta irakurgai onak izaki bertzeenak eta nik txarragoak ezin eginez, alperrik leer egitea.

Irakurgai bat on zaitalako ezagupidea dut, ene euskar-lanak txartzat artu eta bertzeenak irakurtzeko gogo bizia izatea.

Ala ere, beti bada norbait, andik edo emendik, zurikeriz edo lausenguz, erraten duenik; ene lan bat edo, eder iduritu zaiola.

Ortan ni ere sarepean; beti bat emanago bai da, bere buruaz zerbeit dela entzuteko.



Baño, emagun; nere euskar-lan bat, Barbier jaunaren bertze lan batekin bekaltzea, ez da urbiltzeko ere; uzkur-uzkurra etxera bearako.

Bozik gero, uzkurtze orrek baldin, bertzeen lanak irakurtzeko gogoia, anditzen badigu. Ori bai da bidezkoa eta ez, norberak gaizki edo oker egiteagatik, bertzeenak uzten balitu, porru landatzera jotzeko.

Jainkoak ez gaitu guziak berdin egin: buru onekoak eta gogorrekoak; argiak eta tepelak; batzu bertzeen irakasteko on eta bertzeak entzuteko eta aditzeko doi: batzu jakintsu bertzek beti ikasle.

Batzu beti bide egiten, bertze batzu aldiz, beti leku berean geldi.

Batzu, ikus aala berexten; bertze batzu, beren sudurretik aratago deusik ez ikusten.

Jainkoak egin gaituen bezala, ikusten bagenezki geuren buruak!

Baño, beti gorago beatu bear; ustez ta goian dagon, guk bear dugun ura, lurrean izaki eta.

Ni ere goregi beatu bearrez asi naiz; *Supazter txokoan* bedere geldi baninde, gaur gero bigarren aldiz irakurtua nuke eta orduan badaiteke zueri zerbeit geiago errateko goituko ote nintzen.

Supazter txokoan zer den jakiteko, irakur zazue eta ondoan egonen gara, Jainkoak ala nai duela.

Larreko

EUSKALZAINDIAZ, ITZ BAT

Ene adiskide maite «Zerbitzari», kopeta ilun eta mindurik eldu zitzaizgun *Gure Herriaren* azken zenbakian.

«Euskaltzaindia» bizi den bezala ez du begikoa, ez eta gogokoa ere. Bertze aunitzek, arek bezala uste dute, ez dutela euskarak bearrago duena zainek egiten edo eginazten.

Nik ez dakit bearrago duena zer den; baño, dakitana da, Euskaltzaindiko jaunak jakintsunak eta langile azkarrak direla.

Zer, mendiz araindiko euskaldunak, euskaltzaindi bat egiteko gai direla? Bai seurki alere! Egin lezaketena, unaindikoek egin dutena baño ohea litzekela? Badaiteke. Obeago ez dakit, baño aren lanak goxoago nituzkela? Badaiteke.

Euskaltzain jaun batekin mintzo nintzela orain ez du aspaldi, erran zidan.

Adema jaunaren irakurgaiak *Eskualduna* baitan irakurtzen nituen, bat uts egin gabe eta bai, ori bezalako idazle guti dugu *Euskalerrian*.

Damurik ez daukagula «Euskaltzaindian». Damurik, guretzat ere, ez bai ditugu aren irakurgaiak begiz atzemaiten ez *Gure Herrian* eta ez *Eskualdunan*.

Ni bezalako euskal idazlek, esker ginuke ba, aren irakurgaietan bazka bagenezki gure gogoak!

Bozik bedere, apezpiku jaunaren gutunak Adema jaunak itzulikatua irakurri dezazkegula, diotenez.

Bai, bai. Zerbitzari maite; orrek dion mendiz araindiko euskal idazle guziak biziki begikoak ditugu eta oro omen ederraren jabe direla an ta emen: goreneko mallan dauzkagula, egia.

Baño, bada bertzerik ere: Euskaltzaindiak zerbeit lan egiteko, bizitzeko bear dituenak, nork ematen ditio?



Oro ezpada geiena bedere, iru Diputazioen eskutik artzen omen du.

Ori ala denez geroz «Euskaltzaindiko» (12) amabi alkitik, bederatziz begiratzen ditu iru diputazioen erritarrentzat, eta bertze iruak mendiz araindikoentzat.

Orren itsusi zaio banatze ori?

Zerbitzari, ene adiskide maite; badakizu zueri eta zuen euskar lanen alderako daukaten atximendua.

Zuen euskar lanak, mamitsuak, xamurrak eta euskar usañ andikoak dire eta orgatik gogoz eta biotzez maite ditut.

Aspaldidanik, bazka orietan aala da ene gogoa: eta jakina bazka bere-tan aalazten direnak gozotasun bera duketela biotzetan.

Bein, Enbeita bertsolariak erraten zidan: «niri, egia esateko, Lapurdi aldeko olerkiak eta eresiak biotza xamur xamur jarten daustie».

Nik baditut adiskide euskaldun ikasiak eta gauza bera diote mendiz araindiko irakurgaiak mintzo direnean.

Aspaldidanik, lapurtarrek, bertze euskaldunak erdi lotan zaudenean, idazkera ederrez bide luzeak eginik daudela eta orgatik eken mintzairera eta idazkera bide beretik doazila.

Nik uste, laburdierak daukan gozoa eta euskal usañaz landara, lapurtar idazlek beren euskarlanetan eskualdunago direla.

Argi eta garbi errateko ez dakit zertan dagon, baño eni ala zait.

Guzien buruan, Zerbitzari jauna, euskarari buruz ez ginuke ikusi bear Euskalerrri guzian ez mugarik, ez eta mendirik; oro ordoki, oro zelai, elkarren berri laster ikasteko eta elkar maiz ikusteko eta maitatzeko.

Gaizki erranak barkatu eta Jainkoa baitan biotzez, agur.

Larreko

JOANNES D'ETXEBERRI

Egia den bezala erran bearr banu, aalke gorriturik bearr nuke.

Baño egiak ez du parerik ez eta aalke-rik.

Erranen datzuet ba, egun oketan eta leenengo aldiz irakurri berri naizela, Joannes d'Ettxeberri, Sarako dotorr mirikuak, orain duela berreun eta zenbeit urte idatzi zuen gutuna *Eskuaren hatsapenak*.

Urrkijo jaunari zorr diogu gutun ederr orren gure eskuetan ikustea. Aspalditik, euskarak eta euskaldunak asko eta asko zorr diogu jaun jakintsun uni: euskar-gutun zarren berri, gutiek jaun orrek bezenbat eta orrek bezain arrgi ta garrbi.

Oraiko au ere, oso-osoan ari zorr diogu; berrtzeenaz Zarauzko frantziskanoen konbentuan bearrko zuen, zokotik jaun unek arrgirat ezpala.

Eskuaren hatsapenak ez da gero nolanaiko euskar-lana; gain-gaño-koa baizik, gaiaz mamitsu bezain azalez ederr; euskara garrbi-politean emana.

Ameka aldiz entzunik nago, euskarazko idaztirik ez dugula; leengo euskaldun-letradunak idatzi bearr edo idatzi nai zutena, errdaraz egin zutela.

Ba! Orrduan, orai bezala, euskar-irakurrigai guti aski dugu bai, euskaldunak.

Orrduko gutunak, bakanago agerrturik ere, ez ote ziren oraikoak bezain ederr edo ederrago?

Eta alaere, eskerr guti zuten eta dute gure aldetik: ogei urte urrbil, Urrkijo jaunak arrgitarat eman zuela oraiko au eta nik ez nakien alakorik bazenik ere.

Zerr nautzue geiago? Emen nago ni, eta zenbat ni bezelako!, aalke-rik bearr nuke erran: ez duela ogei urte orañik Axularrekin ezaguntzak



egin nituela eta orrduko adinean berrogei urrte banituela. Ez da aalkegarrri, euskaldun lettradun bat, ni bezalakoa, eta ez jakitea gutun oien berri?

Baño arazo untarik ez nau deusek arritzen. Jarria nago, Euskalerriko gazte zenbeiteri, nik euskaraz galdegitera eta eurek irriz erraten: «no entiendo». Irri egite orrek min asko ematen dit!

Leengo euskaldunek guti baizik etzutela idazten. Eta guti ura norrk irakurtzeko? Ez orrdukoek ez eta oraikoek ere.

Berrtze gisaz gindezke, oraiko eta orrduko euskararen *arrbuiatzaiileak* ikasi baginitu orrduko gutun ederrak, *Euskararen hatsapenak* bezalakoak.

Nik beñepein, biotzez eskerrak biurtzen dizkiot Urrkijo jaunari; ari eskerr, atseginez bete naizelako, gutun ederr orrtan atsedanez.

Gutuna bi zatitan emana da.

Leengoan dakartzki gai politak:

- I Eskuara garrbia da.
- II Eskuara noblea da.
- III Zenbat gisetara dentz eskuara.
- IV Eskuara, guztietan bat da.
- V Zerrtako dentz eskuara.
- VI P. Axularr.
- VII Sarako eskuara.
- VIII Euskaldun eskuararen arrbuiatzaiileak, berak dira arrbuiagarriak.
- IX Eskualerriko gazteriarri.
- X Irakurtzaileari.

Bigarreanean berriz, *Eskualerriari eta euskaldun guztiei eskuarazko hatsapenak latin ikasteko*.

a) Izenen deklinazionez.

b) Berboen konjugazionez.

c) Gramatika-gai batzuek. Azkenik: *Lau urrdiri, gomendiozko gutuna*.

Ene irakurrle maite: gutun ori irakurtzen duzularik, nerekin batio erranen duzu: «Joannes d'Etzeberri, gizon jakintsuna zen, eta aren euskaridazkerak ez dio iñorenari zorrik».

Larreko



EZ DA EGIAREN BELDUR

Euskalduna ez da egiaren beldur. Zer beldur! Egiaren ondoan eta egiarekin batio bizi nai du beti.

Zorionik, euskaldun zintzoa ez da nola nai beldurtuko egiaren eretzean. Nik beñipein, ala uste dut dela egia, eta uste ortan daukat dagola euskalduna ere.

Nik, ala nai nuke gisa guzietara jokatu, ori bai da gizon zintzoen bidea: gauzak diren bezela ikusi eta ezagutuez geroz, obeki bideak berexi.

Orrek ematen bai du indarra bear den elburura jotzeko; arimaren gauzetan gertatzen dena, gerta daiteke ere euskarenetan.

Nik, onerako bidetan bide egiteko, nere barnekoen berri argi eta garbi jakin bear dut. Gauza bera: euskarari buruz bide egiteko, trabak non ta zer diren jakitea bearrezkoa dugula ez daiteke uka.

Traba andiena, nik uste, euskaldunek ez daukatela biotz barnean ernaturik egi auxe: Euskalerrria, oiturak, lurrak eta izkuntzak berexten dutela bertze errialdenganik, eta euskaldunak odolez, oiturez eta izkuntzez ez direla bertze errialdetakoekin berdin.

Nik ez dakit, euskaldunek gure ditugun izakeran zer dugun maitenik, odola ezpada. Odolaren pare bear ginuke euskara maitatu. Ala balitz, gure izkuntza bear bezala maitatzeko ez giñuke bide bat baizik: alde edo moldez euskara erabili. Gero, ura ikasi eta erabili bertze guziak baño geiago eta obeki. Artan egin irakurgai eta idazkai guziak, gero ta ikasiago agertzeko.

Ortarako bearrezkoena, euskaldun letradunek elkarren artean erabiliztenago duten izkuntza izan dadin euskara; bertzeenaz euskararenak egin du.

Euskara eusten laguntzeko, eskolak ongi, idaztiak obeki, irakurgaiak ederto. Baño etxean etxeakoekin eta atean kideko eta lagunekin baldin ari ezpagera, beldurtzeko da alper izan ez daizten bertzeak.

Orgatik deitzen naute nigarti edo gaitz-aldeko (pesimista) euskarari buruz ari naizelarik.

Ez uste gero, nik ez ditudala onartzen eta ederresten euskarari buruz egiten diran lanak eta asmoak.

Baño beldur naiz leen bezela geldi gaitezen. Orgatik etzait aski goraka ta espantuka asteko.

Egia da. Euskaldun guziak batean bildurik ere, lanik aski izanen dugula euskara bizi den lekuetan eusteko. Baña nik diotana baldin egiten ezpada, euskara galdu edo galtzer den errietan ez dugu deusik eginen. Guzien lanak eta guzien soin-buruak bear lirezke Nafarroako sorkaldeko errietan, angotarrak euskaldun biurtzeko. Sorkaldetik iparraldera baditugu orañik Ustarrotz, Sarazaitzu, Aezko, Artzibar, Erroibar. Lan onik egin ezkeru, nork daki?

Erri onetan euskara piztutzeko esaten zigun «Abad de Iturbeltz» jaunak, euskar-egunak, euskar-jaiak eta alako pizgaiak erri orietan bear lirez-kela. «Euskeraren adiskideak» otoizten ditu ortarako.

Alde askotara lan egin bear dugula, jakina. Errialde guztietan bere duten izkuntza galtzer zutelarik eta piztu baldin badute, leenik izandu da letradunek euskaldundu direlaketz.

Lagun arrontetara eta xeetara ez dira gauzak edatzen edo zabaltzen, erabiliz-erakutsiz baizik.

Euskara erabili ta erakutsiaz, bide batez bi mandatu egiten ditugu. Leenik, gu euskaraz ikasiagoak, eta gero laguneri erakutsi ziñezko euskaldunak garela.

Baldin orrela jokatzen ezpadugu, ez da guretzat elbururik eta ez bide egiterik, baizik bide erdian gelditzea, gogoa erori eta asperturik.

Euskaldun letradunen artean pitz bageneza biotzeko gar ori euskaraz aditzeko alde edo moldez, orduan ez ginuke beldurrrik: elduko gara poliki-poliki edo lasterka; elburua joko dugu. Sortuko zaizkigu, jadanik sorturik ezpadaude, euskara edertu, edatu eta goratuko dutenak.



Orduan bai, Euskalerriko zoko guzietan barna edatuko zela euskararen aldeko sukarra, iri andienetarik asita. Orduan etzen, orai bezala, aalke eta arrastaka ibiliko, baizik buruzutik, arro-arro eta aberasturik.

Nai duenak nai duena erran beza, baño ortara jo bearko dugu zerbeit onik egiteko eta nai dugun ura erdiesteko. Orduan, euskaldun buru andiko bezain biotz oneko norbait sort baledi, orduan ginezke bide erditan.

Jainkoak ala naiko al du.

Larreko

IL-BERRIA.

GARRALDA'TAR FEDERIKO JAUNA ETA SARASAITZUKO EUSKARA

Euskal-Esnalearen irakurleak, guztiak ezpadira geienak, oartuak zitezken Garralda'tar jaun unek egiten zituen lan ederren.

Damurik, bakan baizik etzituen ematen aren euskar-lanak, baño egi-
tzen zituenak *Euskal-Esnaleatik* argitaratzen zituen.

Jaun unen ilberriak biozmindu nau. Ez nakien eri zagonik. Leenean uste nuen zendu zena bere aita zela, Garralda'tar Ziriako jauna, au ere euskar-idazlea; baño ageriako unen euskar-lanik bat baizik ez dut ikusi eta ura neri zuzendurik argitaratzeko; baño nik aldi on baten begira egonik, zokoan utzia, ta an dago.

Il dena gizon ona eta zintzoa, langillea, buru argiduna, aberesendekin buru onekoa eta ikasia. Baño ni bea nagon aldetik ikusten badugu zendu dena, oartu gaitezke jaun ori dugula edo ginuela Sarasaitzuko euskar-idazle bakar edo oberena.

Euskaldun garbia, Sarasaitzuko euskara erroitik zakiena eta biotzetik zerabilena ain ederki, nola bere azken-lanean agertu zitzaigun. *Euskal-Esnalearen* irakurleak oroitzen ezpadira, aski dute berriz ikustea 1925ko otsailako zenbakia.

Nik uste ura izan zela aren azken-lana, eta etzen bere burutik ateraia baizik eta prantzesetik euskaratua.

Lan aren gaia *Abelgorriak*, eta oken abenda bereziak orai eta leen; oken jatorrizko leenak oro ematen zituen.

Ikusten baduzue lan ori, oartuko zarezte ederki itzulikatuturik dagola, naiz arren gaia ez delarik errazena euskararat itzulikatzeke.

Jaun unek zerabilen euskara, Sarasaitzuko izkelgiatik zen.



Badakizue Naparroan ditugun izkelgietarik ori eta Erronkarikoa direla berexienak, eta damurik erreka jotzer dutela; Erronkarin azkar doazi erreka-bera.

Erronkarin errixka batean baizik ez da euskaraz itzegiten dutenik; eta erri ortako gazteek ez dakite. Oraitik berrogei bat urteren buruan euskarari agur eginen diote, baño erdaraz.

Sarasaitzun aldiz badire erri batzu, bospasei edo, gazteek ere euskaraz dakitenak eta ari direnak: Yaurta (Jaurrieta), Otsagi, Itzaltzu, Eskarotze, Orontze... Erri oketan bizi da orañik euskara aski gogor.

Nolanai den dela, Garralda'tar Federiko jaun zena ginuen orai artio Sarasaitzuko euskal-idazle ikasiena eta langillena. Ura kendurik, ez dakigu aterako den beste norbait arek bezain ongi egin dezakenik.

Nik uste izanen dala, baño ori ez da aski; bearrezkoa da euskara izan dadin biotzean landaturik, bestenez ez da ernatzen euskar-lanik emateko.

Neri eder zait Sarasaitzuko euskara; geroago eta maiteago ditut ori eta Erronkarikoa, baño bakan baizik ez dezakegu itzegin edo *elekatu*, berak dioten bezela. Guri aditzen edo ulertzen ez digutela eta bereala erdarara doazi...

Gure biozminaren andia! Gutika, gutika, izkelgi oken berri gabe gedituko gera.

Nik dakitala, Erronkarin iñor ez da euskaraz idazten duenik.

Eta Sarasaitzun ez ote da orañik norbait agertuko guri erakusteko bedere eta ango euskararen berri emateko?

Ziñez damutzekoa da, bi ibar aberats oietako jendea argia delarik, euskararen alde lan egin dezakenik ez agertzea! Erronkariar edo sarasaitzuar norbaitek irakurtzen baditu lerro oriek, barkatuko dizkida, baldin nik diotena egia ezpada.

Euskar lan geienak irakurtzen ditut, eta etan ez dut ikusi bertzela esateko biderik; orgatik otoiztu nai nituzke Sarasaitzuko letradunak, asi daiztela ango euskararen alde zerbait lan egiten.

Itz asko darabilazue guk ezagutzen ez ditugunak, eta esakera politikak ere badituzue guri eder zaizkigunak eta gure euskararen sartu nai ginuzkenak. Ortarako argirat eman bear dituzue guk ikasteko, eta ikasi ondoan erabiltzeko.

Azkenik: il denari zor diogu emen egiten dugun aipamena.

Eta zendu denaren aita eta anaieri gure biozminaren agertzea, ekena zerbeit arintzeko.

Jainkoa-baitan bego.

Larreko



ABERTZALE BERRIEN EUSKARA

Orai duela ilabete bat edo, nere maite-maite batek eman zidan irakurtzeko orri larri bat bi aldetarik gauza bera emana esate batera: alde batetik erdaraz *Manifiesto de Acción Nacionalista Vasca*, eta beste aldetik euskaraz *Eusko-Abertzale-Ekintza Batzarren Eritxi-Agiria*.

Guk, euskaldun arrontek jakin nai badugu zer adiarazi nai duten euskarazko esakera unekin, bi bidetarik bat, artu bearko dugu.

Errazena, erdaraz zerbeit baldin badakigu, orriko beste aldera jo, eta an ikusi zer duten erdaraz erraten. Euskaldun utsak bagara, orduan... orria alde batera utzi, eta aldia eldu denean, beste norbaiti galdetu argitzeko.

Gauza bat jakin nai nuke; euskaldunen artean ba ote dire amar, euskarazko lerro alde ori, buruen-buru irakurtu dutenak, eta oken artean zenbat ote diren, aditu dutenak erdarazko aldera beatu gabe.

Nik, aspaldiko oitura daukat; ene eskuetara eldu den irakurgaia, euskaraz egina bada, ez uzteko irakurtu gabe.

Eta ala ere, eldu zaizkit irakurgai batzu ezin ditudala irakurtu, baldin ezpadut eskura euskal-izti baten laguntza.

Orietatik bat da *Eusko-Abertzale-Ekintza Batzaren Eritxi-Agiria*.

Egia esateko; unelako euskara mota berexen badute oberena edo ederrena bearrez; edo beste gisaz, berek, beren artean unelako euskaraz elkar aditzen badute; ez nuke biozmin andirik, baldin gure aldetik bazterzen balire.

Gizona izkuntzak berexen du, gero.

Bein, erri bateko erretor jauna eta ni, ari ginen, *nazjonalista vasco* delako gaiaz eta esan zidan «nik bozik sinesten dut eta onartzen *nacionalistak* dioten gutztia, baño *separatistak*, ez».

Orduan, nik: «barkatu jauna, emagun Iruñako Plaza del Castillo delakoan, Iruñan dauden gudulari guztiok naasik; uzkitzu ordu batez bere

gisa, aske. Gudularien artean ogei euskaldun baldin badire, an aurkituko dituzu xoko batean edo ezkin batean euskaldunak bildurik eta besteen-gandik berexik».

Jauna: zer dio berexetasun ortaz? Ixilik gelditu zen.

Ni beldur; ez ote naizen berexiko, orri untako euskaldunenganik. Ikusteko, emagun leenengo lerro alde:

«EUSKALERRIARI:

Arana Goiri'tar Sabineek sorturiko abertzaletasuna, oraintxe, gure egunetan, aurrerakada izugarria egiten ari da. Abertzaleak, euren ustea aberriaren biotzean ondo loturik eta tinko-tinko ta sendo-sendo iratsita egoala ikusi zutenean, lenengo urteetako berotasun, ta garra arean bere galdu barik, aurrenen abertzaletasunaren bideak edaztu edo zabaltzeko urduritasuna, ta geroago zabaltze orren bear izana nabaitu zuten, ta bide-edazte orrekin, gizon andi aren irakutsi mamintsu ta sakonak nasayago ta erosoago errian sartzeko ordua zala aberriaren erlojuan entzun eben».

Lerroalde auxe arreta edo kontuz irakurtu ta, badakit gutiz gora bera esaten digutena.

Baño, unelako izkuntzara zerbeit oituak gaude, aixtian erran dutenarengatik. Ala ere, lanak ditut gauza den bezala aditzeko.

Euskaldun berri ikasientzat, orri untako euskara, garbi eta erraza bada, ori, nik ez dakit. Dakitana da, ni bezalako euskaldunentzat, izkuntza mota ori, aspergarri dela.

Euskarari buruz, aldi untako galbide bat ez ote da izkuntza ori?

Gogoeta ongi egiñ ondoan: euskaraz ari garenean, erdarak dituen bide berberak erabili bear ote ditugu?

Euskarak noiztiez geroz artu du erdara bat eredu edo jarraibide gisaz?



Euskaldunen gogoetek, itzetan edo itz-urtuetan emoteko, ez dire on erdararen orkoiak edo moldeak: gureak baditugu, eta eketan emoten ezpadi-tugu, gertatuko zaigu, oarkabeen, izkuntza berri bat egiten ari garela.

Euskarak ez dio inori zorrik: bera da nagusi, nai duen ura argi, garbi eta ederki adiarazteko.

Ez da aski esatea, izkelgi berexietan ari garela delako, elkar ez ongi aditzea; irakurgaiaren egilea bizkaieraz eta ni naparreraz ari garelako, ez.

Kirikiño zenaren *Abarrak*, Mogelen, *Peru Abarka* eta alakoak napar euskaldunek errazki aditzen ditugu.

Eta, aldiz Kirikiño zenak, bein baño geiagotan esan zidan; nere irakurgaiak, bizkaitarrek errazki ulertzen edo aditzen zituztela.

Baño, badaiteke, gu euskaldun arrontak garela delako edo guti jakinak ez ditugula eken lanak aditzen: eta orgatik goregi edo barnegitik eldu direlako eta gu ez, alako gogoeten negurtzeko gai.

Badaiteke, bai!

Oker banago ere, itsusi zaizkit!

Larreko

ERRONKARIKO USKARAZ

Erronkariko euskara il urren da, azkenetan dago; ango erritarrek erdaraz diote eta kopeta gora *se ha perdido*, biozminik gabe.

Erronkariar askoekin itz-egiteko aldia izan dutalarik, bati ez (Izabako bat) beste guztieri ezpada geieneri, euskara galtzeakin ikasiago bere buruak agertzen dituztela iduri zeie.

Beti oroituko naiz, Izabako gizon argi bat, euskaraz poliki ari zen; arek agertzen zuen biozmina, baño ez dakit ote zen euskarari buruz nere aburua bereko agertzeagatik; badaiteke orduan nerekin batio ari ere piztu zitzaiola biotzean, euskeraren alderako maitetasuna.

Nola nai den dela, baldin erronkariarren artean laster *uskalzaletasuna* pizten ezpada, emendik ogei ta bortz bat urten buruan ibar eder eta aberrats artako euskerarenak egin du, damurik.

Nafarroako gizagende (Erronkarin *ilagende* = *ganado lanar*) mota larriena an dago. Soinez sendo eta lerdin badire, *buruz argienak* ere an ditugu. Beren itzalak ere badituzte baño gisa batera nafartar nagusienak erronkariarrak ezpadi-tugu, bedere beste nafarreganik non nai eta erraz berexten dira.

Aspaldidanik eta askotan nere baitan egona naiz Bonaparte jakintsuak † orren maite zuen izkelgiak, ez ote zuen eta ez ote du zerbeit besteeri nagusitzen duena?

Dakiguna da baduela zerbeit eta zerbeit besteenganik argi eta garbi berexten duena.

Ura berexten duen guztia ezpada, asko zer eta zeren berri ematen digu Azkuek Erronkariko euskara gaiaz egin digun lan ederrean. (*Particularidades del dialecto roncalés*, R.M. Azkue).

Azkue jakintsuak eta langile azkarrak Erronkarin bertan maiz luze egonik eta, orai berriki an ikasi bildu dituen berri argi eta garbi ematen digu.



Azkue jauna, buruz eta jakinduriz unelako lan baten egiteko gaiena ezpada, bada norbait buruz jakindurik eta oniraupenez euskerari buruzko lanetan.

Euskal erriak eta euskaldunak zor-andietan gaude jaun unekin eta nik emendik biotzezko zorion agurrik beroena zuzendu nai diot.

Bonaparte zenarekin batio eta gero bera bakarrik (nik dakitala) ikasi ta ikasi ari da, euskara horren mami eta usaña biltzen nun nai; eta aren nabarmen berexieneri oartzen.

Idaztia bederatzi zatitan emana da, baño neri atseginago eta jakin *garrienak* zaizkitanak, esakerak, lekukoerak eta iztegia.

Larreko

«MANEZAUNDI» JAUNARI

Orai duela zenbeit illabete, euskar idazkera zela bide, asarre edo samurtu zinetelarik, oartu nintzaion norbaiti, erraten zizula, zure idazkera mordoltzeko edo: *nekaçaria* euskar-itzaoren ordeç, *laboraria* erabiltzen zinuela.

Nik uste dut *laborari* izena euskar-itza dela eta orgatik, lerro oketan barna, argitasun zerbeit egin nai nuke. Leen, nik uste nuen *laborari* aidego edo zerbeit ikusteko bazuela latin *laborare* eta frantzes *laboureur* delakoekin.

Baño gero, nik ikasi dutanaren arabera, euskaldun utsek darabilaten *labore*, ogia edo artopila, adiarazteko bedere, badela; eta laborari, labore egilea dela.

Ni, euskaraz ikasten asi berria nintzanean, etxeko andere batekin eleka nindagola, erran zidan «gaur laboreak ditugu»; zer zion ez nakiela gelditu nintzen.

Baño ondoko solasak argitu ninduten, «labeko lanaldia» egun artan zutela jakin nuelarik.

Orduan nik, nere baitan; itz ori ongi dago: labe (horno), ore (masa), labore (masada).

Ordutik orai artio, gai untarik ez nuen gogoetarik egin.

Orai aldiz, Azkue jaunaren euskar-iztian ikusi dut nola *labore* itzarekin *cosecha* eta *trigo* berexten duen. Ongi dago ori; baño gaur goizean epailaren 28garreneko meza sainduko Ebanjelioa irakurtzen nindagola, «Ara-neder» zenaren gutun ederrean, una zer dion, apostuluak igortzen dituela predikatzer:

«Erran zaroen: eztezazuela deusik eraman bidekotzat; ez zigor, ez zarpa, ez labore, ez diru, eta eztezazuela izan bira aldagarri».

Argi dago emen, *labore* ogia dela.



Laburdin, Benabarran, Zuberon, *laborari* itza erabiltzen dutelarik, ez dabilta nik uste euskar-bidea uts eginik.

Untaz landara, *Laburdi* itzak, ez ote du zerbeit ikusteko *labore* itzarekin?

Laboredi-labordi-laburdi.

Badakizu zure irakurgaiak, eder eta gozo zaizkitala.

Larreko

LARREKO EUSKARAZ IKASTEN

I

Berriki nere maite batek erran dit; zergatik etzinuke euskar-lan bat egin behar, adiarazteko, nola euskaldundu diteken bat; eta zergatik euskaldun berrien artean, euskaldun garbi (jator) gutxi aurkitzen den...

Erantzun nion; barkatu baiño leenik, elkar adi dezagun garbiaz erran nai duguna: leenik euskararen garbitasuna eztago itzetan bakarrik, baizik eta euskera erabiltzeko eran, euskeraren joskeran, osakeren borobiltzean, aditzaren (berboaren) bereixten eta behar den eran ematen.

Demagun: euskaldun-berri batekin buruz buru egiten eta galdetu diotala; —mezara?— harek berehala, —ez, entzun dut. Galde bera egin diot, bordari bateri eta hunek, —ez, entzunik nago. —Zein garbiago?— Bordariarena ez ote?

Euskarak, izkuntza guztiek bezala, bere dituen bideak eta orkoiak baditu; bide horiek, euskaldun garbien artean dagozi; idazti zaharretan ere bai. Oraiko aldi huntan, euskaldun garbi geienak, zaharren artean dagozi, baserriarren eta bordarien artean.

Oraín, lehen bezala, euskara garbia ikasteko, erdara ez dakiten euskaldunekin behar da ikasi, edo erdaraz zerbait jakinik ere, gogoa (pentsamoldea) euskaldun dutenekin.

Huntaz landara, euskaldun garbi ikasiak dira nagusienak, guri erakasteko. Ez bakarrik itzeginez, baizik eta beren idazti eta irakurgaiak. Idazti edo liburu horietan, onak baditugu, leenagokoetan eta oraikoetan berdin; berdin mugaz bestealdekoak nola hunaindikoak.

Guk ezagutzen ditugun garbienak nik uste beste aldekoetan dagozila: mugaz alde huntan, España aldean, euskararen erro garbienak euskaldun zaharretan daude. Emakume xahar askoren izenak gogora eldu zaizkit, hekeganik asi bainintzen euskaraz ikasten eta itzegiteko trebatzen.

Izkuntza guztiak bezala, gurea ere entzuten eta itz-egitez ikasten da; gramatikaz eta irakurtuz xoilik, beinere ezta euskaldun garbiaren joera erdiesten. Entzunez, aurrek ikasten duten bezala asi nintzen ni ere; beha-



rrik banuela leen bai leen ikasteko beharra sendakintzako nere egitekoak betetzeko; euskal herri bateko sendakin egin ninduten, eta nik euskaraz ez jakinki.

Jakintsun bateri entzunik banakien, arrotz batek nekez laketzen duela herri batean herri hortako izkuntzarik ez dakienean: eta aldiz, herri-tarren begiko egiten dela baldin ikasten badu.

Baiño orduan, norbaitek ohartuazi zidan, nere deiturak eta nere sor-terriko leku-izenak, erri hartakoak bezala, euskarazkoak direla. Orduan, argitasun handi bat egin zen nere gogoan, argi ta garbi ikusi bainuen, nere izatea euskalduna dela, eta nere arbasoen izkuntza euskara izandu zela.

Berehala zerbait ikasten asi nintzen, galde-modu zenbeit egiteko bederen. Herri hartan bazen emakume aberats bat, saratarra, eta andere huni Baionatik *Eskualduna* astekaria bialtzen zioten.

Ikasia agertu beharrez, edo neri lagundu naiez, astero ematen zidan *Eskualduna*. Egia errateko, leenbizian guti irakurtzen nuela adigaitza bai-zitzaidan.

Baiño ni ere, euskara ikasteko gai nintzela edo aski erne, ikasiago agertzeko andere haren aurrean, egin ahalak egin nituen kazeta hura irakurtzera, eta ikasteko.

Orduz geroz euskaldun arrontenak, bordariak, nituen irakasletzat artu, eta Baionako *Eskualduna* ene bidari. Gisa hontan, horren bide edereez, laster asi nintzan euskararen gozotasunari ohartzen. Jarraikitzen bai nitzaiion *Eskualdunaren* irakurtzeari, arriturik nindagon ikusiz, edozein gaiari buruz nolako erreztasunarekin zerabilaten euskara, ez bakarrik kazetaren idazle nagusienek, baizik herrietako berrielzale guztiek.

Orai duela 40 eta zenbait urte, nolako jakintsunak (euskara) *Eskualdunaren* egiletan! Berezik 3 idazlez oroitzen naiz; Iriart-Urruty, Abaddie, eta Adema, apez-kalonjeak iruak. Orduz geroz inoiz eta inon ez dut Abaddie laborariez mintzo zen baño obeki irakurtu. *Eskualdunari* zenbar zor diotan, ezin dezaket erran.

II

Euskalerriko beste erri batera aldatu nintzalarik, leenengoan bi urtez egonik, ia orduko trebe nintzen eta arrontean guztiekin asi nintzen euskaraz egiten, non ta orduz geroz izan nituen umeeri euskaraz baizik ez nioten mintzatzen ahal. Nere ume geiena, nik euskaraz ez nakielarik sortuak etzakien euskaraz, eta ondokoek etzakiten erdaraz; zaharrenak bere anaiekin bereala ikasi zuen.

Horrek adiarazten, umeenganik aisago eta lasterrago, beste izkuntzak bezala, euskara ere ikasten dela.

Nere umeetarik bat lau edo bortz urtekoa erdal-itzik etzakiekenak, eman zioten pilota batek bote motela zuela, behauzue nola adiarazi zigun: ari zen lurrean bota eta bota eta huntan erran, *pilota hau ezta eldu*. nork erran dezake euskara garbiagoaz?

Orduz geroz, errate batera, nere izkuntza bakarra, etxean eta atean euskara izandu zen. Orduko asi nintzaioten euskaldun garbieri ohartzen; garbienak, emakume zaharretan aurkitzen nituen. Zenbat esakera polit bildu nituen orduan; jakina, emakumea ohartu gabe.

Asia nintzen orduko euskaraz idazten, baiño euskaldun berria nintzela ezagutzen ninduten, euskarazko idazkietan nere gogoaz bazkatzen nuelarik ere; Axularren *Guero* liburua, nik ez dakit zenbat aldiz irakurturik nagon, jakina, beste idazti asko izan ditudala ikasgaitako berdin Españaldekoak nola mugaz haindikoak.

Erabili ditudan idaztietarik nere irizpideko, euskara garbiena eta mamitsuena derabilatenak, leenengo ogeita amar urtetako *Eskualdunaren* egileena (*Herriaren* aitzineko astekaria). Jainkoak daki zenbat urtez, aipatu lan horien mintzoari egon naizen ohartzen arriturik, heken jakinduriari ahoa zabalik!

Zein politik Elissanburu handiaren ipuin eta olerkiak! Ipuinetan politena *Piarres Adame*. Gero daude Adema bi anaien olerki ederrak; Daranatz oroiturilariarenak, Saint Pierre, Oxobi, Elisalde Zerbitzari, Diharassarry, Lafitte, Soubelet eta beste askoren irakurgai mamitsuak.

Ez pentsa gero, mugaz hunaindian ez dugula euskar-idazle onik; huna hemen, Mogel, Lizarraga, Gregorio Arrue, Agirre, Mendiburu, obe-



renetarik eta azken denboretan, Azkue, Altube, Olabide, Urruzuno, Kiri-kiño, Orixe, Lauaxeta, Zamarripa, Enbeita, Aranzadi, etc.

Gai huntarik bukatzeko, ez dut uste ziberotarrez zerbait erran gabe utzi ditekela. *Eskualduna* astekarian leku berezi bat bazuten (eta *Herrian* ere dute) beren euskalkiarendako. Gizon erneak eta buru argidunak direnez geroz, bere euskalkiak besteengandik bereixtasun handia badu; Erronkarikoaren eitea dauka eta hunek bezala aberastasuna hitzetan.

Besteetan erabiltzen ez diren hitz asko baño Ziberoan bizirik euskara eta Erronkarin hil urren. Bizkaiko euskalkian ere bada garbitasuna, eta ziberotarrarekin elkar ikusteko zerbait badu.

Euskalki guztien gaintetik eta euskal idazle guztien buruan Axular handia dugu; eta bere omen handiko *Guero* liburua da mamitsuena eta aberatsena euskaraz denen aburuz. Erran ditudanetan eta beste asko idaztietan nago nere izpiritua bazkaturik, eta ezta kitela noraraiño euskaldundurik.

Larreko

NAPARTARRA-KO BERRIKETARIEI



GURE EUZKELDUN ADIXKIDERI

Baztandarrak, larrauntarrak, ulzamarrak, bortzerrietarrak, bertizarandarrak, arakildarrak, erroibartarrak, artzibartarrak, saraizuarak, erronkaldarrak eta gañerako nafartar euskelduneri, agur.

Barkatu. Nai ginuke jakin zuen esker on baten gai naizen edo...

Amabortzero edo illero edo maizago nai zinateke euskara lerro batzu idatzi, edozein gairi buruz edo errialde orietan gertatzen diren berriak bialduz, emen *Napartarra*-n argiarazteko?

Lanak bear ditugu errexak eta llaburrak, bereziki, lerroaldi (párrafos) motzez eginak.

Aditza edo verboaz kontu iduki.

Erdarazko gisaz iges egin; diot, ez erdaraz gogoratu eta itzez itz euskarara itzultzeko. Emagun batek erran nai duela *poner orden u ordenar una falta* euskaraz erran bear dugu euskeldun utsak dioten bezala *buru eman* erdalkerik gabe.

Ortaz landa, orriak edo ostoak alderdi batetik bakarrik lerrokatuak eta izki larriz eginak, bertzenaz, argitarazteko, Jainkoak daki, eta zuek ere bai, nolaz itzulikatzen diren gauzak. Untaratuez geroz, idazki llaburrak eginez eta asti pixka bat artuz eginen dugu lan ona.

Larrekoa

EUSKELDUN ADIXKIDERI, BERRIZ

Gaur irur aste, leku untan bertan otoi bat egin nintzaitzuen, oroitu-ko zarezte, nik uste.

Orai, galde ura bera egiten datzuet, eta aitzaki guziak alde bat utzi ta asi bear duzue *Napartarra* untara bialtzen zer edo zer, zuen erri alde orietan gertatzen dena guri jakinarazteko.

Otsatietak Ezkurratik zalui jardetsi daud, baño gogoan dauzkat, bertze bospasei adixkiden izenak eta berek ere badakite eken lanen begira gaudela.

Ala ba, ea nor den leen.

Gure *Euzkaddko* Batxi zenaren gisaz asi bearko dugu txokorrak edo errekiak eskeinduz euskar lanetan leentzen denari emaiteko.

Beldurrez gaizki egiteko nik uste ezareztela gibelatuko; baitakizue emen euskar lanetan ari garenak, geienak beintzat, *larrekoak* gara eta orgatik guk aña eta geiago egiteko gai zarezte.

Ortaz landa, baldin nagikeriaz uzten badugu gure sailtxoa, iñork ezta sinetsiko egiazko euskeldunak garela; diot, gaurko egunean ezta aski euskaraz mintzatu, bear da ikasi ta irakasi eta nik baño obeki dakizue ikaste-ko bide egokiena, bertzeri irakastea dela.

Bakotxari berea emaiteko atzendu zitzaidan, oroimen gisaz emen ezartzera, bozik ikusi ginuela *Tradición Navarra*-n goan den astelenean amabortz euskarazko agur otoitza Deun Mikeli.

Iduritu bide zitzaion obe euskaraz otoitz egin Nafarroako Zaindaria-ri. *Batere baño obe noiçpait bedere.*

Larrekoa



ZARAIZUAR IZPERKARI BERRIARI

Bozik onesten dugu zure eskeintza, eta atseginez beterik ematen dazkizut gure esker bizienak.

Ala ba, emen gelditzen gara zure izperrien begira.

Diozu, eginen duzula euskarazko lana, zaraizuar izkelgiz, ederki alaxe, ori baita egin bear dena.

Ortaz landa, diozu erder itza aunitz erabiltzen dituztela zure erri alde orietan. Bertze euskalerrietan ere ala gaude eta orretaz ez minberatu.

Bere ortakoekin egin zazu solas aunitz, bereziki gizon eta andre xaarrekin, oken aotik ikasi bear ditugu itza zaar asko, eta ez bakarrik itzak artzeko, baita ere euskeldun utsak mintzatzen diren gisaz edo eraz ikasteko.

Gertatuko zaizu, oken aotik entzutea erran batzu, makur iduriko zaizkizunak, baña orgatik, erraten dituzten bezala arzkizu.

Bertze batzuetan naiz erdarazko itzak iduri, arzkizu ere; gauz oketan oro ikasle garelakotz.

Azkentzeko erran bear datzut, zaraizuar eta Erronkal alde orietan bada euskarari buruz uzta gaitza bildu bearra.

Eta zalui biltzen ezpadiugu betiko galduko ditugu.

Zuen mintzairak eta xuberotarrenak elkarkideko apur bat dutelakotz, zuk egin bear duzuna da, Baionako *Eskualduna* irakurri, unek, asteoro badakar Zubero aldeko berriak eta gisa ortan, berdinkaratuz bata eta bertzea, lan ona egin dezakezu.

Agur, zaraizuar adixkide maitea.

Larrekoa

GURE BERRIELARAZLERI AGUR ETA ITZ BAT

Nere biotzeko adixkide maiteak zarezten Mendi-xuri auriztarra, Aitz-xuri urdazubierra, Otsatieta Ezkurakoa, Mokoloka larraundarra eta zaraizuarra; mil esker zuen laguntza goxoagatik eta *Napartarra*-ren ize-nean galde bat egin bear datzuet: auxe da.

Amabortzetik amabortzera bear duzue unata biali zer edo zer; berriak emateko dituzuelarik aiek, eta ez dituzuelarik auxe bedere erran.

Nik ez dakit zer gisaz artuko dituzten gure irakurleak, *Napartarra*-ren euskar lanak, neri segurik eder zaizkit eta zueri ere bai, alako kolko beronen jabe zarezte!

Aspalditik buruan artua daukat gogoeta bat, auxe da: abertzaletasunaren erdi-erdiko erroa euskara dugu eta erro uni zor zakiona, gero ta geiago piztu dadien, emaiten ezpadiogu, gure Euskalerrriaren maitetasuna alegiazkoa edo utsa da.

Bizkitartean, oiuka eta goraka, gu unela izanak eta gure ondokoak Jainkoak daki nola: gu epelak, ondokoak otzak eta azkenean *tirrit*: euskeraren bidez egin dezakegu lan ona; euskara gure esku dugularik iduki eta azkartu dezagun, bertzenaz.

Nola nai ditugu gureganatu galdu gintuen eskubideak, gure esku daukaguna alde bat uztan badugu? Nork sinetsiko gaitu gogo osoaz eta biotz biziari ari garela gure Erriaren alde, baldin unen erro biziena eiar-tzera doalarik, igitzen ere ezpagara?

Ez, ez geldirik egon, asi garen lan uni jarrai giten; bertze gisaz gure alderdikoak egin du.

«Nacionalista vasco» delakoaren izaitea, euskararen izaite ondokoak bear du zinez jokatze.

Bertze euskeldun, ixilik daudenak, asi zaizte zuek ere.

Guzien bearra badugu.

Larrekoa



NOLA IDATZI?

Orai duela ilabeten bat onetsi gintuen Iruñarraren erranak eta azkenik unekin batean X Jaunarenak: berriki agertu zaiku Amillanagaray'tar Kepa, idazle bizkorra, leen gai uni buruz Eleizalde'tar Jaunarekin izanak ziren elkar ezin aditu batean, gai untaz mintzo zirelarik.

Jakintsuenak elkar ezin bateratu direlarik, zer egin bear dugu *larrekoak*?

Nik beñipein nere bidea artua dut eta bide egin bizkitartean aoa zabalik eta gogoa erne aditzen ditut yakintsuen erran argiak: baña, azke-tsi edo barkatu jaunak, gai unek izan bear ditu itzalguneak edo ilunak eta leku itzal orietan ibiltzeko argirik eztugunek zearka bear dugu nai dugun burupidera yotzeko.

Zer burupide dugu ori? Euskaraz idatzi ongienik eta euskeldun guziek aditu gisaz.

Euskaraz idazteko oitura, nondik eldu zaiku? Baionatik.

Eta oitura unek bear ditu gure eztabaiak argitu: ezen gauz oketan gogoketak baño argitzenago dute egiteak eta egipenak.

Ala ba, oitura uni jarrai, bakotxak bere itzkelgiz; elkar argituz eginen dugu bide, anartean Jainkoak agian bialiko daku idazle bikañen bat eta unen idatzi bidez elkartuko gara, Jainkoak nai badu.

Ez uste gero bat batean sortuko zaikula guk bear duguna *grafia* delakoari buruz, ez; izan diteke, gerta liteke; baña, beldur naiz, orai gai untaz mintzo garenak ezautu ez dezagun *unificación* delako ori.

Ordua bizkitartean goazen aitzinat artua dugun bidetik: untarik edo bertze batetik, ibili ditezke lasterrago, ondotik eldu direnak; eta agian gure gañetik iragaitean yo dezakete uste baño leen elburuko arri urre borobila.

Larrekoa

Ondotik, itz bat zuri Amillanagarai'tar jaun idazlea.

Zuk uste duzuna dela X jaun ori ezta; ez naizela ni agerian dago, apur bateko gai dena ez diteke lan aundi baten egile.

Ala ere, ausartzen banaiz eztabai uni bazterretik begiratzea, adirazi nai dietet gai uni so daudeneri, ez dugula oraia untan garmendu aunitzik aterako, bakarrik erdietsi dezakegu elkar ezin entzun batean gelditzea eta au liteke makurrena.

X jauna berak autatuko du zure idatzi politaren iardesteko garaia.

Orai ta beti Jainkoa baitan agindu.



AITZURRE-RI

Auñá Menditik arandiko baten bearra ginuen, astekari unen berri-ketaritzat eta tori nola agertzen zaikun. Bozik artuko ditugu zure euskar lanak eta pozikago argitaraziko eldu diren gisa beraz.

Astekari untan ari garenak, eztugu *h*-rik erabiltzen baña, ikusi *aal* dezakezu *ala* ere, *ez* ditugula naaste-masteka itzak erabiltzen: *aari* baten *yabe* ezpagara ere, gu beti gure *arira* goazi, eta naiz euskarari buruz, *ore moreka* bagabiltza, *ez* gara batere *oore* gose.

Baldin *Eskualdunaren* arabera nai dituzu orañik geiago berexi egiten aal dukezu, orgatik emanen ditugu berdin. Zure lanen begira gelditzen da.

Larrekoa

BERRIKETARI BERRIERI ITZ BAT

Berriago eta idazleago agertu zaizkigu Larunxoko laburditarra; Eki, artzibartarra eta Garraldako Lapitzea, ederki olaxe eta nere zorion agurra aunitz urtez.

Napartarra untan buru ematen dutenen izenean ere mil esker.

Zuek langile onak zarezte eta lantzaleari yarraikitzea dakio. Ortaz, amabortzero gutienez, bialtzen aal didazue lerro parrastada bat bakotxak.

Baño, ta asi gera bañoka, deus ez erranik naiago nuke, untarik bear bagine makurtu... izki larriz eginzkizue zuen lanak, argi eta garbi; diot izki borobilez eta leku ausarkian igeri.

Lerroalde laburrez egin bear ditugu euskar lanak, bertzenaz neketsu eta irakurgaiz dire.

Barkatu «Larunxoko» aixkidea, zutaz nintzan oroitzen, aixteko ori ezarri dutalarik; baña nolako atsaren yabea zaitugu, orri aundi bat betea lerroalde bakotxarekin. Zer putikoa zu! Agur maitea.

Larrekoa



IRAKURLERIK OTE DUGU?

Biozmintzen nau, gogoeta unek, gure euskar lanak izanen ote dituzte irakurlerik, edo ementxe ari garenak baizik ez gara elkarren irakurle?

Ortaz landa, irakurlerik guti baizik ez eta ainbertze leku *Napartarra* astekari tipi untarik guretzat artua on diteke, edo obe litzake erdarazko sailak auniztu?

Abertzale egiazkoak bagine ez ginuen gogoeta oketaz ainbat axolarik, baña zer nauzue? Idazten duenak irakurleak nai ditu.

Euskararen irakurleak auniztuz doazila eztut uste, baña euskar idazleak beñipein baiki.

Leen, orai duela bospasei urte, idazlerik etzen Nafarra, gure eskualde maite untan, orai berriz aurtada bat polita gara, unek esan nai du euskar idazle bezenbat irakurle beñipein bagarela, eta ori ezta guti.

Nik eztakit zer gogoetak eginen dituzten euzkeldun ez diren aber-tzaleak *Napartarra* untan ikusiz ainbertze zerrenda euskaraz. Bere baitaratzten badira aitortuko dute zinez, zati oberena guk daramagula Aberriaren alde eta ori ala baldin bada, ez ote dire lerratuko gure irakurleak izateko?

Uste ortan ari gara emen ari garenak; gu geienak bertze euskal zalengandik kutsatu ta asiak gara eta lenbizian guk ere ez ginakien guti baizik; doi-doia itz egiteko, eta ori Jainkoak daki nola, baña asi ginen euskar gutunak egiten noizbeinka, gero maizago eta orai *Napartarran* ere.

Ez uste ortaz, arrotuak eta inarrostuak gaudela geuren buruaz, ez, gutiago orañik geuren yakinduriaz; apal-apalki orok aitortzen dugu apur bateko gai baizik ez garela.

Guk gisa beraz yarraikiz bakotxak bere sailan eta Jainkoak nai badu, ikusiko dugu nolaz agertzen diren gure bitartez irakurle berriak eta euskal idazle obeak, guri baztertuko digutenak.

Baña ori ardiesteko lenbailen guk egin aalak bearko ditugu, gero ta geiago barnatuz euskararen zañetan, gero ta geiago itza zaarrak bilduz ta erabilliz.

Gero ta geiago oartzuz nolaz diren euskeldun xaarrak, eta irakurtuz maiz leenagoko euskar-kutun ederrak.

Larrekoa



URTE ZAR

Adixkide maiteak; Jainkoak dizutela urte berri on baten bidez gogo bero bat gure erriaren eta euskararen alde eginalak egiteko. Ala biz.

Yaz, ementxe asi ginenak euskar lanetan konturatu gaituz eta gure kolkoak apur bat ikertuz yakinen dugu nolako lanak egin ditugun aberriaren alde, euskararen bidez edo bertze gisaz.

Orain unta nere asmo bakarra da euskararen alde egin ditugun lanak gogora ekarri ikusteko leenetaik eta azkenekoraño egin dugun aurrerapena, zeri buruz egin ditugun, nolaz idatzi eta egin ginituen utsak zuzentzeko.

Zer gisako irakurgaiak erabili ditugu, norenak zaizkigu ederrago eta zergatik; gogo orietaz zer asmo berriak egin ditugu.

Eusker-itzkalgiz nola gaude, zer iritzekoak euskel izgelgi bat berexteko guarendako.

Una emen nik egin ditudanak.

Asi nintzenetik orai artio, nere euskar lanetan ez dut aurrerapenik nabarmentzen, gutiz gora bera leenengo utsetan beaztopatzen naiz orai-koetan, ortarako bear dugu gu baño yakintsuagoko baten aburua eta ala dio nik neretzat berexia daukanean.

Aurrerapenik ez egiteaz ez naiz batere arritzen, beti lasterka ibilia naizelakotz.

Eusker-ikaskuntzik ere guti baizik ez dut egin. Irakurri *Enzkadiren* sailak, *Enzko Deia*renak, *Irujarrengo Prantziskotarr*-enak, Baionako *Eskualdumarenak*, *Euskal-Esnaleakoak* eta oriek Jainkoak daki nola: noizpeinka Axularren zati bat edo, Aita Mendiburuaren *Otoizgaiak* lerroalde bat edo bertze.

Baño, ez dugu bertze biderik. Irakaslerik aldamenen ez dugularik euskaraz irakurri bearko, irakurtzen duguna obeki gogoan edukitzeko euskaraz idatzi; bertzenaz, azaletik lotzen direnak aisa urratzen oi dira.

Egin ditugun lan apurak tipiak izanik ere ez digute gogo yo, diot, ez garea aspertu eta asmo berezi bat artu dugu gero ta geiago inka unta onirauteko.

Eta zuek nere laguntzaile maiteak, gogoan yoak ote zagozte?

Alakorik ez nuke sinetsi nai.

Bertzela balitz, konturatu zaitezte eta ikusiko duzue, lan unta irau-teak adirazten duela geuren biotzetan daukagun maitetasuna.

Euskeria eta unen esku zuzenak begiratzeko gauden beti prest, asmo ortan onirauteko eta beti gogoan edukitzeko ezta bide egokiagorik eus-kara baño.

Jainko aurrak bere siaskatik onetsi bekigu.

Larrekoa



ONGI ETORRI BEDI

Gure astekari maite kukutua, piztu daukute.

Beldur nintzan betikotz itzali ote zen.

Baño ez, atorra aunditurik agertu da, orain papera kariotu dutelarik, zer aginean eldu dena!

Ni beti galdeka ai nintzaioten noizko eta nola piztu bearra zen; beti iardeste berbera, eldu den illeko edo lasterrago or dukezue apainduki eta leen baño gotortuago eta nausiago.

Geroztik aren berpiztea bertzelatuago dukegu?

Ala da egiaki. Jainkoak detzala aunitz urtez.

Baño, (gu beti bañoka) esan didatenez, euskar lanak xuurkiago eman gogo omen dituzte.

Geiegi ari ote ginen iragan aldian!

Nola nai den, gu gure arira; nik segurik euskaraz. Kastillanoz trebe direnak gu baño aunitzago dira eta untaz landa, euskar lanetan alferkeriarat laster lerratzen da bat, eta guk euskeldunak ori egiten bagenu, noizko euskeldundu gure aurrideak?

Ori gerta ez dadin, llabur bada llabur gu beti aintzinat, Jainkoak ala nai duelarik.

Larrekoa

ENE ADIXKIDE BEGIKOERI

Alferkeriara jo dugu eta ori jotzeko zein errex den.

Guti aski dugu zinez, besoak kurutz, bertzen lanen begira egoteko.

Napartarra astekari unen berriketariak iru ez bertzeak ixilduak ditugu, eta ekin batean ni ere logaleak joa, negua balitz bezala lokartu gara.

Iduri ta batek beti bere bizipideko lanetan ari bearra edo ez dakit zergatik, euskar sailak segurik alde bat utziak ditugu. Noiz arte?

Niketz segurik, iñarrosaldi bat ona eman diot ene kolkoari eta abia naiz lenago elkarrekin artu ginuen bidetik emateko.

Ez ordea zuek, Otsatieta, Mokoloko, Oribizkarra, Baztandarra, eta, eta, geldirik egon.

Goazen bada, adixkide onak, egin dezagun bide; Jainkoak ala nai duelarik.

Mendi-xuri, Otso-lezea, eta Aitz-xuri, zuek ere *xartexak* joak edo, baduzue arjoaren ondorioa; leen bezain zalui etzabiltzate segurik.

Baiki, idorte gaitza, uni dagokiona: egon begira nola dagozin belaiak kizkaldurik, mendiko bazka muruztua, lursagarrak eiartuak eta artoak orituak.

Errekak meatuak eta ixilduak, iturriak agortuak eta ugalde larriak ur lasterrik gabe, putzuetan lo. Jainkoa urrikal bekigu! Mendiz araindiko euskeldunetz deusik ez dakigu.

Eskualduna Baionako astekari maitea ez dugu aspalditik artu, ez dakigu zer bilakatu den. Noizko gudu tzar uni etsia?

Jainko Jaun ona, urrikal bekizu euskeldun gudulariez!

Anai maiteak, Jainkoa baitan, agur.

Larrekoa



ENE ADIXKIDE BIOTZEKOERI, AGUR

Gure berriketari jarraikienak gaitz berri unek joak dagozi, «Mendi-xuri», «Otsolezea» eta ez dakit geiago ote denik. «Aitz-txuri» Urdazubikoa ere egon omen da ukitua; baño unek lan asko dauka eta ez du astirik ez irakurtzeko eta gutiago euzkar gutunik egiteko.

Bertze gisaz osakin gisaz bazterrak urrun ditu eta oraiko gaitza dela bide edatuago.

Zinez, alakoetan bozik batek irauten baldin badu osasunean. Jainkoak ala begiratuko aal dizu anitz urtez.

Eta zu «Mendi-xuri» maitea; obeki aal zaude? Orañik oatzetik jaikitzen etzara eta ementxetik biall nai datzut oroigai gisaz lerro batzu.

Bazinaki zenbateraino bozten garen xoko untan zutaz eta bertze berriketariez mintzo garelarik!

Asma ez daiteke nola xede edo elburu batek elkarganatzen dituen gizonak!

Abertzale zinezko gisaz biotz bat eta gogo bat dugunez geroz, «Jainkoa eta lege zarra» eta ez da bertzerik.

Nai dugun xedez jotzeko bide xuxenena da euskara eta euskarari eman ginen biotzez eta gogoz.

Gure artean baditugu buru-bero batzu nai dutenak «Gora Euzkadi-ka» bazterrak inarrotsi!

Nik badut bertze gora bat bazterrak inarrosten ez duena, gurekideak berotzen duena eta etsaiak uzkurrazteko egokiena den oiubat; euskaraz mintzatu, euskaraz idatzi eta euskeldunen artean euskaraz ari beti.

Orixe bai dela goraki erratea. Ni ez naiz española, ni ez naiz frantsesa. Ni naiz euskelduna!

Gisa untan, bereziak gerala diogulakotz giltzapetuko aal gaituzte?

Jainkoa urrikal bekigu orain ta beti.

Irakurle maiteak, agur.

Larreko



OSASUNAZ

OSASUNGARRIAK

Uda minean (canícula) erraz baita sabelak samurtzea, gure adixkide ona den «Elaberrri» maiteak galdetzen dazku oar batzu, sasoi untako sabeleko oñatzeak eta beitikoak begiratzeko bear diren onuak (consejos).

Larreko bati ateka estu batera bulkatzeko ateraldi ona duzu ori aixkidea.

Baratzekari onak baldin badituzu, utzkizu alde bat, gordinik yateko beñipein, eta egosiak ere zuurki ibilzkitzu.

Berotua edo izerditua zaudelarik begira zaitez aize lasterraren (corrientes) goxoaz.

Izerditzten bazara aldatu zaitez eta urtutzen ari zarelarik bustitzen bazara berdin. Lan ori uste dut eskalapoinez yauntzia egiten bide duzula.

Egarri zaudelarik ez geiegi edan ur utsa, urrupa batzu baizik.

Yan otorduetan oitura duzun yanariez bertzerik ez, bereziki igalikariez (frutas) kontu, bakar bat edo, ez geiago.

Guzien buruan, sabeleko iluntasunik somatuez geroz, goatzean geldi-geldia eta salda utsean egon.

Sendagile basa unen erranak onesten ezpadituzu utzi eta zure etxe-ko sendagilea deitu, unek argituko datzu.

Bein sabeleko gaitza bat lotuez geroz, bereala oatzeratu, geldi-geldia antxe egon, ur utsa edo ur egosia baizik artuz, eta sendagileari mezua biali, lenbailen ager dadin zure edo eriaren onerako; sarritan gisa beraz gertatzen baita gaitza tzar batzuen asmenta eta auek lenbailen bilatzea (diagnosticar) on baizik ez.

Jinkoak dizutela osasun ona, agur.

Larrekoa



ORAIKO GAITZ-BERRI UNTARIK

Ez dugu aspalditik bertze solasbiderik eta ni ere ortarik lotu naiz.

Zinez elderi tzarra dugu gure artean, baño, nola daiteke oraikoa, leengo *grippe* delako gaitza ura bera?

Ez da errex iardesten.

Sendagilen artean ez dagozi ados zer diteken ori buruz. Batzu diote oraikoa ala dela; gaitz baten elderi aldiak ez dire berdinak, aldi untakoa gaitzituagoa dela baldintza tzarragoetan sortu delakotz.

Gudate ikaragarri unen ondorio tzarra; idorte gaitzaren bidez kutsu pozoindua; gizonketa gaitza, leku estuetan kokatuak, naasiak janedanak txarragoak, eskasia andiak bazterretan, oro bateratuta ta una emen *grippe* delako gaitza tzartua.

Izan daiteke, *zakurra zakurtuez geroz otsoa biurtzen denez geroz.*

Bertze batzu diote berriz; elderi unen iturburua ez da eldu gaitz batetik, baditu *grippe* delakoa baño geiago, sukar beltzaren kutsua ere baderama.

Zinez, eri gazteenetan sukar-beltzaren antza baduke, eta zendu diren gazte geienak itxurez sukar-beltzak eraman ditu. Ala diote segurik eta ni oriekin batean nago, dela sukar-beltzaren kutsu berbera edo bertze bat beltua gauza bera da.

Sukar beltzaren antza du gazteri eta sendoeneri jotzea; *grippe* delakoarena ez da ori, unek aulenekin nagusitzen da.

Betidanik udazkeneko gaitza sukar beltza dugu gure bazterretan. *Grippe* delakoa berriz neguko eta udaberriko gaitza.

Dena den elderi untan *grippe* zikina dugula gure artean ez daiteke ukatu; baño bada bertzerik ere.

Laño beltz baten pare zoko guziak bete ditu izugarrizko gaitz tzar unek.

Gaitz untarik begiratzeko, ez ote dute sendagilek xerto berarizko bat edo?

Ez omen dute, baño; ortarik nola bertzetarik begiratzeko badakizkigu zerbeit onik.

Jan edanean kontuz; gizon bilkuretarat (café-batzoki-zine-teatro-ardangela etarat) ez urbildu; astia duzuelarik, erritik ate, karriketatik ate, mendira jo; aize garbiz atsetzera.

Arratsean, illunabarrean etxerat bildu eta tenorez oatzeratu.

Guzien buruan (ante todo) garbitasun andia eskuetan, maiz garbitu, bereziki janotordu aurretik. Aoa eta sudurrak gisa beraz maiz garbitu, ur beroaikin aski da.

Baldin baduzue iturriko ura edo ur iragazia (filtrada) edo ur egosia, etarik artu.

Baldin kontuz ibili eta gaitza biltzen baduzue, oatzeratu lenbailen, ur utsean egon, urdalla eta sabela garbitzeko *purga* bat artu, ur utsean (egosia obe) jarrai geldi-geldia oatzean eta sendagilea deitu.

Leendanik artatuak gisa untan, bospasei egunez kito.

Jainkoak begira gitzala eta Aren naiari so egon gaitzan. Ala biz.

Buruzuri



JENDE TARTEKO OSASUNGARRIAK

Ama batek bere bularreko esnearekin bakarrik, edo unideari emanetz, bear du azi bere umea; ezinbertzezko gauza da, mamona edo gomazko titiaz baliatzea.

Mamona gauza ona eta gaixtoa da; ona garbitasun ezin geiagokoa-rekin ibiltzen denean, eta pozoñaren pare, ongi eta maiz garbitzen ez bada.

Sortu berriari, zenbait orduen buruan, lenbiziko eman bear zaiona da bere amaren bularra, bertze edozein edari baño lenago.

Garbitu aurra egunero eta unen burua, egin ez dakion «crisma» deitzen den azala, zein ez baita zolda gogortua baizik.

Litainak ateratu aitzinean beñere etzaio eman bear aur bati jatera edo edatera, bularreko esnea baizik.

Jana bezain bear du aurrak aize garbi eta sanoan atsartu, eraman bada kanpora, bañan gauaz ez, uda izanagatik ere.

Urtez azpiko aurrarentzat anbat gaixto da jatea, gero ere bearretan bada ez edozein gauza eman, baizik esne-zopak edo ura eta gatzean bus-tiak. Iru urtez peko aurrak bere kaltetan ditu aragia, ardoa, kafea eta frutak.

Aur bat xertatu bear litzake iru illabetetan, leenago nabarrerria dabil-lenean; xertotik ez da nabarrerria sortzen.

Noizean bein xertatzen denari etzaio nabarrerria lotzen, eta denak xertatzen diren errian ez da gaitz kutsakor ori edatzen.

Gorputza garbi eta eskuak garbiago dauzkanak segur ez du izein zizaririk, eta zain dezake bere burua bertze aunitz eritasunetarik.

Udan maiz mañatuz garbitu gorputza, neguan ere bai noizean bein; aunitz eritasunen ama da zikintasuna.

Birikak galtzeko edo betiko izateko bidetan da janean sobera ari eta edana maite duena, bai eta ere aire erreberritu gabean leku illunean, ian txarra eta eskasarekin, aztura tzar edo zikintasunean bizi dena. Eritasun orri atea esten zaizko: gaitz ori izan dutenen soñekoak eta ek ibilli gauzak bazterrerat utziz; sorallua garbituz, ez isetsaz, baizik trapu edo egunki arron eta urantuarekin; listua sorallura ez emanetz; aragia erosteko bear litaken dirua, kafe, ardagela edo taberna eta pipa-belarrean ez ondatuz; eta etxe barnetako bilgurak baño kanpoko jostetan maitego izanez.

Biriketako gaitza sendatzen da denbora dela kasu eginez; geroago arras nekez.

Edan soberakinetik sortzen denean, gutitan sendatzen da.

Tifus lotzea nai eztuena, izan bedi garbia gorputzean, jauntzian eta ianedanean; edatean eta garbitzean gasta dezala iturritik edo bertzela ur idakin eta idazkia. Ardo eta edari xuriari emana den aren azken etxea izaten da presondagia, erotegia edo eritegia.

Goizetan eta bazkal ondoan kopak artzeko oitura duena denbora gabe zagartzen eta lasterrago iltzen da.

Izpirituzko edariak indargabetzen du gizona, adimendua illundu eta ollotzen, eta egiten seme ero, zentzu eskaseko, biotzeko min edo biria-galdu batzuen buratso.

Aztura ezin geiago itsusia zinez mozkorkeria; nagazten eta errekaratzen ditu familiak, berekin ditu alferkeria, bearkundea edo miseria; egiten du gizona eskelari, bere buru iltzalle edo gaixtagin; aztura ori duenak galtzen du gizontasuna, ez da bere buruaren jabe, ez daiteke izan sendiko buratso on ez eta ere jende tartean, erritar ona.

Larreko



APENDIZITIS ETA URDAIL ZULATZEA

Jendarteko osasungarriak utziko ditugu aldi untan eta mintzatuko nazaitzue Jainkoa lagun, gaitza tzar orietaz.

Leen, sendakinen artean eta jenden artean, bi gaitzak etziren izen oickin berexten.

Unelako beste gaitza batzuekin, etzituzten orai bezala berexten baizik eta *cólico miserere* izenarekin deitzen.

On da guztiek ikasi dezagun, zerika den bi gaitza orien gora bera, eta nola leen bai leen sendakinek bear duten berexi, eken ondorio tzarretarik begiratzeko.

Este itsuaren zolan, zortzi-amabi zentimetro luzeko buxtan bat badugu; buruen buru bide mehar bat, ondoan zabaltxago muturrean baño; azala lodi eta gogorra du, ezpauidu iduri barnetik biderik baduenik.

Bide ortan dago, gaitzaren sorlekua; esteak barnetik duen mintza berbera buxtanak ere.

Estetan edo este itsuaren barnean dagonetik sar-atera dabila buxnetik ere: baño muturrean etsia bai dago, eragozpen guti aski du barnetik trabatzeko; dela k... pikor tipi bat, dela azi edo zizari, guti aski bidea este-ko eta mutur aldera gelditzen dena gaiztatzeko, suartzeko eta buxtanaren azala xulatzeko, usteltzeko eta pozoña sabel barnera ixurtzeko; baldin xulatu edo gangrenatu baño leen, operatzen ezpada, arrixko andiago da gangrenatu gabe delarik operatzea baño.

Geienetan, bat batean gaxotzen da, sabel min andi batekin, gero goitigale edo goragale zenbeitekin, eta sukarr zerbeitekin; gaxoak sabela minbera dauka; ezin ukitu, bereziki sabel zolako eskuñeko aldean.

Edozein edari arrazten badiote berehala goiti eldu zaio; beerakorik ezin, aizerik ere ez.

Unela dagonari Jainkoaz, ez purgarik eman eta berehala sendakinari otsegin eta deitu.

Oraiko aldi untan, sendakinek laster aski gaitza berexten dute eta leen bai leen, operazio-egileari ikusazi bear zaio; baldin, gaitza ori denean berehala operatzeko.

Bat-bateko sabel miña eta miñandi denean; geienetan apendizitis eta urdail zulatzea gogoratzen zaigulakoz, esan dezagun itz batzu *perforación* delako urdail zulatzeaz.

Edozein tenorez eta garaiez, oean, lanean, bazkal aitzinean, edo bazkal ondoan; noiz nai eta bat batean nabal ukaldi bat bezalako oñaze andi batekin asten da geienetan; ezin da sabela ukitu; ahalik eta gutienik sabela igitzeko atsa ere llabur egiten du.

Sabel miñ andi delarik aurpegitik ezagutzen da eri-andi dela.

Batzuetan, goiti-galea ere izaten da eta bai aldika txopina ere; beerako aldetik, ezerrez, deusik ere.

Geienetan gizonezkoak dire leertzen direnak; bakan baizik ez, emakumetan.

Askotan, urdalletik kexu eta ikustekorik izan dutenak dira zulutzen direnak.

Baño, gertatzen oi da, urdalletik arrankurik ez beñere, eta zauriaren leenengo berri, aren zulatzea.

Geienetan, medikuketan eta erremediotan ibiliak direnetan gertatzen oi da urdail zulatzea.

Unela bada, edo ala ezpada; bat-bateko sabel miñ andia; sabel biltzea eta gogortzea, zurezkoa baliz bezala somatzean, azkar sendakiña deitu, azkar ibili eta leen bai leen operatu.

Baldin operazioa laster egiten ezpada, gero ta eri-andiago, gero ta ustekida gutiago operatuagatik ere.

Emen esan datzuetena gogoan idukirik; unelako gaxo bat gertatzen bazaitzue, nik bezenbat badakikezue eta berehala bideraturik, eri-andienak sendatu dezazkezue.

Gaitza oriek, geienetan eta leenengo orduetan ere argi eta garbi berexten ditugulakoz, azkar medikuketan ibili bear dugu.

Gaxoari ezer ez arrazi gabe, kaltegarri-andi daitekelakotz.



EDARIKOIA

Nik esanikako «jeremikerien» argitzeari begira egon bitartean or doazi lerrokada batzu.

Euskeldunak maite ditut, ene aurrideak direlakotz, onak direlakotz, zintzoak eta langileak direlakotz, baiña eken bi okerreiri oartu natzaio geienik eta una emen, bata bertzeari darraizkonak.

Leena; etxeoandrea, emaztea etxeo baño, bertze lanetan aritzea.

Etxea, etxeo garbitasunez eta etxeoen janariaz kontu guti artzea.

Etxekoandrea lan leena, nagusiena, bakarra ezpada, etxeo du, ez landakoa; etxean eta ez landan, ez egurketan edo ikazketan.

Bear-andi alditan oro lugin, oro gudulari, baño ez arrontean.

Bigarrena, gizonak edariari geiegi emanak; gazteak berdin.

Urrundik ageri zaio euskaldun bati gisako etxeoandre duen edo ez.

Gisakoa badu, gizona etxetierra ere; maiteago du etxean ardotegian baño; adixkide edo lagun batekin aamen bat artzeko sartuko da ostatuan, baño ez an gelditzeko, baizik eta tenorez andik etxeratzeko.

Gisako etxeoandrea ez duena ez da etxetierra; ori maiz bazkariz ostatuan, afaltzeko ere bai, eta gero... ondokoak.

Baño edarikoia ditugu arian eta guazin gure aritik.

«Hipócrates» delako sendakinetik asi eta sendakin geienek goretsi dute ardoa gizonaren, berdin osasundun delarik edo eri-gaxo dagolarik.

Aldiz, «edari-altxagarrituak» (ardo-garagarardo-sagardo) zillegi litezke; baño bakotxarentzako negurritik landa, pozoina.

Aspaldidanik, gauza oketan jakintsun direnen arteko eztabaia da «izpiritua» edo «alcohol» gizonarentzat azkurri edo pozoina ote den.

Baña ezpairik gabe, guziek batean diote, baitaezpadako azkurria, bearrezkoa, ez dela.

Untan ere, ezpairik gabe guziek diote: ardoaren izpirituari dagokionez, bakotxaren negurri artarik landa pozoina dela.

Bakotxak zenbaterañoa du negurri ori? Bat bederak ezagutu dezake?

Gauza oketan dakiten batzuk diote, gizon batek, kalterik gabe edan dezake bere aztaren ariora gramo bat izpiritu kilo baten: Ots, 70 kiloaren azta duen gizon batek, edan dezake eguneko litro bat ardo, ez delarik lodiegi izpirituz; euneko 6 edo 7 arteko ortarik.

Eta ori ardo ona delarik. Baña oriek guziak gogoeta baizik ez dira.

Emagun: urlia eta ni, azta bereko gizonak, baño arek bere negurriko litro ardoa artzen du eguneko, eta nik deusik ez artzen.

Arek litro bar ardo artu eta ongi; nik aldiz, litro bat artu eta mozkor-arraildua.

Neri kalte egiten diranak ez ote dio ari ere kalterik egiten naiz ari nabarmentzen ez eta neri bai?

Ez da arat-unatik: ortara jarria dela ura eta ni ez; makurrago arentzat nabarmentzeko bideak etsiak dituelakotz.

Baiki; ardo on baten beldurgarria izpiritua da. Eta izpiritua beti pozoina.

Pozoina gisaz negurritik geixago artzen badu, kalte.

Baldin batek ezagun balezake bere buruaren negurriko ura!

Baña zer ari gera?, egunetik egunera negurri ori goititu diteke, gutika-gutika eldu diteke Jainkoak daki, bakotxarentzat noraraño! Eta ustez on egiten diola.

Orgatik, ene iduriko mozkortzen ez den edarikoia da makurrena; bere burua ezagutzen ez duelakotz eta pozoinaren ondoriorik ezpaidu autematen.



Bizkitartean, edarikoiek naiz sendo iduri, erdolla barnetik dute.

Erdoil orren nabarmentzeko, gaitza batek jotzen duelarik.

Orduan sendoenak nolaz garaikerri orretan?

Oso gaizki; burutik naasten ezpa dire giltzurrietik edo biotzetik mainguka dabilta eta borrokan edo garaikerrian mainguka dabilena laster lurrean dago.

Ori sendo iduri dutenak; aldiz kezketan asiak direnak «urdalletik» ala, «gibeletik» unela, lasterregi nekatzen dena, atsanditzen dena, gizenegi dagona, oriek guziak arjoak ditezke eta kontu.

Ardo artzeko negurri ori, erraz ezagutzeko bide bat baginu, nonbait or!

Ala ere erraza ote da negurri artako doian onirautea?

Edarikoiek jakin dezakete batzuetan gutiz gora bera, kalte egiten dioten edariaren izaria; baña, on egiten dion ura zenbat den, ba ote daki-te? Beñere ez.

SENDALARI BATEN ARGIAK

Apez gazteen laguntzeko, eri-handietara deituak direlarik.

I

Orai duela bizpairur urte, idaztiño bat egin nuen erdaraz, *Guía médica del asistente a moribundos* deitu nuena.

Apez ordenatu berriak, eri-handietara eta azkenetan daudenetara deituek, sendakintzako erakaspén zenbeit on lukete jakitea.

Eri-handien galbideak zeintsu ote diren jakitea, eta bereziki, eri bakotxaren *ezagutzá*, noraraño ilundu den ikusteko, sendalarien argiak beharrezkoak zaizkit eta orgatik lan huni lotu naiz.

Guztien buruan, laguntzaleak jakin behar duena ori da. Eri-handitu denean, *ezagutzá* argi othe duen, Elizako laguntzak emateko, edo ilunegi baldin badago ez emateko.

Ene adiskide jaun apez batek, behin hunela erran zidan: zuk, eri asko iltzen ikusi duzunez geroz, etzinuke egin nahi lan bat, apez gazteeri laguntzeko eta ahal bezain argi irakatsi, azkenetan daudenen ezagutza, noraraño ilundu zeien?

Eri-handi batek, *ezagutzá* edo *burua* nola daukan jakitea, garmendu andiko gauza da. Ilundura ezagutzeko bideak bilatu nahi ditut eta ahal dutan argiena, erien laguntzaleari irakasteko.

Gure xedeari buruz, nahi duguna, eri-handituak gai othe diren Erli-sioaren laguntzak emateko edo ez: laguntza oriek laster eman behar diren edo asti artu daiteken.

Baiki: askotan, gauza zalla eri-handi baten *ezagutzá* guti aski ilundurik dagonen, noraraño dagon ilundurik jakitea.

Ilunduraren negurtzeko edo hartara eltzeko ezagupideak bilatu, apezak jakintsun gelditzeko, gure lanaren egin beharrena da.



Ezagupide oriek *xeheki* bilatu eta argiki eman nahi ditugu, ez bakarrik Elizakoak artzeko baizik eta azkenetan daudenen egin beharrak egiteko, nola ordenuak eginarazteko.

Nola nahi den: ikusi eta ikasi dutanez, eri-handi gehienen buruak guti-aski ilundurik dagotzi, bere baitako gogoeten adiarazteko.

Eri-handien baitako berrien bideak, ez ditugu beti argi ikusten: trabak ditugu gure aldetik eta ilundurarengatik. Orgatik, adiskideari erran niola: ez dakit, ez dakit; baño, nago, gaia ni baino ikasiagoko batentzat dela.

Ala ere, egin ahalak eginen ditut, eri-handien buruak xilatzeko eta ikusteko noraraño argituak dauden.

Gertatzen ohi da: eri-handitu baño lehen, burutik ez ongi egotea; orduan ez da errax berexen lehengo eta erituez gerozko nahasturia: osotara nahasirik kausitzen ditugularik.

Behin, eri xahar bat, betidanik *gizon bitxia* zenez geroz, *grippe* delakoaren sukarraikin *biriak ukiturik*, oso nahasia zagon.

Egin nion agerraldi batean, etxean sartu ta gaxoaren emazteari nik: zer dio, nahasirik dago? Emazteak *bizi-bizja*: noiz dago *berexirik*?

Eritu aitzinetik ongi ezagutzen bazuen bere senarra, erituz gero etzakien burutik makurrago othe zagon.

Olakoetan ez daiteke lan xuxenik egin. Zerbeit egin dezakena eri-handiaren onerako, bere arronteko aitortaria izango da.

Laguntzaleari, argitasun asko egin dezaken gauza da jakitea, eri-handiak zer gaitza duen, gaitz bakotxak bere dituen bideak baditu argi egiteko, nola dituen iluntzeko ere.

Bide oriek gogoan aisago irauteko eta behar direnean oroitarazteko, idaztiño haren azken orrietan: *lauko laburtu* bat eman dugu; gaitza bakotxaren nabarpen larrienak eta arabera bakotxarentzat laguntza beharrena zein den eta lehen bai lehen egin behar bada, edo astiroki egin daiteken.

II

Jakin nahi duguna argi aski erran dugu: eri-handien laguntzaleri jakinazi nahi diotegu, behar denaren egiteko argi-bideak.

Baño: eri-handien burua argi dutenak ere, Jainkoaz ez omen dire oroitzen.

«Quoniam non est in morte qui memor sit sui» (David, Ps., IV-V, 6.º).

Eriotzeko orduan, zergatik ez da iñor zutaz oroitzen? *Sheol* delakoan nork laudatuko dizu?

Daviden itzak, itzek dioten arabera arturik, ez dire ongi eldu gure lanaren xedearekin.

Salmistak, Jaunaren laguntza galdetzen du il baño lehen; ez baitaki Jaunaren meneko eta zerbitzari izango othe den Iphernuan: ezpaidaki zerika daiteken hura.

Sheol itza, lehenengo aldiz agertzen da *Salterio* delakoan, eta da leku bat, non arimak, eriotzaren ondoan ez dakite zeren begira dauden, Jainkoaz oroitu gabe, Jainkoaz azturik bezala.

Aitzinagoko «revelazion» edo agerpenak argituko ditu itz-ilun ok, *purgatorio* eta *inphernua*, bai ta *Abrahamen* galtzarreak zerua erran nahi duela.

Baño, gure lanaren xedeari obeki doakio, egokiago eldu zaio «Axular»ek diona... «Zeren gaitz izanen da, heriotzeko orduan, eritasunez eta oinhaizez zaudenean, behar den berotasunarekin Jainkoari gomendatzea».

«Zeren orduan, bertzeak bertze direla, eritasunak berak emanen baiteratzu egitekorik asko».

Ots; iltzeko ordu artan, ez dela argitasunik Jainkoaren alderako gogoeten egiteko.

Zoritzarrez, ardura gertatzen den gauza da. Ordu artako gogo guztia eta nahikeri bakarra, *ezin egon artako* atheka estu artarik lehen bai lehen ateratzea: ez da bertze gogoetarik.

Orgatik, askotan egia daiteke *eriotzean iñor ez dela Jainkoaz oroitzen*.



Itz batean: eriotzeko ordua ez da tenore aut prestakizunak egiteko, baizik eta prestaturik egoteko.

Naiz tenore artako ezin egon hura nabaitu gabe; badaiteke ez gogotaririk eta ez argirik ez izatea; ok dire gure laguntzalearen gaienak eta berez-bere bide egin dezakena.

Kontu huni: badire eri-handiturik dauden batzu, erraten dutenak «ni ilen naiz» baño, utsean ari dire; naiz eri-handi, ez daude azkenetara eltzeko (maizenik emakumeak dire) eta erran izan diotet «bai, zu ilen zara guztiak iltzen diren bezala, gutienik uste duzunean».

Ala ere, eri-handiturik bai daude eta ezagutzak argi, on litzeke prestakizun guztiak egin dezaten, gogoeta ortan daudenez geroz; ardurenik, laster aski eldu zeie iltzeko ordua; naiz ilen direla orduan ez duten erraten.

Ohartu ere: eri batzu badirela, beti gogo iltzeko ortan daukatenak, gogoeta itzatua bezala, laster ilen direla, diotenak.

Eri okeri beha ongi, elizakoak ez goizegi emateko: bertzenaz, ematen bazeie, egunak, illeak egon daitezke, beti hura bere gogoan.

Eri-handietan berexi detzazkegu batzu, burua argi daukatenak; sendalariak erranez geroz eri-handi dagola, apeza berez-bere aski da, sendalariaren bertze berririk jakin gabe.

Bertze batzu, *ezagutzea* arrot galdu dutenak; oriekin berehala zerbeit egiten ezpada, begira egon beharko da, noiz argituko othe diren zerbeit egiteko.

Bertze batzu, ezagutza guti-aski galtzen dutenak; oriek dira, gure lanaren gaienak.

Eri-handien gogora eltzeko bide asko ditugu: *itzegitetik, entzumenetik, ikusmenetik, gure galdeeri erantzutetik*, etc., etc.

Bide orietan ez dire guztiak berdin argi guztientzat; eri-handi bakotxak izan dezake bide bat, bertze guztiak baño argituago.

Arazo huntarik erne aski ibili behar da, eri bakotxaren bide argituenak bilatzen.

Sendalari jakintsunek diote: eriek gaitza berbera izanik, ez dela bi eri berdinek: gisa berean, azkenetan daudenetan ere eztagola bi berdinek.

Bakotxari doakon bide egokiena bilatu behar da, bide guztiak ikusiz edo batek uste duena berexiz.

Argi bilatze huntan, kontu: gertatzen ohi da, eri-handi batek eliza-koak ederki artzea, eta gero, sendatu denean ez dela deusetaz oroitzen.

Jakina: eri-handiaren ezagutza etzagola uste ginuen bezain argi, baño, orgatik ez dezakegu erran, orduan etzuela ezagutzarik aski edo *konzientzia* argi aski, elizakoak ongi artzeko.

Badire batzu apezan artean eta oitura dutenek elizakoak ematen; orduan badaiteke aski argitasunik gabe, bidean gauzak egin.

Burua nahasten denean, muñetako eta zenzuetako bideak tratatzen dire eta gertatzen da, erdaraz *disociación de los centros nerviosos* deitzen dutena: orduan eri bat baitan biga balire bezala iduri duela.

Maizenik: *Uremia, diabetes, narcosis clorofórmica, etérica, alcoholismo* eta oriek direlako kariaz, egin daiteke delako *doble personalidad*.

Apezan eskuetan dagonez geroz eri-handien ikertzea, zaintzea eta laguntzea; berez-bereko argitasuna ez da geienetan aski: sendalarien aholkuek apezaren *trebetasuna* argituko dute.

Trebetasun argi eta zorrotza egiten denean laguntza berezi huntan, erraten da *arte delicadísimo* baduela.

Orai, eri-handiaren agertu behar dugu. Laguntzaleak, lehen lehenik jakin behar duena: eri-handi bati erran diotelarik apez jauna deitu dutela, dei ori *nola artu duen* eta nola dagon gero.

Artu dion arabera, egin behar lehenengo prestakizunak.

Eskualdunen artean, agindua edo deia ongi artzen dute eta laguntzaleak ez du adimena zorrotzu beharrik, eria bide onean kausitzeko eta bozik uzteko.



III

Eri-handiak, euskaraz edo erdaraz mintzatzetik, gure galde modueri iardestetik eta arrontean ibiltzen ditugun bidetik deusik erdietsi ez dugularik, gerta daiteke, eri-handiaren adiskide min baten bozak, erna dezan eta argitasun zerbeit erdietsi.

Gisa berean, eriarri galdetu daiteke bere ofizioko lan edo egin beharretako zerbeit, ia erantzupenak argitzen gaituen geiago.

Aldiz, galde bera, bi gisetara egin daiteke, ia iardesprenak berdindiren.

Uste gabeen, bati gogoratzen etzaion bide batetik argitu daiteke.

Beha behin, zer gertatu zitzaidan. Buruko odol kolpe edo *perlesia*kin zagon gaxo bat, baño etzagon *osotara* burua ilundurik; *embolia cerebral* uste dut zuela.

Erdaraz ari nintzaion eta argitasunik ez nuen erdiesten ahal, eta huntan, oroitu nintzen euskalduna zela: euskaraz asi nintzaion eta berehala ohartu nintzen erdaraz baño argiago entzuten zidala eta keñuka, irri-zuri batean, aditzera ematen zidala erdaraz baño geiago.

Bide asko dire, gogo-bakotxaren berriak ikasteko eta batek uste ez duen bidetik erdietsi dezake, laguntzale jaunak behar duen hura.

Ilundurik dauden zenbeitzuendako, laguntzaleak sendalariari galdetu beharko dio, eriak zer gaitza daukan eta dagon baño geiago goibelduko othe den: zer uste duen gertatuko zaiola.

Huntaz landara, eri-handiengana apeza laster edo zaluiki deitzen dutelarik astirik ez delarik sendalariaren begira egoteko, ikusi behar da etxekoen artean nor izango othe den eri aren berri argiago eman dezake-nik, harengana jotzeko eta lehen bai lehen lanari lotzeko.

Etxekoeri erne behatzen denean batek berexi dezake, emakumetan argiena etxekoandrea dela edo *izaba* bat dela.

Emakume erne orietarik bat edo batek sendalari bera argitu dezake, erriaren goiti beheitietan, oharmen berezi batekin.

Laguntzalea, erriaren gelan sartu orduko ohartuko da, eri-handia ohean nola dagon etzana: gaitza bakotxak bere egote berezia badauka ta.

Sukar-usteldumen ohean egotea ez da *peritonitis* daukanak bezala; harek ahoz-gora, hunek, aldiz, gorputza, zango-ixterrak bilduak sabeleko miñen ezititzeko.

Meningitis delakoak nahasirik, buru-besoak igitzen, ohetik atera nahiak.

Geroxago, erranen ditugu bertze gaitza batzuen egoteak.

Laguntzalea ohartuko da, eri handiaren *aurpegiaren itxurari*, *begitarteari*, *aho-españeri*, *sudur sabetseri*: manso edo zaluiegi ats-artzeari, asots egiteari, zurruka edo ziztu egiteari: orietarik guztietatik ezagupide asko bildu daiteke.

Eri-handi guztiak ez daude ohatzeratuak, badire azkenetan daudela iduri dutenak, eta hala egonagotik badabiltza; azkenetara urbilduak dauden *min-bizidunak*: bai ta dema delako garaikerrietan garaituak izanik, *lasterka egitean* edo *trunku ebakitzen*; iduri bai dute azkenetan daudela.

Eri-handien ohatzean egotea geihenetan ahoz-gora, *coma* delakoan daudenak; *sukar-usteldunak* eta kolpe handitan *shock* delakoekin daudenak berdin.

Naiz gaitz ttipiekin, gizen gizenak ere hala daude.

Burutik nahasirik daudenak geldirik ezin egon, zer ari diren ez dakitela.

Eri-handien ohatzean jarriarik egoteak adiarazi nahi du, ats ezin hartuz daudela, dela *biotzetik*, dela *edema pulmonar* edo *crup-diftérico* edo zintzurretik beheiti zerbeitrek tratatzen duela.

Aurpegitik asko ikasi dezakegu. Behatze zorrotz, deusere ohartzin ez direla dirudien *erotu* edo *tumor cerebral* delakoan nahasturia adiarazten dutela.

Sabeleko eri-handiek kolore zuri-ilun dute eta mazalak sartuak sudur saetsetako zimurdura batean.



*Apoplegi*aikin daudenak, ilik bezala, baño lo *zurruka* itsusi batean; aurpegi-alde bateko *paralisis*ekin okertua.

Meningitis duten aurrek kolore zuri, *triste*, burua beti alde berera makurtzen dutela.

Mozkortuen begi-sudur eta ezpañak gorri: behatze zozoa eta beherako ezpañá dilindan, eroria bezala.

Sukar usteldunen begitartea eroria, kolore ilunzikin; begiak gorri eta ezpañak beltztuak, idorturik, erreak bezala edo xigortuak.

Aurpegiko *erisipeladunak*, aurpegi eta burua ahantua, gorritua, itsustua; ezpañak eta betazalak handituak ahoa eta begiak itsuski esten ditioztela.

Emphisema delakoak handizki anpatzen du begitartea; baño kolore sano du, larrua zapatzean *kri-kri* egiten du, ardiak larrutzeko airez anpatzen diren bezalakoeak.

*Tétanos*dunek, ahoa etsia (ezin ideki), mingaña ezin igitu, ezin iretsi dute; berehala iltzen dire, konortea argi dute.

Crup-diftéricodunek, ohatzean jarririk ats-ezin artuz, ezpañak more, sudur-sahetsak ats-artzean igitzen, eta ziztu zintzurretik.

Cólera dutenen begiak sartuak, azkenetan edo agonian daudenak bezala, betazalak more.

Eroen behatzeak ez du beinere eldu zaionaren behatzekin elkartzen, ots, ez dute elkar behatzen.

Perlesiak artua, alderdi bat illa, eta aurpegia alde batera okertua.

Eri-handien bertze nabarmen larrick adiarazi dezakete erien galbide handia badela, nola *odol-ixurtze* handi batek, aurpegia zuritzen duen.

Urdallaren zulatzetik eldu den oñaze handia.

Jakina: laguntzalearen gain da ohartzea, bat-batean eri-handiek erakusten dutena; baldin, sendalaria baño lehen apeza deitzen badute; erran ditugun ezagupideeri esker edo berez-bere, lehen bai lehen egin behar dena egiteko.

Baiki: apezek badute, liburu onak, *Medicina pastoral* eta *Ritual Romano* non apezek ikasten duten sendakintzako jakin beharrenak.

Eri-handi batzu, azkenetan, luze egoten dire iduriz burua osotara ilundurik; baño olakoetan gertatzen ohi da, eriazen adiskide min-min baten bozak iratzartzen duela iltzera zohana eta zerbeiti ohartzten dela.

Adiskide ori, badaiteke apeza bera edo sendalaria.

Itz-bitxi bat, *coma* aipatu dugu eta ortan dagon eria, lo bezala dago; baño *coma* guztietan ez da loa berdín edo arin, *coma diabético* ariñago, *coma apopletico*, pizuena.

Coma urémico delakoak baditu ariñak eta pizuak.

Eri-handien laguntzalea deiturik eta eriazen gelan sartu eta, poliki-poliki asi behar du; *astiki*, *trankilki*, *erreposki*. Lasterka ez da lan onik egiten, lasterka deiturik izan bada ere; bereziki eriazen ezagutza miatu behar du; handik atera beharko du, argi eta garbi jakin behar duena; ots, dugun lan zaillena.



DENETARIK

ALLIKO ARPE-ZULOEN AGERRALDIA

Lekunberitik ego aldera ordu laurden baten bide, mendixka baten magalean eta azpitik Larraungo urandi edo ugaldeak inguratzen duela dago Alli, Larraungo errixka pollita.

Iragan astean aratu ginen iru adixkide ango bertze adixkide baten deia bozik onetsi ta.

Alliko gure adixkide ona laguntzale ta gidari ginuela abiatu ginen petikora arpe-zulo etara buruz.

Gainbero edo sargori ginuen aroa goiz-goizetik, baña ala ere bozik eta aur batzu bezain arin ordu luze batez mendigañeratu ginen, bago ta aritza tarteko bidexka bat artuz.

Mendiaren gain gaineko gallurroan, aitzia edo peña ta larre batzuen azpian daude bi zuloak, leze baten sarrera itsa biek, leku illuna ta bustia.

Gure adixkide laguntzaleak zeraman Moriko, txakurra, beldurrez sailkaka atean gibelka utzi eta sartu ginen lauak, bakotxa bere argia esku batean eta makila bertzean.

Leku otz-ezea baita ura, marranta biltzeko beldurra banuen nik segurik.

Sartu bezain sarri, eskuñ-ezker, zolan eta sabaian edergailuz apainduak bazter guziak; batzu abe gisaz, gatzez eginak dirdiraka eta ura dariotela; lodiak eta meak, llaburrak eta luzeak; batzu azpiz lodiak eta goiti meatuz xorroxtuak, edo bertze gisaz, aunditzen ari sabaia yo artio (estalgmitas), bertze batzu itxura berberakoak baña buruz beiti, lanzurdak iduri, dilindan eta muturrean ur tanta bat (estalactitas) negurri guzietakoak, me-meak batzu, egiten asi berriak, eta bertze batzu gorape baten zutarriak bezan lodi.

Gatzez eginak daude, baño kisu-arri gatzez, antxe itaxura gisaz erortzen diren urak uzten dute iragaiten eta bustitzen duten lekuetan urtua daraman gatza ortarik: ura gatzez urtaala betea dago ta unki edo bustitzen



dituenak gatzetzatzen ditu eta beti dariola baitago, gero ta lodiago eta luzeago ari dire.

Ordu erditsu bat bear izan ginuen bakotxaren buruen buru egiteko: biurguneak eta leku estuak bai dituzte zabalak baño geiago, ukurturik bear da ango ibilaldi geiena. Ondarrean dituzte biek abeak edo zutarriak (columnas) lodiago eta ederragoak.

Orietarik batean ezarri genituen gure izenak an egon diren ikusle anitzenak bezala.

Euskaraz ari ginelakotz, gure oroitzapena euskaraz eman ginuen. Andik atera ta iguzkia goxo zitzaigun; eguerdia urbiltzen asia zelakotz bazkaltzeko lekura buruz abiatu ginen.

Ederki bazkaldu, soro gañean eta aritza peetan oraiko guduaz solas aldi gaitza bat egin eta etxeko bidea artu ginuen Allitik barna Lekunberrira.

Arriz betea dagon zelaitxo Aquelarre deitzen dutena iragaitean gure laguntzale argiak erran zakun sorgin-kondaira bat, baño au geroko.

ILARRI ZAR BILATZEN

Irur gizon erne eta biozdun, jakinduriaz landa, mendiz mendi gogorki lanean ari dire, gure lurreko leenengo gizonen atzak bilatzen.

Oroituariaren leen gutunek ez daukute gizaki eken berri ematen. Gutun oroituariaren aurreko menderen-mende bizitu da gizona eta aren berri guti dakigu.

Arpetako gizona bezalako dugu ere *ilarri zarrekoa*; unen atzak ilarri zarretan bildu dituzte; arriluze eta alakoetan ere atzematen oi dituzte.

Ilarri zaarren ikertzale orien izenak, Arantzadi, Barandiaran eta Egueren, irurak euskaldunak, irakasleak irurak.

Amar bat urte otan Euskalerrian dabilta irurak *ilarri zar* (dolmen) ikertzen.

Leengo gizonen oroitgarrietarik ikusgarriena, *ilarri zarra* da.

Oketarik irurogeita zenbait ba omen dituzte ikertuak Euskal-errian.

Aurtengo udan, Urbasako mendietan gaindi ibiliak daude eta atzeman dituztenak buluziak eta zolarano miatuak.

Mendi untarik etorri berria da Arantzadi jauna Iruñara eta iragan asteazken batez, ilunabarrean, argi eta garbi erran zizkigun, zeri buruzko lanetan ari diren eta zer xedetan.

Gure lur untako leen egoiliarren edo orduko gizonen berri zerbeit ikasteko, erran zigun, ez dugula bertze biderik baizik eta arpeta, ilarri zaarretan bizi zirenek utzi zizkiguten atzak; ok direlakotz gizonen iturburuak argitzeko pizgarri sollak.

Ikertzalen xedeak edo elburuak dire: atzemaiten dituzten gauzeri esker ikasi eken egileak noraño ikasiak edo jakintsu gutiak ziren.

Gu baño zenbat zaarrago diren.



Nolako gizonak ote ziren alako ilarrien egileak.

Gure odolekoak ote? Bide oriek argitzeko, ilarrizarrak ongi miatu bear dire.

Atzemaiten dituztenak bildu: direla arrizko aizkorak, aiztoak, arri-ziriak, potaxak edo lurrezko untzi; ezur andi eta tipi; osorik edo puskatuak.

Ortarako leenik, adiarazi zigun, *ilarri-zurra* zer den. Nola dauden eginak.

Osorik dagona eta urratua. Nolaz berezi?

Ororen sarrera iguzki aldetik dutela.

Bertze norbaitek leenik edo leenago ikertua ote den.

Aitzineko gizaki baten oroigarri direnez gero.

Zertako zituzten? Zenbat urte ote dituzte eginik?

Aren egileak, gizon nolatsukoak ote ziren?

Gu bezalakoak edo gure odolekoak?

Arkibideak ongi ikustatu eta erran zigun:

1en. Euskalerriko ilarri zarren adina bertze eskualdetakoena bezain zaarra dela.

2en. Gutiz gora-bera lau milarena, ots, Abraham delakoaren denborakoa.

3en. Ilobitzat egin zituztela.

4en. Arri andi ek bakotxa bere lekuan ezartzeko ez dela goiantien lana; oraiko gizonak metaziriz lagunduz egin dezakete.

5en. Atzeman dituzten gauzak, erran nai dute *arriaro* eta *burdiaro* bitarteko epe artan eginik direla.

6en. Atzeman dituzten ezurren arabera, orduko gizonak eta oraikoak, berdintsu.

7en. Baditeke gure odolekoak zitezken, baño au ez da erraz iardestea.

ITZULPEN BAT



IJITOTXUA

Al balitz, naiago nuke (ene irakurle maite maitea) lehen itza hau ez egin bearra *Don Quijote* delakoarekin gaizki gelditu bainintzen eta bigarren bat egiteko etzait gogo andirik gelditu.

Baño, nere izakera dela bide, egin ditudan adiskidetak baten gain emagun leen itza unen zergatia, haren gain utzirik ene iduria, gutun hunen leenengo orrialdean ezartzeko.

Iduria errax emanen lioke Juan de Jauregui pintore jaunak eta gisa huntan, nere gutizia beteko litzeke, eta bai naiko luketenek jakin ere, nor ta nolakoa den ainbeste amets jende aitzinean ateratzera ausartzen dena.

Unelakoa da hemen dukezuena; arranoen begitartekoa, ile gaztain kolore, kopeta leun eta garbia, begi alaiak eta sudur makotua baño ez itsusia; bizar zurian, orañik ez du ogei urte urre gorri zela, sudurpeko sendoa, aho tipia, ortzak ez andiak, ezpai ditu sei baizik eta horiek han-emenka berexiak, ez direlakotz elkarrekin ados egoten.

Gorputza ez andi eta ez tipi, bitarteko; kolore argia, beltzarana baino xuriagoa, bizkarra konkortuxea eta oñak larriegiak.

Hauxe diot dela *La Galatea* eta *D. Quijote de la Mancha*ren egilearen begitartea, baita *Viaje del parnaso*koarena ere beste idazti batzuen, hor bai dabilta galduak bezala, haren izenik gabe, agian.

Miguel de Cervantes Saavedra du arek izen arronta, urte askoz gudu-lari izana eta bost urte terdiz mairuen gatibu egona, non ikasi baizuen nair-gabeak yasaiten.

Lepanto delako gudaldian, galdu zuen ezkerreko eskua eta uts ori, itsusia idurituri ere edarra zaio, egin ziotelako sekulako parada oroigarrienean, zorionezko Carlos V-ren semearen gudaletxe zagalari.

Eta aixteko ene adiskide txar orri gogoratzen ezpazait zerbeit geia-go nigatik esateko, neronek ekarriko nituzke ameka lekukotasun eta esan-

go nioke ixilikan, gisa ortan ene izen ona eta nere buru argiaren berri emateko.

Astokeria litzeke goraltze horiek egiak direla sinestea, gizon baten laudorioak eta gaizki esanak, ez pai dute, edo ez paidakigu non daukaten beren arteko muga.

Nola nai den, aldi hura iraganik itxurik gabe gelditu bainaiz, neronek baliatu bearke dut; tetela izanik ere, egiak esateko gai naiz; keñuka esanak ere aditzen oi direlakoz.

Eta orgatik, irakurle maite, berriz ere diotzut; eskeintzen dizkizutan ipui auek ez daitezkeela aise irets, buru-buztanik gabe direlakotz, eta errayik eta ez antzekorik gabe.

Esan nai dut ipui horietan bilatzen dituzun itzerdi edo amuruseriak, garbiak eta zilegigoaren neurritz emanak daudela, inori ez paidote bear ez den gogoetarik sortuaziko.

Ejemplares eman diotet izena eta ongi beatuz, edozeñetarik atera daitezke onbide zuurrak eta baldin luzatzeagatik ezpalitz, erakutsiko nazkitzun orai bertan, guztietarik eta bakarka atera daitezken onurak.

Joko batzuen argirat ematea izandu da ene asmoa, nornai jostatzeko gai izan daitezen, inori miñik egin gabe ez ariman eta ez gorputzan ere.

Ez gaude beti elizetan eta otoiztegietan eta ez beste lanaldietan ere, oberenak izanik ere. Jostatzeko orduak badire, arimaren asedetzeko; eta lekuak ere zugatz-gerizak, iturriak eta loretegi apainduak daude.

Gauza bat esan nai datzuet, nonbaitik ipui oken irakurtzetik norbait bere gogua loi baleza edo naikeri arro bat sortuarazi, leenago eskua moztu nezake, argitarat eman baño.

Nere adina ez da bizi untaz beste bizitzarekin narrikan egoteko; berrogei ta amabortz urtetan bederatzi eta eskutik irabazten ditut.

Baldintza horietan asi zen nere buruko lana eta hoieri buruz nere leiak hortaritzen nau.

Hortaz landara, uste dut eta ala da egia, kastillanoz ni naizela ipuigile leena, beste guztiak izkuntza arrotzetik itzulikatuz ari direlakoz, nereak



diotan hauek, zinez nereak dira eta ez ebatsiak, nere burutik ateraiak, nere lumatik argitaratuak eta irarkolan moldatuak.

Bizitzen banaiz, eskeintzen dazkitzut *Trabajos de Persiles* deitua, Heliodoro delako batekin negurtu daitekena, baldin bere ausardiarengatik ez bada buru autsirik ateratzen.

Leenik, ikusiko dituzu andituak *D. Quijoteren* gertakariak eta Sancho Panzaren ateraldiak eta gero *Semanas del Jardín* deituak.

Asko agintzen dutala nere indarrarendako, baño naimenaren guti-ziak, nork neurtu?

Gauza bat adiarazi nai datzut; Conde de Lemos jaun andiari zuzendu badazkiot, zerbeitengatik izan dela.

Azkenik, Jainkoak begira zaitzala eta neri eman dezadala bear dutan eroapena ez gaizki artzeko zenbeit ergel-buru arroek, nigatik esango dutena.

NARRAZIOA



ESKUALDUN BIOZDUNA MEXICON

I

Elkar ezagutu genuelarik Donostian bizi zen: gizon bat zen lerdena, luze eta mear, ogeita amar urteren ingurua nonbait an zukuena: larru-zereko bere lantegian beti tente zagona.

Elkar betetzeko gai ote ginen ez dakit, baiño dakitana, geroago eta adiskidetuago ginela.

Gizon zintzoa, buru argiko bezain bioztuna dela gero ikasi nuen. Zuek ere ikasiko duzue, Jainkoak nai badu.

Bortz urte bazituen ezkondurik eta bi semeen aita zen.

Bere amak gure mutila etxeko zuen, baiño biotz oneko pinpirina batek biotza bete zion eta semearen aukera amak ez onetsi nai.

Sortetxetik lekorako ezkondu ziren eta lan eske Donostirat eman zuten.

Buru argikoa baizen edozein lanetako abila eta ikasia ere: Baionako ikastetxe batean egin zuen ikastaroari esker, bazakiena zen.

Bere ezkon-anai batekin lantegi bat beren eskuko artu eta larruzko zer asko egiten zuten.

Baiño Donostian bizitzeko sos asko bear eta aalik obekiena bizi nai.

Donostian egin zituen adiskidetarik Ameriketan egondu batek, Méxicoko ola andi batean kontu-artzale gisaz leku polita eskeiñi zion.

Senar-emazte biok irizpide bateratu orduko Ameriketara abian ziren.

Mexicon dugu gure gizona osasunez sendo; lanean azkarki, baiño ongi irabazten.

Bizkitartean eta jadanik lau seme-alaben aita dugu.

Seme geiena amabi urteko mutiko gotortua, biziki maite zuenaren baitan zuen bere biotzeko atsegin guzia: buru argi-argia zuelako maite zuen.

Baiño gizon kristau zintzo gisaz, geiago maite zuen biotz on-onekoa zelakotz.

Baiño Jainkoaren bideak! Eguerdi batez eta ikastetxetik lekora karrketan barna bixirrikan gañean atera eta karrika biurgune batean tarranta andi bati buruz-buru egin zuen; ura jo edo ez dakit nola gure mutiko doakabea tarrantak leertu zuen.

Aita, bere seme kutuna ezin bilatu zuelarik, irizainek zuzendu zuten min artuak eta karrketan gaitzak joak direnak biltzen dituzten lekura; eta gure gizonak an sartu zelarik, zer ikusten du? Maite zuen ura leertua, ilik.

Biotza erdiz-erdi eginik etxeratu zenean aitama eken biotz mina! nigarra zen bien aiots bera eta solas bakarra.

Leenbizian ezin sinetsi zutenak geroago eta miñ geiago ematen zaben.

Etxe artako iziltasuna! Maite aren gelako utsunea! Jateko maian, maite aren leku utsa! Maite zuten aren soñeko, oñetako; ikasteko gutun eta bertze ek guziak ikusi aldiro nigarra eldu zitzairen.

Aren buru argiaz eta biotz samurraz gogoratzen zelarik, bereala nigarrak ematen zion.

Gure gizonak ezin zuen etsitu; bere biotzeko maiteño aren itzaltzeak min andia ematen.

Baiño bearrik Jainkoa baitan sineste bizia zuela: aren atsedean bakarra, ortan zaukan: ongi bai zakien Jainko Jaunari gaudela alde edo moldez, onean eta gaitzean, atsegin alditan nola biozminetan.

Ordutik eta oroitu aldiro «Jainkoa baitan bego» zion: «Nere maite-maiteari eman bekio betiko zorionezko atsedena».

Gogora eldu zitzaion Jainkoak gazteez mintzo delarik diona: «Jainko jaunari usoak baiño usakumeak gozoago zaizkio», «gazteen naiz zale»,



«goiz ontzen diren pikoak guttiziatzten zituen ene arimak» eta alako erranez bazka zuen gogoa eta biotza.

Ortan beude gure gizonaren aiotsak eta naigabeak.

II

Gure gizonaren nagusiek biziki maite zuten eta aren baitan uste andia ere.

Iriko olatik landa nagusi oriek berek urruneko mendi batean 1.000 langile baño geiago bazituzten meatzetan, urre eta zilar bereizten; baño urre geiago ateratzen zuten nagusien sakeletarik. Meatze orietako lanen gora-berak zuzendu bearrez an-arat bialdi zuten gure gizona iru egun bide baztertua zagon lekura.

Mila bederatzi ehun eta amabigarreneko agorrillarenazpian, bere emaztea eta umeak Méxicoko irian utzirik, *Tepic* eskualdera buruz atera zen, urrezko meatze baten zuzendari berria. *Guadalajarako* trenbidea artu eta bide artako azken gelditokia, *Magdalena*, jo zuen.

Biamun goizean, argia astean, zaldiz eman zen mendiz-mendi bi egun terdiko bidean eta irugarren egunean Jainkoak daki nola ta nondik barna ibili ta, jo zituen nagusien etxeak, eskolategi, ola, eta *Los Laureles* deitzen denaren lantegiak, meaztegiak eta bazterretako meatze, lurrupuzulo eta oianak.

Bazter itsusiak zinez; zoko menditsu, oro patar: malkorra eta mallo utsa.

Ango beroek eta udazkeneko eurite gaitzek larrutzen eta eiartzen dute lurra; ta arri bizia non ez den oro erreka bide.

Arata jotzeko eta bereartan ibiltzeko bidexka batzu baizik ez, eta ek galbidez-galbide.

Arritzeko da zer lanak dituzten arat eramateko bear dituzten aparexak; ainbertze tresna andi bear direlarik olako lekuetan eta oro zatituak, puskatuak, mando-soinka eramateko gisaz oletan eginaraziak.

Meatze zuloetarik lantegietara mia eta oianetik labetara egurra eramaten dituzte airez eta eltzairuzko buru-buztan gabeko soka lodi bati esker.

Bi zirrika andiek ibiliazten dute sokatik dilindan paratzen dituzten burdinezko zareak eta oken barnean mia edo egurra.

Eltzairuzko soka moztu gabe eraman bear baida, beazue nolaz. Bi mila berga luze duelako, amalau mando lerroka bear dituzte, mando bakotxak bere mandazaina kaprestutik, mando bakotxari altzairu-sokatik lotzen diote eramanez dezakena eta mando batetik bertzera bospasei bergaluz den soka artean; ondokoari berdín zamatuta eta unela amalau mandoak elkarri sokaz josiak arrosario baten pikorrak bezala, elkarri eratxe-kiak. Ala aitzen omen dire beti beldurrez, noiz mando bat amilkatuko ote den, aren ondotik bertze guziak errestan gain-bera leertzeko.

Bertzeta tresna, aparexu andi, eta bear dituztenak unela eramateko gisaz eginazten zituzten, ebakiak eta ebaki bakotxaren azta unenbertze-koa, mando batek jasan añakoa.

Geroago eta gutiago ematen zaben miatzekak. Añada edo mia-marra nagusiena gero eta urrez ta zilarrez gabeago aurkitzen zuten.

Ala ere utzi nai ez, eta eri andi etsitu batengana sendakiñak bezala eldu ziren bazter artara inkenieroak oro ikusten eta ikasten, miatzeari bertze lopiderik bilatzen ote zioten.

Gure gizonak bazituen sei illabete bazter eken nagusi gisaz, aalik geiena egiten zuena.

Aldi artan bere etxean ostatuz bazituen bi inkenier, bat anglesa eta ipar-amerikanoa bertzea eta eken bi laguntzale.

Meatzeko lanetan ari zirenak baziren, 150 langile oianean egur moztetan eta egurketan; 700 langile meatze zuloetan, mea ateratzen eta meaketan; azpiko zokoan zituzten labe eta mea xeatzeko lantegietan, 200 langile.

Lan berezi bakotxaren kontu-artzale, eta eskolako irakasle bat ere bai.

Gure euskalduna bere lan egin bidenabar, eizian aritzen zen; jakina, ihizi larriari buruz.



Basauntzaren antzeko ihizi larri bat ugari dabila mendi eketan, oreiña edo *gamo* diotena.

Biziki trebatu zen ihizi eder orietarik iltzen; rifle dioten zizpa eder baten jabe zelako, arro-arro bazabilen langile erdi-bas eken artetik, nagusigoa erakusten zuela.

Oreiñak baño nasaikiago narraziak, suge andi eta tipi; izugarritzko suge andi orietarik beldurgarriena cascabel-duna eta zirauetan *coralillo* deitzen zutena.

III

Gure doneztebarra Mexicoratu ta bereala asaldamen bizkorra piztu zuten eskualde artako erritarrek, bazter guziak artu zituztelarik; orañik ere ortan dagozi.

Gizon garbiak atorraz aldatu bezala Mexican buruzagien aldairak egin dituzte: amar urte baditu asaldamen gorrian bizi direla Mexicoko eskualdean: baño guzien buruan asaldatzalen burupide eta xede bakarra ebasgoa zuten eta dute.

Berrehun aldekoak bai dira, aldian aldikoak nagusi, bazter guziak aldika ebatsi dituzte.

Guziek gauza bera egiten zuten: zizpak artu, sailka bildu eta erriz-erri, baserriz-baserri ebasgoan ibili.

Ebasteko bideak tratatzen zioztenei tiroka eta gudu itsusian erailtzen zituzten.

Alako gudulariak eskualde artako erritarrak ziren; *indioak* deitzen dituztenak ziren ba lan tzar orietan zabiltzanak.

Guzitara jartzen bai da gizona, Mexican ere iduri zuen ortara jarriak zirela.

Gure bidasotar zintzoa irian zagon bitartean bozik zagon eta bozikago aren nagusiak; aren baitan atsedena artzen bai-zuten.

Ola artako lanak gure gizonaren zuurtasunari esker ederki zoazilakotz, gogoratu bide zizeien nagusieri aren zintzotasuna ez ote zen meatzetan ere zerbeiten egiteko gai: eta una nondik gorriak ikusi bear zituen.

Los Laureles meatze delako bazterrak latzak bai dire, asaldatzaleak inguruko errietan ibili arren ez omen ziran araraño eltzen.

Orgatik egun geienetako berriak unelakoak zituzten; alako errian omen dagozi unenbertze gudulari gizon tzarrenak eta alde untara jotzekotan omen.

Unelako errian zernai ebatsi, zenbeit erail eta eldu omen dira guregana.

Azkenean alako berrietan etzuten sinisterik. Nola nai den, gure gizona beti erne zagon, ongi baizakien angotarrak, meatzeko langileak eta gudu artan zabiltzanak guziak bat zirela; eta bein gudulari saila aratuez gero estu ibili bearko zutela an zagozin arrotzek eta nagusi ordezkook.

Otsaillaren 19 garrenean, arratsaldeko iruetan eskuratu zuten gutun idazki batean jakinazten zioten egun artan bertan 150 asaldatzaleak inguruko erri batez jabetu zirela eta eken xedeak zirela, meatzetik urbilen erria jotzeko. (Iru ordu laurden bidera baizik ez dagona).

Baño erri ortartzeko bide bakarra meatzetik barna bai-dago, gure gizonen etxe bazterretik iragan bearko zuten bereartan gelditzen ezpaziren.

Meatzetik etxera eldu eta afaltzean etxeko lagunak azken berri aren jakintsun egin zituen eta bera bezala ek ere ez omen ziran beldurtu, ustez ta ura ere utsa aterako zen.

Nork daki? bear-bada eta zer gerta ere, arratse artan oatzeratakoan gure gizonak deitu zituen bere lau lagunak eta manda-zaña, eta etxean zituen bortz zizpa eta okeri doazkon zerak banatu zabezten bakotxari berea emanez.

Berak ere oatze ondoan aisa eskuratzeko gisaz utzi zuen rifle delako bere izkillu ederra, pistola eta tirogaiez betea zuen gerrikoa. Bereala lokartu zen.



IV

Biarahun goizean goiz, argi urratzeari begira zagolarik oatzetik jaitzeko entzuten ditu dinamitazko zapart-asotsen iduriko batzu; askotan langilek beren eztaiak, aursortze eta alakoak jaitzen dituztelarik entzunak zituen bezalakoak.

Baño geroago eta tiro-ukaldiak usuago, oartzen da balen ziztuari eta leiotik barna balek bertze aldeko orma zulatzen zutela.

Ezpairik gabe etsaiak an zituzten etxe inguruan.

Oatzetik jaiki eta poliki-poliki saetseko ormari urbildua, gogoetan ari zen egun artako (bere azken eguna zitekena) zer jaunzdura obe luken.

Mendirik-mendi ibiltzeko jaunzdura berarizkoa urdina denez gero, jauntzi zurail urdinean eman zen.

Gelan zituen baliozko diru eta paperak artu; tiro-gaiak soinean eta gerrikoan; 70 tiro-gai bazituen soineko zorroan.

Gauza oriek guziak astiro eta bere buruaren jabe zela egin ondoan zigarroz sakelak bete zituen, gero rifle-zizpa eta pistola artu eta atera zen bere gelatik etxe barneko ezkaratzera; an etzuen deusik nabaitu eta itzuli zen atondoko iragaitzara. Hacienda guzia ageri zen tokira.

Andik poliki-poliki urbildu zen zurezko ate batera; emendik iragaiten zen etxean sartzeko ezkaratzera.

Ateko zirrizta batetik, doi-doia ikusi zituen (etzagon argitua orañik) bi gudulari izkillutan; ezkaratze edo iragaitzaren ezkin baten gerizan.

Bertze gizon bat meatxatzen zuten urbil zadin etxe atari aldera; beldurrez bezala asi zen atarira nun ta gure gizonari bertze ekengana bere zizpa zuzentzeko bidea ekentzen ziola.

Gizon ura atarira urbildu zelarik gureak laster egin zuen galbide artarik barneko aldera eta an barneko ezkaratzean zauden ator-utsean bere lagunak, zizpak eskuetan.

Laster eta guziek batean erabaki zuten aalguziak egiteko leenik etxe barnetik gero ikusiko zutela nola.

Gure gizona emen agertzen da biozdun bezain buru argi odol otzean bide egokiena bilatzen.

Bera gelditzen da etxe atezain nor nai den arata urbiltzen denari tiuro-ukaldiz artzeko; atea bulkatua baizik etzagon ba.

Bizkitartean lagunek soñekoak jauntzi, etxe bi atariak etsi eta barneko aldetik agaz edo etxe zer andiez atek kontinez eta indartuz, gure bidasotarrak gordeak zituen tiro-gaiak banatu zabezten bertzeri: atsedean pixka bat artu zuten orduan eta ingenier leena telefono-aparexura urbildu zen, *Magdalenako* aria zuten laguneri berri emateko baño bertan aria moztu zuten.

Gure gizonak agindu zioten laguneri nolaz atek zaindu, beren buruak nolaz begira eta bereziki tiro botatzen xuurki ibiltzeko, ezpaizakiten egun artan zeri zagozken.

Egun artako egiteko andia, ilunabar artio irautea zela, gauaz bertze-la jokatu zutela.

Guzien buruan, ateka estuan zagozin; etxe barnetik, nolapaiteko zizpekin bertzeak, tiro-gai eskasekin eta atetik Jainkoak daki zenbat etsairi buru egin bear, Mausser delako izkilu eta tiro-gaiez bete-beteak (ala zauden beñipein, berak ate zirritotik ikusi zituena).

Etxe urbiletik ari ziren tiro-ukaldika eta ek barnetik leio ezkinetik barrandan nondik norbait ikusiko ote zuten; etsaiak arrizko labe lodi batzuen gerizan zauden; mia berazteko eta bertzelakatzeko untzi andi batzuen arri-oñak.

Oiuka bakea eskeintzen zuten kanpokoek atek idekitzen baziozten. «Ideki edo etxea leertuaziko diagu», zioten; gure gizonak berriz «aal baduzue ideki zazue».

Asi ziren tiroka atearen alde alde eta barnekoak gisa beraz; baño gure gizonak garraski agindu zioten ez botatzeko; alferrik ari zirelako. Tiroka asi baño leen, ingenier leenak langile bati atea ideki zion, batere ez oartu gabe langile ura bertzen mandatari bat zitekela. Gure gizonak



saminki asarre eman zion, eraten ziolarik gizatar bat zela eta auzitegian ordaindu bearrak bazituela.

Gertaera au biziki gaitzitu zitzaion gure gizonari eta bigarren ingeniarioari ura zaintzeko agindu zion, eken galbiderako etorria zitekela; atekoekin xede batera zoakela. Zerbeitek gogan-beartzen bazuen, ezpairik gabe, tiro-ukaldi batez jotzeko.

Gure gizonak etzuen begi aintzinetik langile ura galtzen; iruak ala zaudelarik, oiuka kanpokoeke amor eman zezaten eta barnekoek geroago eta saminkiago, «ezetz, inñolaz etzutela amor emanen».

Orduan iruak, ateko iragaitzera atera ziren, iragaitze untan zituzten itzalkiak edatuak zauden eta bearrak, eken gerizan gordetzeko.

Baño langile ark, lapurreri keñu egiteagatik edo, itzalki artetik burua agertu zuen eta kopeta erdi-erdian jo zioten, eta il otzik bereartan gelditu zen. Buru kasko ezurraren erdirat jua zen eta muñak alde guzietara erautziz.

Gure gizonak tiro-ukaldi bat ere etzuen aurdiki, etsai garanoik etzuela ikusi ta.

Aldiz bere lagunak ezin buruaren jabe egon, nolanaiz zizpak ustutzen alferrik, ezin egon beartzari eman gabe naiz gure gizona beti ari zen gero-ko begiratzeko, bestenaz aldia eldu zelarik batere gabe arkitu zitezkeela.

Egun arek ordu asko aitzinetik zituela, eta zer gertatuko zitzeien etzakitela.

Beren baitan eta elkarri zioten: dinamitez etxea leer-egiten ezpadi-gute eta zuur badugu tiroak xahutu gabe, badugu asko eguntako janaria, gogor egiteko.

Estualditan, etsaia garaitzeko bide erdia, bat bere buruaren jabe egotea bai da, ortan nagusi agertu zitzaigun gure anaia euskalduna.

Askotan, eskualduna, gudulari ona agertu bada, bere urratsetik nolanaiz aldatzen ez delakotz da eta ez nolanaiz kroskan erauzten ere.

Guduka geienen garaitzea ortan dago.

Gure gizona unela jokatu zelakotz, zauden bezala zauden.

Apur bat tiro asotsik entzun gabe doneztebarrak bere gelako leioaren ezkinan zagola ikusi zituen bidetik zoazila iru lapur, bi oñez eta bat zaldiz: zaldizkoari zuzendu zion bere leen tiro-ukaldia; zaldiak jauzi andi bat eta lasterka biurgune batean itzali ziren.

Alde guzietarat bea, etzuen gudularik nabaitzen; baizik eta langilen ziztuak eta oiuk igesari eman zuten. Langile zenbeit urbildu ziren eta ek jakinazi zabezten, nolaz inguru artarik lapurrek alde egin zuten.

Etxe inguruan egonak 30 bat zirela, baño meatzeko egitik 130 bat iragan zirela; erri urbil artako bidetik eman zutela geienek, baño saldo bat an gelditu zela.

Pozik jakin zuten eken langiletarik inñork etzuela lapurrekin ikustekorik izan, eta gudulariak eskualde artako arrotzak zirela, berriki asaldatuak, *Madero* delakoaren aitzi.

V

Gure gizonak orduan lagunak batu eta bereala etxe artarik atera bearko zutela meatze lurpeko zuloetara buruz.

Gurea leenik eta lerroan, bere zizpak bi eskuetan prest, lantegietan barna jua ziren meatzeko bidea artzeko. Bidea artu eta gure gizonak urrunera ikusteko apaxuekin, beren mandazain bat etxe aldera eldu zela ikusi zuen; urbildu zelarik deitu zuen eta itzuliaz urbileko errira, aren mutil bati adiarazteko, ez etortzeko; langile guzien amabortz eguneko saria zekarren eta.

Ingenier leena eta gure bidasotarrak bidean gelditu ziren bitartean, eken lagunak meatze zulo urbilena jo zuten igesari laster eginez.

Baño gure gizonak lagunari zion: «Gure egin bearra oraiko aldi untan, nagusien ontasanak aldezte denaz geroz, naiz bizia galdu ere, emen dago gure egitekoa».

Bi gizon biozdunek, ala uste zuten jokatu bear zutela. Biak ortan zaudelarik, urrutira, *La Yésca* delako erritik par-parean gizon gudulari saila, oñezko eta zaldizko, ikusi zituen gure gizonak, begiak lagunduz.



Zagozten mendixka aren leku oberena bilatzen asi ziren etsaieri buru egiteko.

Bizkitartean *La Yesca*ko bideari so zauden ea noiz ikusiko zituzten eldu zirela. Untan zaldidunek, amabien bat, mendiko bidea artu zuten; ezagutu zuten non zauden gure gizonak, eta mendi aldera jo zuten ez uzteko edo trabatzeko meatze aldeko bidea edo gure gizonen gain-aldea artzeko eta bertzeek azpitik, bien artean gure gizonak arrapatzeko an tente, nagusien ontasunak beren bizian truk negurtzen zutela!

VI

Gure gizonak etsitu zuen estualdi latza.

Bide bakarretik saldo gaitza eldu zen eta zalui, bide makur artan arteka ikusten zituzten eta arteka biurgunetan gordetzen.

Erabaki zuten, bein urbilduez gero sail burua, tiroka asteko. Gure gizona tiroz asi zelarik lasterka eman zuten, urbiltzenago eta gutiago ikusten zituzten, leku zikina eta malkorra baizen.

Orgatik lekuz aldatu zuten, beldurrez gain aldetik bertzeak asiko ote ziren.

Zagozin mendixkan, ordu artio an emenka ikusten zuten langiletarik bat edo bertze; baño tiroka asi orduko itzuri ziren.

Mendixka aren iparraldera eman zuten, nondik ederki ikusten bai zuten berek berriki ustu etxea.

Etxearen ateko iragaitzan, langile ura ilik gelditu zen leku artan bertan asaldatzale saila zagon eta gure gizonak ekeri zuzendu zioten tiro batzu; tiro leena bota bezain laster, andik lekutu ziran.

Etxe eta unen inguruetara bea zagozilarik gain aldekoak berriz tiroka; bidasotarra oartu zen bati nolaz izkilua zuzentzen zion bere lagunari eta bereala aurdikitzeke astirik eman gabe, berak zuzendu zion ari tiroa.

Arri eta larren artean gordetzen zitzeien, baño ala ere norbait nabari zen lekura, bereala an zuen tiroa.

Baño gure gizonen ukaldiek bere buruak gorderik non zauden salazten; maiz bear zuten lekuz aldatu, eta poliki erreka beera zoazin eta untan arri andi baten peko aldeko gerizan gelditu ziren gure bi gizonak.

Bizkitartean, beeko etsai multzoari ageriago zagozin, eken balen ziztuari so egonik ikusi zituzten beeko aldean bi gudulari gorderik, baño zapelak bereizten zituztela; bereala tiro bana igorri zioten.

Gure gizon biozdunak bi suen artean zauden, urbilena, ustez azpikoa 25 bat metrora, gañekoa ere eken ondotik gordeka baño urbiltzenago. Biek batean erabaki zuten, ingenieroa azpikoeri buruz eta gure gizona gainekoeri.

Balen ziztutik ezagutu zuten jadanik ikusiak zirela bi aldekoetarik; alaz en gañekoek bota ziozten amilkatuz eken gainera arri batzu, ezbairik gabe gordelektik uxazteko eta ala egin zuten beren biziaz etsitu ta, etsaiekin buruz-buru egiteko.

Gure gizona atera zelarik, 15 bat metro goraxago ikusi zituen sei lapur eta seiek batean aurdiki zioten tiroa gure gizonari eta bereala lekutu ziren. Aren inguruko arrietan leertu ziren balak eta arri batek baizik etzuen gure gizona aurpegian ukitu.

Buruz-buru ezin zutela bi sail eken garaitzea, gure gizona bertze gisaz jokatu zen: bas-erreka beiti eman zen, baño zutik ezin egon errestaka eman zen eta xoko batean gelditu zen izil-izilik, nondik agertuko zitzaion bere azkena.

Balen ziztuatarik ezagutu zuen itsu-mustuka ari zirela. Lurrean etzanik zagolarik lurraikin bat eginik geldi-geldia, bospasei tiro ukaldi bere laguna utzi zuen lekutik; bere baitan «il dute ene lagun doakabea», baño etzuen oi u edo aiotsik entzun.

Orduan argiago ikusi zuen, alferrik ari zela etsaieri buru eman; zizpa eta soiñeko-gerriko zorroak erantzi, lurrean utzi eta bas-erreka beiti eman zen; berak nai zuen baño lasterrago, bearrik ukondoaz arrasta eginez eta Jainkoak ala nai zuela, zaraka batetan, ixter-koloxkan eta erdi dilindan gelditu zen, ipurdi aldeko galtzak eta urraturik.

Ala izan ezpazen, beeraxago etsaiak zauden bideraño etzen geldituko eta eken eskuetan Jainkoak daki nolako eriotza luken.



Iñork ez bide zuen somatu arek egin zuena, eta lurrari josi zen lapa bezala; ats anditua, aoa legortua eta mingaña ain txukatua non ats artzera uzten etziola eta etsitua, mingaña errotik atera nai zuela.

Bere baitaratu zelarik ohartu an agerian bere burua galbide andian zuela baño etzuen bertze biderik, lurrari lotu, lurrarekin bat eginik egotea baizik.

Apur bat ala egonik, gizotsek gainaldetik zioten, «Cuidado que está armado y escondido»; itz oriek aditu zituela etsitu zuen zakur bat bezala ilen zutela; erioa ain urbiletik ikusi zuelarik, gogoa argitu zitzaion, bere bizitze guziko egintzak batean gogora eldu zitzaizkon eta: «Ene Jesukristo Jauna» zinez eta biotzez iru aldiz erran eta Jaungoikoaren eskuetan utzi zuen bere burua.

Bere biotzeko maiteak Jainkoari eskeini, otoizten zuela aren etsaien begietarik itzal zetzan.

Aren inguruan izil-izilik, deusik nabaitzen etzuela; laguna, ezpairik gabe, il zutela.

Apur bat ala egonik, poliki-poliki atera zuen ordularia eta iruterdiak.

Burua gutika goititu zuen eta hacienda aldera bea, etxearen ebasgoan ari zirela ikusi zuen: beeko aldeko bidetik zaluiki zabiltzan gizonak eta emakumeak, mando-soinka etxeko zerketan. Etxeko lastailuen gañean ilak eramaten ere ikusi zituen.

Bizkitartean, gure gizona lurrari josia, iguzkiak orañik erretzen ziola eta ulitxoek ildurutzen zutela, aurpegiko odol zorta idortuetarik ezin lekutu.

Bearrik iguzkia jausten ari zela eta gutien buruan mendiz araindian itzaliko zitzaiola.

Ilun-nabarra urbiltzen zela gogoraturik, atsedentzen eta pozten asi zuen, ordularian bostak eta amar minuto zirela ikusi ta.

Ordu erdi baten buruan, iluntzen asi zuelarik lanak izan zituen, anak ezin bildu, besoak ezin luzatu, jartzeko eta zutitzeko. Zutitu eta urratsik ezin eman, lekua alakoa eta ilunbeltza.

Ala ere, egon zen goiti goatekotan, lagunaren atzik ote zen eta bere zizpa eta zerak artzeko.

Baño, deusik etzuen ikusten eta norapait atera bear, baserreka beiti eman zen arri eta larren artetik, Jainkoak daki nola, bide madarikatuari buruz.

Orañik arat-unat bazabiltzan: asotsik nabaitzen etzuela, bidea aldealde iragan zuen; bada norbaitek an ikusi balu arenak egin zuen.

Zuzen, baserreka beiti ondoraño jua zen, emen bota an itzulipurdi; alde guzietarik joa, ubeldua, larrutua eta ezindua.

Ordu artan etzioten beldurrik ematen leku artan zabiltzan suge eta zirau askok.

Berak zakien baratze tipi batera eldu zen eta andik baratze zainaren etxolan sartu, ango emakumeari ur tanta bat galditeko.

Bozik edan zuen, emakumeari eskerrak biurtu eta ur barnetik ari zen berriz; putzu erditik edo bazterretik, aal zuen bezala jo zuen *La Yescu* delako bidea artzeko xedetan.

VII

Doi-doia eldu zen *Socavón explorador* tramankulura eta andik betikorra iganik, etxolara sartu zen.

An zauden langile guziak goiz-goizetik zagozin, igeska etorriak.

Batzar ona egin zioten, ogi koskor bat eta txokolate pixka bat artu zuen.

An ikasi zuen, bere laguna gaizki zauritua bide madarikatu artan bota zela eta batek urrezko ortzak aiztoz ekendu nai zitiola eta ingenieroak atsiki egin eta pistola-ukaldi batez bertan il zuela.

Ikasi zuen ere, meatzeko burua salatua izan zela *La Yescako* buruzagieri, etxean gelditu ziren iru ilak aren gain eman zituztela.



Buruzagiek aginduak emanak beren menekoeri, ilik edo bizirik gure gizona arrapatzeko.

Bidasotarrak bazakien, irizainen eskuetan edo lapurrenetan berdin zuela eriotza.

Aren bila zabiltzanez gero, jauntziz aldatu eta bere artako gizonen antzera eman zen *tilma* delako estalki urdin batez eta zapel zabal batekin, andik itzuri zen eta berriz erreka beiti.

Bearrik, orduko, ilargiak argitzen zituela erreka eta bazter ikaragarri ek, ala ere leku itsusi batzuetan urez ezin iragan eta baterretan bere atzik utzi nai ez.

Gorriak ikusi zituen leku tzar, beñere gizonik ibili etzen artan, baño ala ere atsedean zuen, bai zakien bi zangoko iñor ausartuko etzela leku etan: narraztien errestatzak eta ziztuak bai, nabari zituen.

Bide luzean ala juanik, arkitu zen berak zakien etxola baten azpian; erreka utzi eta eman zen petikora, ilunbetan eta biderik gabe, ordu erdi batez edo urbildu zen etxolara eta ezkaratzean ikusi zuen gizon multzo bat.

Gelditu zen, damuturik arata urbildu zela baño, Jainkoak nai duena gerta dadin, sartu zen. Gau onak eman eta aen itzotsez ezagutu zuen, eken langiletarik zirela igeska an bilduak.

Eta, Jainkoaren bideak! etxola artako nagusiak, ustez eta arata eldu zitekela gure gizona, bazauzkan aren igesiari laguntzeko gizon-bidari bat eta zaldi xaar bat. Txokolate gordin pixka bat artu, eta aren egarrria! pitxer bat ur ustuz zuen.

Biotzaren erditik eskerrak biurtu eta kontuartzaleri galdegin zion ea bidari-gizon ura gisakoa ote zen; baietz kezketan ez egoteko, bere baitan bezain atsedean zukela.

Zortziak aldean izain ziren ura zaldiz eta bidaria aitzinetik etxolatik atera zirelarik, ango guzieren besarkatu ondoan.

Bidari lagun, indio xaarrari, ehun peso eskeini zition trenbideko leen geltokira orduko.

Ilargiari esker bazoazin begi erne eta asots guzieren belarriak so.

VIII

Bidean bazituzten galbide andiko bi leku iragan bearrak; leenari urbildu zirelarik, *Bolaños* deithu ur andia bear zuten iragan, ezpaizen bertze biderik eta arata eldu baño leen, zoko batean gelditu zen eta bidaria aitzindu zitzaion erraten ziola: galbiderik ikusten ezpaduzu ziztukaldi bat eta biga baldin arriskurik nabari bada.

Gure gizona urandiari urbiltzen zela, bertze aldetik gizon bat urean sartzen eta eken alderdira eldu eta gau onak ematen ikusi zutelarik, bozik gureak.

Gizon ura galdeka eta galdeka eta gureak berriz etzakitela deusik, ur andiaren bideak ikasten aritu zirela.

Emendik mendi gora jo zuten; gañera eldu orduko gure gizona bus-tia baizagon eta gañera otzak, otz-ikaran jarri zen. Su egin bear izan zuten etxol tipi batean: idortu, berotu eta bidariak zeraman artopil eta arroltze egosiak jan zituzten gauerdian ondoan.

Bideari lotu ziren, baño nola gure gizona baizagon, alde guzietarik minberatua uspeleduraz betea, eta azkenik zaldi gañean atzeko alde larrutu bai zuen, ezin zaiteken zaldiz; oñez berriz nekatzen, ezindua; urratsik emateko aalik etzuela gelditu zen bide bazterrean etzanik.

Bidariari zion «utz nazazu emen eta zoazi nai duzularik nitaz konturik egin gabe»; orduan ere etsitu zuen, aal guziak ondatu zituela.

Baño bidariak beti ari zitzaion biotz-on ematen atsedean zezala.

Apur baten buruan zutitu eta berriz lotu ziren bideari; eguerdi irian erreka putzudun bat iragaitean gure gizona buluzi zuen bertzeak, eta urean sartu zen.

Biotza ondu zion eta iduri indar geiago zuela iru orduz ibiltzeko; berriz atsedean eta berriz bideari.

Arratsaldeko bortzetan mendixka gain batetik *San Pedro Analko* delako meatzerria ikusi zuten eta arindu ziren; ilundu orduan sartu ziran errian; baño ostatuik iñork ez eman nai.



Tegi zikin batean sartu, baño lorik ezin egin; aldez neka-porrokatua eta aldez asots guziera erne. Iruetan iratzarri zuen laguna eta bideari lotu, andik bazuten oraiñik 16 orduko bidea, trenbidearen leen erria jotzeko.

Bederatzietan, urbildu ziren *Río Grande* delako iragaitze beldurgarri artara.

Emen ere leen bezala egin zuten, eta txalupa zabal baten antzeko untzian, zaldi eta guzti iragan ziren; untzi ura burdinezko soka lodi bati esker bi gizonak ibiliazten zuten, alde batetik bertzera.

Beldur ziren, eken bila gordetuak barrandan egonen zirela eta txalupara beldurrez ikaratuak urbildu ziren. Gogoan beartzeko ezer etzuten nabaitu eta urez bertze alde jo zutelarik gizon bidaria eman zen arin eta solastari, ordu artio itzik egiten etzuen.

Aren aldairak gure gizona arritu zuen eta galdegin zion: zertako?

Erantzun zion «Ur andiaren bertze alde jo bitartean ez nintzan zure igesiaren jabe».

Orduan elkar besarkatu zuten eta atseginaren indarrez ariñago jo zuten mendi gain bat, nondik ikusi bai zuten *Magdalena* iria, bere kalbarioko azkena.

Eta andik arat oatze gozo bat, eta basa gizonen orde, etxe gizonak. Eta guzien buruan aren emazte-eta, seme alaben ikusteko zorionezko muga.

Gure gizonak bidariari larruzko gutun polit batean ehun peso itz-emanak eman zition.

Xaarrarentzat diruketa gaitza eta gure gizonarentzat bizi untan izan duen atsegin andienekoren lekuko.

AZKENA

Irakurle maite: gure gizon eskualdunak berak erran bezala egin dut

lerro aldi au. Oro egia dela, ari gertatua, sinesten aal duzu, nik baidakit nolako gizona dugun ura.

Egia diozuz, alako gertakariak nere burutik ateratzeko gai ez naizela.

Iruñetik, 1921

Larreko



BI GUTUN

SOUBELET JAUN IDAZLE ARGIARI

Oraiko aldian, ni bezalakoek, jakin nai ginuke euskaraz garbi idazteko bideak zein diren, edo bedere, zertan ezagun dezakegu euskara garbiena.

Ni, orrengana nator eta barkatu.

Gizaki mota guztiek, gure ditugun eginbideak baditugula, jakina.

Orotako eginbide orietaz ez naiz mintzo; baizik eta euskaldun gisaz ditugun eginbide berexiez.

Baiki, euskotar gisaz, ez ditugula guztiek eginbide berdinak; baño, guztiek aberria maite bear dugu eta egiazko maitetasunik ez dago, non ta ura ez dugun eginbidetan erakusten.

Asko gisetara erakutsi dezakegu; baño, eginbide orietarik bat bada, bakotxak bere esku daukana: ura da bakotxak duen bizi bide edo lanpidea; sendakina dela, apeza dela, zurgina dela, nekazaria dela; edozein bizipidekoa dela; bere eginbearra aalik eta obekienik egitea, aberriaren alde lan egitea da; bere lankideko edozeñek bezain zindo eta jakintsun agertzeta, aberriaren alde lanean ari da.

Elizalde jaun zenak esaten zigun aberriaren alde lan egiteko bide bat dela, bakotxaren lanpideko lanak aalik eta zintzoenik, jakintsuki egitea.

Txeko-Eslovaquiako buruzagia Kazaryk jaunak berriki gauza bera esaten zuen, aberkiden oarrarazteko.

Untaz landara; bakotxak bere-bere dituen egin bearrak ere baditu eta oriek ezagutzeko, gogoeta ongi.

Askotan gogoeta egonik nago, nere buruari galdeka, euskar idazle gisaz, eginbiderik ote dutan?

Oraiko aldi untan egiazko euskaltzale batentzat, zein daiteke lanik egokiena, bearrena, onuregarriena?



Nere baitan, beti erantzupen berbera; aal dutan guztia euskararen alde lan egitea.

Badaiteke emen bear ez denik; baño, nik uste, euskararen aldetik bear dugula erdietsi gure aberriaren goratzea eta bere-gaintzea.

Nik, euskaraz ikasi dutana besteri erakustea ongi eta eder zait, baldin erakuste ori, aalik eta euskara garbienean egiten badut.

Ortarako, obekienik dazkitan gaiak berexi eta irakusleeri obekienik adiarazi. Bakotxak badaki bere buruaren berri eta zer gaietan ikasia eta aditua den.

Baño, eta emen dago ari mataxaren koropiloa.

Nola jakinen dut, euskara garbia erabiltzen dutala? Dakitenek erranez.

Aspaldidanik, ortarako bide bila nabila eta nik uste bide egokia litzekela, irakurgaiak Euskalerrri guztian edatu eta euskaldun utseri oartarazi.

Euskara garbiena litzeke, euskaldun geienek aditzeko gisaz egina den irakurgaiarena.

Jakina, ez dela erraz irakurgai batean dauden itz guztien jakitea; baño, euskara garbian egina bada, itz bat edo beste ez jakinagatik, aldeko itzek argituko dute.

Gogoia ortan daukatala, eta berri jakiteko bezala, nik, astero egiten dut euskar lan bat, eta lan ura berbera iru astekarietara bialtzen dut.

Eta zer gisaz aditzen ote duten astekari bakotxaren irakurleak, nik ez dakit: baño *Eskualdunak* aspaldidanik badaki asko idazkeren berri, eta on litzaiguke, bide untarik argitasunik egin baleza.

Larreko

«EUSKAL IKASKUNTZA»KO JAUN ANDIERI

Saint Pierre jaun apezpikuaren eraztunari musu emanez, eta Laffitte jaunaren eskuan musu emanez; biak bitarteko arturik «Euskal Ikaskuntza»ko jaun andieri, agur-andi bat, Jainkoa baitan.

24-VIII-1948

Nafarroako euskaldun chabar bat

Mgr. Saint-Pierre, apezpiku jauna eta Pierres Laffitte *Herria* delako kazetaren zuzendari, ko euskar sailako lanen buruzagi agurgarri direneri, Jainkoa baitan agur. Barkatu; baño, zuen baitan ustekida andia dute emengo euskaldunek eta orgatik zuen bitartez, eldu naiz «Euskal Ikaskuntza»ko buruzagieri otoitz egitera.

Ikusten eta entzuten dutanez, Nafarroa alde untan, gero ta zokora-tuago daukagu gure izkuntza: euskara.

Aldiz, oharturik gaude, zuen berrikerari polit eder ederrari *Herria* orren argi, orren aberats, orren jakintsun eldu delarik; ni, ametsetan ez ote daiteken, Nafarroa untan ere biderik egin euskara pizteko, edatzeko eta bereziki maitarazteko.

«Euskal Ikaskuntza»ko bilkuretan, ez ote diguzue bide egoki bat idekiko, bedere, «euskaldun letradun»eri, erakusteko, irakasteko nola bear dugun jokatu, euskara iltzera ez uzteko?

«E. Ikaskuntza»ko jaunak, arrigarrizko jakintsunak direnez geroz, otoizten ditut ohart daizten euskarari buruz nola gauden Nafarroa-gora untan eta bila dezaten bide egokiena, gure euskara maitea galdu ez dadin. Barkatu jaunak: baño, euskaldun letraduneri, nola beartuazi beren artean beti euskaraz aritzeko?

Euskaldun apalek edo arrontek, orduan, nai lukete euskaraz egitera gogotikago, letradunek bezain andi agertzeko.



Mendiz beste aldekoek, «Eskualtzale Biltzarra»kin egiten dutena, ez ote litzeke bide bat gure artean ere? Euskaraz dakiten aurreri eta gazteeri sari politikak emanez?

Guztien buruan, zer egin daiteke euskararen aldeko amodioa pizteko?

Baionako kazeta polita, *Herria* edatu badaiteke ori litzeke bide egoki bat, baño «España»ko buruzagiek ezpai dute onetsiko.

Ala ere, beldur naiz *Herriak* izango ote luken irakurlerik aski, kazeta laguntzeko.

Oraiko aldi untan, nik uste, ez daitekela egin; iñolaz ere, gobernuak ez duela bide ori onetsiko. Baño, jaun agurgarri oriek, nik uste idekiko digutela bide bat egokia, euskararen aldeko maitetasuna ezagutarazteko, eta gu baitan, berriz sortuazteko, gogo biotzak indartzeko eta euskarari buruz, zerbeit egiteko.

Nere gogoaren berri zuen baitan landatzeko, nik uste, naikoa dela erran dutana. Barkatu jaun arrigarri eta jakintsun oriek. Azken itza, zuen.

Nafarroako euskaldun xabar batek